

goiena

DEBAGOIENDARROK DIOGUNA



2015-02-06
EGUBAKOITZA
627. ZENBAKIA
14. URTEA
DOAKOA
GOIENA.EUS
TOKIKOM

"Fanatiko hutsak gara, izugarri gustatzen zaigu ziklismoa"



Velasco eta Irizar. | XABIER URZELAI

Markel Irizar eta Ivan Velasco | Txirrindulariak | 26

Joxe Arriaran: agur eta ohore Arrasateko txapeldunari | 28



Ain_1 musika taldeak agur kontzertua egingo du gaur | 31



Zea Mays taldeak Oñatiko joko du gaur, 23:00etan | 30



Eskoriatzako gazte batzuk bolatokian.

Bolatokia gazteendako

Eskoriatzako Udalak 18.000 euro gorde ditu, aurrekontutik, bolalekua berregituratzeko | 20

JAGOBA DOMINGO

Euri-jasei buelta eman berri, elurrarekin larri

Joan den asteburuaz geroztik, eguraldia izaten dabil protagonista nagusi | 2



Arrasateko Udala auzoa, atzo. | IMANOL BELOKI

Gidabaimena euskaraz ateratzea saritu egingo dute

Arrasateko Udalak lagunduko du bide hori lantzen | 11

Jaurlaritzak ezezkoa eman dio Gatzagako eskola txikiaren proiektuari

Zenbait zerbitzu abiarazteko aukera lantzen dabilta | 25

"Lau urteko graduko formazioarekin jarraitzea da borondatea"

Jon Altuna | Mondragon Unibertsitatea | 4



SINADURAK

- 5 | Arnastu eta relax | 5 ANDONI GOMEZ
- 5 | Ni ere Hassana Aaliarekin | MIREN ARREGI
- Noiz utzi genion hitz egiteari? | 9 ITSASO ERRETOLATZA
- 15 | Nire (beste) biak | MARINA ETXEGOIAN
- Harrapatuko gaitu | 19 MIREN MAIZTEGI
- 22 | Santa Ageda batzen | JULIEN ABASOLO
- Barbie eta munstroak | 40 IDOIA ETXEBERRIA



ASTE HONETAN 'PUNTUA'-N:

Askotariko familia erretratuak

Elkarrizketa Felipe Uriarte mendizaleari

JASO 'PUNTUA' ETXEAN: 943 25 05 05

Urak igo eta jaitsi ostean, elurra goitik behera

Joan den asteburua ezker, eguraldiak eragin ditu zeresanik eta buruhausterik handienak

UBANE MADERA | DEBAGOIENA

Errepideak itxita, eskola batzuk ere bai, telefono zerbitzuak eten da edo eskas, telebista ikusi ezinda, argindarra joan-etorrian... horiexek izan dira egunotan denboraleak ekarri dituen *lagunak*, debagoiendar ugariri buruhaustere nabarmenak eragin dizkienak.

Amore emango du

Eta orain hotza dator. Edo hementxe segituko du. Horixe dio Euskalmetek, euskal meteorologia agentziak. Bai, behintzat, gaurko (egubakoitza) egunari begira: Arrasaten, esaterako, zero azpitik bi gradu izango direla minimoak; maximoak, berriz, bi gradura bakarrik ailegatuko direla. Eta elur prezipitazioak jarraituko duela. "Arratsaldean baliteke elur-kota 100 metrora igoztea",

diote eguraldi adituek. Hala, zapatuan emango du amore –pixka bat– denboraleak; izan ere, orduantxe aldatuko da EAeko maparen laranja kolorea –abisu laranja– eta hori bilakatuko da.

Kalteak konponduta

Bien bitartean, sikiera, joan den asteburuko euri-jasek eragindako kalteak bere onera etorri dira apurka-apurka. Osintxu izan zen, esaterako, sare sozialetako bideo-rik ikusgarriena eman zuena, eta, Jon Olivares auzo alkateak esandakoaren arabera, erreka ondoko garajeetara ura sartu zen, baina hori "urtero pasatzen den zerbait da"; ez zuten aparteko kalterik izan. Eskoriatzako Gellao auzoan, berriz, astelehenean oraindik ere auzoan izandako lur-jausia konpontzen zebiltzan.



Bergarako Bolu auzoan, autoa errepidetik aterata. | ARGAZKIAK: WHATSAPP-EZ JASOTA



Aramaio, Etxaguenerako bidea.



Urbian kandelak.



Aretxabaletan, umeak elurretan aingeruak marrazten.



Elgetan, kate beharrean.



Udala, atzo.

DATUAK

50

ZENTIMETRO

Batez beste, 50 bat zentimetro elur pilatu zen atzo, eguena, Arantzazun. "Metro pasako pilaketak ere badira zenbait lekutan", esan zuten Santutegitik.

3

ERORIKO

Zorionez, Debagoieneko Ospitalean ez zuten aparteko "lanik" izan eguraldiarengatik. Hiru eroriko da atzoko datua, bata hausturarekin.

19.387

BISITARI

Goienaren Interneteko atari *Goiena.eus*-ek 19.387 bisitari izan zituen herenegun eta atzo, elur denboralea hastearrekin batera.

46.565

BISITARI

Goiena.eus-ek 46.565 bisitari izan zituen asteburuan, euriteekin batera. Atariko marka gaintu zen zapatuan: 20.620, zapatuan.

9.000

BISITARI

Osintxuko parroko Karlos Ostolazaren bideoak bisitak izaten segitu du joan den asteburua ezker: 9.000 bisitari pasa (atzoko datua da hori, eguena).

KARLOS OSTOLATZA | OSINTXUKO PARROKOA

"Aurreneko aldiz deitu dit gotzainak"

"Goztainak ere hartu zuen informazioa, ikusi zuen bideoa eta animatzeko deitu zidan. Gertatu da eta kito, Jainkoari eskertu eta aurrera. Gelditu nintzen... Aurreneko aldiz deitu zidan. Bere telefonoa badaukat, behar dudanerako..... baina ez dut behar izan, eta hark deitu zidan. Hitzik gabe gelditu nintzen. Eskertu egin nion eta aurrera.

Autoa nik eraman nuen garajera. Arrankatu eta motorra oso ondo dago, baina elektronikako piezak ikusi



GOIENA

beharra dago. Garajeen ere harritura geratu ziren. Esan nien: 'Uste dut ikaragarritzko hanka-sartzea izan dudala. Ikusi dut argi bat, gorria, eta iruditu zait ura sartuta dagoela motorrera. Baina arrankatu eta argi gorriarekin etorri naiz'. Eta esan zidaten: 'Ez, ez, hori ez da. Beste aparailu batzuen seinalea da. Baina ura sartu izan balitz motorrean, ez zuen arrankatuko'.

Eta horixe: mundu honetan lehenengo bizi izatea dela. *Primus vivere*".

OMEGA
Urban
Service

24h



945 290 308

www.igogailuak.com

debagoiena@omegaurban.com

Birgaitzeak
Modernizazioak
Ordezkapenak
Zero Kotarako Jaitsierak
Igogailuen
Mantentze-lanak

"Zain egon barik" Euskal Bideari ekiteko "orain da garaia", EH Bilduren ustez

Proposamenaren lehen fasea zabaldu dute oraingoz, planteamendu eta eztabaida tartea, hain justu ere

JON BEREZIBAR | DEBAGOIENA

Euskal Bidea proposamena jarri du EH Bilduk mahai gainean; hausnarketa eta eskari sorta bat Euskal Herriak prozesu eraikitzaile bati ekin eta eragile politikoak, zibilak eta gizarte eskutik hartuta, erabakitze eskubidea zutari duen prozesu eraldatzaile bati heltzeko. Eztabaida sustatu eta lanean has-teko dei bezala planteatzen duten dokumentua gizarteratzeko lanean hasiko dira hilabeteotan. Eta asteon aurkeztu dute Debagoiengan *Ehun mila kafe* ekimena, eztabaida eta hausnarketa helburu dituena; hala irudikatzen baitute eztabaida prozesua, "ekarpenei irekia".

Bidea hasi egin gura dute eta, lehenengo eta behin, azaltzen dutenez, prozesu guztiz zabaldu aurkeztu dute, "euskal herritar guztiei irekia", baina "Euskal Herriari hasi eta Euskal Herriari bukatuko den prozesua". "Erabakitze eskubideari errespetua da baldintza bakarra", zehazten dute ordezkariak. Hain zuzen, *errespetu* berba darabilte, eta ez *aitortu* edo *onar-tu*, jakin badakite eta "urteak eta urteak" direla errespetua eskatzen dela eta frogatu dela "ez estatu espainiarrean ezta frantziarrean ere, ez dagoela borondate hori". Horrenbestez, alde bakoari ekin-tza bezala ikusten dute koalizio kideek prozesu eraikitzaile hori.

Euskaldunen artean lehenik

"Lehenengo erabaki behar da ea euskaldunok Euskal Bidea egin nahi dugun, bai edo ez", dio Redondok, Debagoieneko EH Bilduren koordinatzaileetako batek; eta irmoki erantzuten du baietz, "EH Bildutik zalantzarik gabe, bai". Beste alderdi politiko eta eragile asko ere bide hori egiteko prest leudekeela uste dute. Era berean, konbentzimendu hori esparru eta maila guztietan ezinbesteko ikusten du EH Bilduk. Prozesu luze



Xabier Vallina, Ibai Redondo eta Maider Otamendi, Goienako kazetariarekin. | GOIENA

eta zabala izanik, "gaur egungo errealitateki abiatuta" egin gura dute. Hala, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako biztanleek bertatik abiatuko lukete prozesua, batetik, Gernikako estatutuak zedarrizten duen markoa gainditu eta erabakitze eskubidea aintzatetsiko lukeen estatus berri baterantz jota. Argi dio Ibai Redondok: "Erabakitze eskubide hori ez zaio estatuari eskatzen, eskubide hori gure egiten dugu, eta hemen bertan onartzen ditugun legeak aplikatuko lirarteke, politika fiskaletik hasi eta hezkuntza legeetaraino, esate baterako". Antzerako garapena planteatuko lukete, lurralde bakoitzaren bere martxan eta garapenarekin, Nafarroan eta Lapurdi, Zuberoa eta Behe Nafarroan.

Ezin atzeratu

Nahita ez, hauteskontzientzia lehen baldintzatzaileetako bat da. Alabaina, kolazioko kideek argi utzi gura dute hauteskunde agendatik harago doan eta luzera begirakoa den proposamena dela, eta atzerapenik ere ezin daitekeela egon. "Garaia iritsi da eta hauteskundeak beti dira", dio Maider Otamendi koordinatzaileak: "Euskal Herri, Espainia eta Europa

mailan aldaketak daude gertatzen; ezin da olatua pasatzen utzi eta zain egon". Halere, aukera zehaztutara etorrita, Gipuzkoako Batzar Nagusietan eta erabakitze eskubideari dagokionez, jeltzaleekin akordio bat irisgarri ikusten dute, eta alderdi ez abertzale baina ezker-tiarretara jota, Podemos-en balizko etorreran ere zertan bat etorri ere badaukatela, arlo sozialean adibidez; "baina haiek ere benetako posizioak argitzeko" daukate la ohartarazita. "Aliantza elektoralen erdigunean erabakitze eskubidea kokatu beharra" dagoela azpimarratzen dute, bai Euskal Herriaren independentziari buruz eta baita gai sozialen inguruan ere. Hala, borobilduz, "erabakiak hartzeko unea iritsi da", arlo guztietan, EH Bilduren ustez.

Horrekin batera, bestelako bermerik ere ikusten diote Euskal Bideari. Izan ere, estatu egiturak sortzeari Euskal Herriari aspalditik ekin zitzaioela diote, horren eredu lirartekeelarik euskal hezkuntzarako sortutako ikastolak ala euskararen biziraupenerako euskalgintzak ehundutako sare zabala. Horietan giltzarri, gizarte zibila izanik, prozesu eraikitzailean ere berdin ikusten dute EH Bildun.

"Elkartasuna adierazteagatik harro" daude Kukutzan zirenak

IRATI GOITIA | ARRASATE

Joan den astean, eguaztenetik egubakoitzera, Kukutza hustu zuten unean han zeuden 23 gazteren aurkako epaiketa egin zuten Bilbon. Tartean zeuden Arrasateko AGAKOko lau kide (Arrasateko Gazte Alternati-boen Kofradia Organizatua).

Hiru eguneko epaiketa

2011ko irailaren 21ean hustu zuen Ertzaintzak Kukutza III gaztetxea. Lehen solairuan hogeit lagun zeuden eta teilatuan 23. Azken horien artean zeuden arrasatearrak. Bada, 23 gazteok epaitu dituzte, usurpazio delitua leporatuta. Bakoitzari 960 euroko isuna eskatu diote. Eta haietako batentzat hiru urte eta egun bateko espetxe zigorra, agintearen kontrako atentatua leporatuta.

Epaiketaren lehen egunean 23 gazteek deklaratu zuten. Esan zuten, besteak beste, ez zutela eraikina husteko agindurik jaso eta une hartan Bilboko Udalarekin negoziatzen zebiltzala. Eta gaineratu, ertzainak heldu eta pilotak botatzen hasi zirela. Bestalde, argi utzi nahi izan zuten "elkartasuna adieraztea" zela euren helburua. Ildo horretatik mintzatu zen Arrasateko akusatuetako bat, hain zuzen: "Harro gaude gure elkartasuna adierazteagatik". Agakoko lau kideek gaineratu dute utzaraz-

tearen aurretik, bizikleta mar-txan egin zutela eta Kukutza ezagutzeko aukera izan zutela: "Eraikina husteko arriskuan zegoela jakin genuenean, dudarik gabe erabaki genuen elkartasuna adieraztea, sinbolikoki gaua bertan igaroz".

Bigarren egunean deklaratu zuten Cabisa enpresako bozeramaileak, bost ertzainek, Erre-kaldeko bi auzotarrek eta Bil-boko Udaleko zinegotzi batek. Cabisako ordezkariak adierazi zuen gazteak saiatu zirela eurekin harremanetan jartzen, baina eurek ez zutela interesik. Ertzainek, bestalde, Kukutza barrura pilota bakarra bota zutela adierazi zuten eta eraikin barrura sartu zirenean "gauzak etengabe" bota zizkietela. Erre-kaldeko auzo elkarteko ordezkariak Kukutza auzoaren "arima" zela esan zuten.

Azken egunean, fiskalak bere akusazioa defendatu zuen, eta hasieran eskatutako zigorre eutsi. Gazteen abokatuak absoluzioa eskatu zuen.

"Ordu luze eta astunak pasa ditugu, baina egun horiei aurre egiteko gogoz geunden, ez baitugu ezer ezkutatzeke", adierazi dute arrasatearrek. Eta gaineratu: "Esperientzia honetatik onena izan da ezagutu ditugun asanblada kideak". Orain, epailearen erabakiaren zain daude.

LOMCE legearen gaineko hitzaldia, jeltzaleen eskutik

Aretxabaletako EAJ-PNV alderdiak antolatuta, LOMCE legea aztergai izango dute Aretxabaletako batzokian datorren otsailaren 12an, eguna. 19:00etan da hitzordua, eta gaiarekiko interesa daukaten guztiak daude gonbidatuta.

Arantza Aurrekoetxea gonbidatu dute Aretxabale-tara LOMCEren gainean jarduteko. Eusko Jaur-laritzako Hezkuntza, Hizkuntza Poli-tika eta Kultura sailburuordea da Arantza Aurrekoetxea, hain justu ere.

Eskoriatzako TESako beharginak, kezkatuta eta protestan

TESA enpresak Eskoriatzan duen lantegiko 80 beharginen protestan dihardute, euren etorkizunarengatik duten keza dela-eta. ELA sindikatutik jakinarazitakoaren arabera, bertako enpresa batzordeak "sarri" eskatu dio zuzendaritzari bideragarritasun plan bat aurkezteko. Baina, aldiz, zuzendaritzak erantzun die "ahalegin guztiak" egiten dihardutela, ez dutela enpresaren etorkizuna arriskuan ikusten, eta, horrenbestez, ez dutela bideragarritasun planik aurkeztuko.

ELGETA AZTERGAI

GOIENA TELEBISTA | HARIRA | OXEL EROSTARBE ALKATEAREKIN
OTSAILAREN 10EAN, 22:00ETAN | ENEKO AZKARATEK AURKEZTUA



Gora egin du langabeziak urtarrilean

lazko urtarrileko langabezia tasaren antzerako datua utzi du Debagoiengan aurtengoak

GOIATZ ARANA | DEBAGOIENA

Urteko lehen hilabetean langabe kopuruak gora egin du Debagoiengan: urtarril bukaeran 3.748 pertsona zeuden lan barik, abenduan baino 50 gehiago; edo, bestela esanda, hilabetean, langabezia tasa %12,41 izatetik %12,57 izatera pasatu da.

Goranzko joera hori izan da Bergaran, Eskoriatzan eta Leintz Gatzagan; aldiz, langabe kopuruak behera egin du Antzuolan, Arrasaten, Elgetan eta Oñatin; eta Aretxabaletan mantendu egin da.

lazkoaren antzera

Konparaketa iazko urtarrileko datuekin eginez gero, aldea ez da hain handia: Debagoiengan 3.737 langabe zeuden 2014ko urtarrilean, aurtengo hilabete berean baino hamaika gutxiago.

HERRIRIK HERRI

HERRIA	LANGABEA	EHUNEKOA
Antzuola	89	%8,16
Aretxabaleta	350	%10,35
Arrasate	1.620	%15,64
Bergara	902	%12,86
Elgeta	57	%10,52
Eskoriatza	264	%12,96
Leintz Gatzaga	11	%8,15
Oñati	455	%8,67
GUZTIRA	3.748	%12,57

ITURRIA: ESPANIAR ENPLEGU ZERBITZU PUBLIKOA

Eta Hego Euskal Herriari dagokionez, bi hilabetean jaitsi ondoren, urtarrilean gora egin du atzera ere langabeziak.

Abian daude Debagoieneko mintzapraktika taldeak

Urria ezker 200 lagunetik gora elkartzen dira astero eskualdeko bost udalerritan

KOMUNITATEA GOIENA | ARIZMENDI IKASTOLA | DEBAGOIENA

Mintzapraktika programek egunerokotasunean euskaraz mintzatzeko aukerarik ez dutenei edo, ohituraz, gaztelerazko harremanak egin dituztenei euskarazko harreman berriak sortzeko aukerak ematen dizkiete. Alde batetik, praktikatu nahi dutenak daude, eta, bestetik, borondatez euren denbora eskaintzen duten herritarrek, euskara natural berba egiten dutenak. Asteazko ordu batean elkarrekin eta euskaraz hitz egitean datza taldeen dinamika. Azken datu batzuk ere eman nahi dizkizuegu: urrian hasi ziren taldeak biltzen eta dagoeneko 200 lagunetik gora elkartzen gara astero Bergaran, Arrasaten, Oñatin, Aretxabaletan eta Eskoriatzan.

Harreman berriak

Mintzapraktika programari esker harreman berriak egin ditzakezu: mintzataldean edo aste bukatetako ekintza bateratuetan parte hartuz. Horretarako, berdin da mintzapraktikako parte-hartzailea ez bazara ere, zapa-tuetako irteera kultural haue-tara etor zaitezke. Informazio gehiago euskara elkarteetan eska dezakezu.

Bestalde, egunerokotasunean euskaraz bizitzeko erronka txiki-kiren bat gainditzen lagun diezazuke. Horren adierazgarri da

Elena Gualek bere mintzataldeko euskaldun jatorrari igorritako mezuan azaltzen duena: "Oraintxe bertan jakin dut euskarazko azterketaren emaitza eta gainditu dut ahozkoa! Bene-benetan mila esker zure laguntzagatik, etxeko lanak jartzeagatik eta zuzentzeagatik! Egia esanda, oso zaila ikusten nuen azterketa gainditzea, eta lan pittin bat eginda emaitza onak jaso ditut. Arrasaten, Zaharber-rin, mintzataldera apuntatu nintzenetik, etxean ere euskara gehiago erabiltzen dugu. Ni ere gaitasun eta ilusio handiagorekin ikusten naiz! Ba, esandakoa, mila esker eta aurten ere horrela jarrai dezagula!"

Halakoak behin eta berriz errepikatzen dira, herririk herri, lagun taldeetan. Oraindik ere egitasmoan parte hartzeko aukera dago; beraz, partaide izan nahi duenak edo informazio gehiago nahi duenak antolatzaile garen erakunde hauetakoren batera jo dezake: Arrasaten, AED elkarte (943-77 12 28); Bergaran, Jardun elkarte (943-76 36 61 / 605 71 24 69); Oñatin, Udala (943-78 04 11); Aretxabaletan, Loramendi elkarte (943-77 09 70); eta Eskoriatzan, kultura etxea (661 74 63 76).

Beraz, astean ordu batez giro atseginean eta jendea ezagutzeko euskaraz hitz egin nahi baduzu... animatu eta gerturatu guregan!

Jon Altuna | Mondragon Unibertsitateko errektoreorde akademikoa

"Borondatea da lau urteko graduarekin jarraitzea"

'Wert dekretua'-k ez die eragingo une honetan Mondragon Unibertsitatean ikasten dabiltzan ikasleei, lau urtean amaituko dutelako

UBANE MADERA | DEBAGOIENA

Unibertsitateari eragiten dien flexibilizazio dekretua onartu zuen joan den egubakoitzean Espainiako Ministroen Batzordeak. Haren arabera, unibertsitate bakoitzak aukera izango du erabakitze bere eskaintza akademikoa, graduari dagokiena, hiru urtekoa edo lau urtekoa izango den; eta horren arabera, graduen osteko masterrak bi urtekoak edo urtebetekoak izango diren. Bada, dekretua onartuta, aurten sartuko da indarrean. Debagoiengan dagoen Mondragon Unibertsitateari ere eragiten dio dekretuak. Edozein modutan, euren esku dago azken erabakia.

Aplikatu duzue?

Mondragon Unibertsitatea 2008a ezker 4 urteko iraupena duten graduak eta urte bateko edo biko iraupena duten unibertsitate masterrak eskaintzen dabil. Lau urteko graduak eskaintzen duten formazioa osatua da eta aukera egokia eskaintzen dute titulu bakoitzari dagozkion formazio teoriko, praktikoa eta nazioarteko esperientzia barneratzeko. Hori dela eta, Mondragon Unibertsitatearen borondatea da lau urtetako gradu formazioarekin jarraitzea, eta, unibertsitate sistema osoarekin batera –ikasleekin, irakasleekin, enpresekin eta erakundeekin, administrazio publikoekin eta beste gizarte eragileekin– unibertsitate ikasketen egitura egokiena aztertu eta hura gauzatzearen ondorioak ebaluatzea.

Zergatik?

Oraindik garaiz bada ere gaur egungo lau urteko graduen emaitzak aztertze, balorazio ona egiten dugu lehenengo titulatu laneratzeko, asebetezaren eta jasotako prestakuntzaren inguruan. 2008an lehen unibertsitatea izan ginen graduak eskaintzen eta iazko ikasturtean lortu genuen Ministerioaren aldetik lehenengo bi graduen akreditazioaren berriztapena: Elektronika eta Mekanikako Ingeniaritza graduena, hain zuzen ere. Akreditazioaren berriztapenak graduaren sei urteko ziklo baten balorazioa egiten du, eta emaitzak oso onak izan dira.

Zertan eragingo die MUKo ikasleei?

Une honetan Mondragon Unibertsitatean ikasten dauden ikasleei ez die eragingo, haien ikasketak hasi zituzten lau urteko graduarekin amaituko dutelako.

Gerta liteke batera irtetea lan merkatura lau urteko ikasketak dituzten eta hiru urteko ikasketak dituzten ikasleak?

Ikusteko dago oraindik nola gauzatuko den errege-dekretu hori.



Jon Altuna, errektoreorde akademikoa | MONDRAGON UNIBERTSITATEA

Agian, posible da unibertsitate batzuek hemendik aurrera diseinatuko dituzten titulu berriak hiru urteko graduak izatea. Gaur egun abian dauden lau urteko graduak birmoldatzea gauza konplexuagoa da eta unibertsitate sistema osatzen dugun eragileen artean egin beharreko ebaluazio baten ondorio izan beharko du. Praktikan, hemendik aurrera gerta daiteke diziplina jakin batzuetan graduak lau urtekoak izatea eta beste batzuetan hiru urtekoak izatea. Gaur egun antzerako egoerak ere badaude, Medikuntza ikasketetan kasu, non Medikuntzako gradua bost urtekoa den.

Hala, bada, zein da egin beharreko irakurketa: berdin dela karrera bat lau urtean egitea edo hiru urtean egitea?

Ez da berdin karrera bat hiru urtetan edo lautan egitea. Hiru

"2008an lehen unibertsitatea izan ginen graduak eskaintzen"

"Behar bezalako hausnarketarik egin eza da dekretuaren arazoetako bat"

urtetan lortutako kompetentziak ez dira lau urtetan lortzen dituzunaren berdinak.

Erreal eta eraginkorra da Wertek dekretua?

Wert ministroaren dekretuaren arazo nagusia iritsi den momentua eta behar bezalako hausnarketarik egin eza da. Izan ere, dekretu hori, bere garaian, Boloniako prozesuaren hasieran planteatu izan balitz, eta unibertsitateek titulazio bakoitzarentzat egitura egokiena zein izango litzatekeen eztabaidatzeko aukera izan balute, ez zukeen sortuko gaur sortzen ari den zalaparta. Enpresak eta erakundeak gaur egungo lau urteko graduetara egokitzen hasi direnean, ez dugu uste une egokia denik sakoneko hausnarketa behar duen aldaketa bat planteatzeko. Gure planteamendua honako hau da: itxaron dezagun, osa dezagun lau urteko egiturarekin ziklo bat, ebalua dezagun ikasleekin eta enpresekin eta erakundeekin bertan jasotako prestakuntza, eta gero erabaki egituren aldatetarik egon litekeen.

Besterik gura baduzu gaineratu...

Bada, bukatzeko, zera esan nahiko nuke: Mondragon Unibertsitateak bat egiten duela, Espainiako Unibertsitateetako Errektore Konferentziak otsailaren 2an adostu duen moduan, 2017/2018 ikasturtea baino lehen egitura berrira egokituko litzatekeen gradurik ez eskaintzeko erabakiarekin.

GUTUNAK

Euskal presoiei dagozkien eskubideak errespetatu dakizkien aldarrikatzen jarraituko dugu

Inazio Azkarragarizar

(Arrasateko Udal Gobernuaren izenean)
Arrasate

"Euskal presoak Euskal Herrira". Gehiengo sozial anitz eta zabalak egiten du bere aldarrikapen hori. Urteetan zehar, hainbat modutan plazaratu du aldarrikapen hori euskal jendarteak: kartelen eta pankarten bidez, adierazpen instituzionalen bidez, baita mobilizazio erraldoien bidez; urtarrilean Bilbon berriro errepikatu zena adibide.

Gure herrietan ere, gehiengo zabal batek egiten du bat euskal presoek Euskal Herriratzearekin, baita dagozkien eskubideen errespetuaren exijentziarekin. Gure herriko udalbatzak ere horrela adierazi izan du eta horregatik egon da aldarrikapen hori presente gure udaletzeko fatxadan.

1996ko martxoan osoko bilkuran hartutako erabakiari jarraituz jarri zen udaletzeko

balkoian espetxe legea betez euskal presoek Euskal Herriratzea eskatzen zuen adierazlea. Udalak demokratikoki hartutako erabakia izan zen.

Euskal presoak Euskal Herrira dion banderola kentzeko agindua eman zuen, ordea, Donostiako Administrazioarekiko Auzitegiak, Espainiako Gobernuaren ordezkari Urquijoren eskaerari men eginez.

Eta Arrasatekoa ez da kasu bakarra: Alegiako, Astigarragako eta Oizungo udaletxeetatik kentzeko agindua ere eman zuen 2013an.

Honen aurrean, honako hau adierazi nahi dugu gaurkoan:

Ez dugu bat egiten auzitegiaren erabakiarekin. Euskal presoek eskubideak aldarrikatzean, gaur egun indarrean dagoen legedia betetzea besterik ez dugu eskatzen. Udalak demokratikoki onartutako erabakia izanik, preso dauden pertsonen eskubideak aldarrikatzen direla kontuan hartuta eta indarrean dagoen legedia betetzea eskatzea ez dugu inondik inora ere "neutraltasun politikoaren" urraketa gisa ulertzen.

Urquijoren jarduna ere salatu nahi dugu. Gobernuaren ordezkari gisa duen karguaz baliatzen ari da ez dagokion eremuan sartzeko, instituzioen autonomia zapaltzeko eta ukazioaren eta

immobilismoaren aldarrikapena egiteko. Mehatxuetatik eta presoek eskubideen mespretxutik konponbidearen aldeko jarrerak bultzatzera pasatzeko eskatzen diogu.

Azkenik, euskal presoiei dagozkien eskubideen errespetuaren aldarrikapenari eusteko gure borondate politiko irmoa adierazi nahi dugu.

Gure herrietako herritarren gehiengo zabalaren aldarrikapena gure egiten dugu eta aldarrikapen horiekiko gure konpromisoa mantenduko dugu.

Ferrovial, bailara monopolizatzen

Marije Zubizarreta eta Iker Arregi

(Landu Lorezaintza Zerbitzuak)
Eskoriatza

Urteetan, Landu izan da Eskoriatzako berdeguneak zaindu dituen enpresa lokal txikia. Tamalez, urtarrileko osoko bilkuran, Eskoriatzako berdeguneen mantentze-zerbitzua Ferrovia-Cespari esleitzea erabaki zen. Ondorioz, gure lanpostuak galtzeko bidean gaude.

"Berebizikoa da tokiko merkataritza bultzatzea", irakurri genuen GOIENAn abenduan, Udal Gobernu zinegotzi baten hitzetan; beraz, ezin dugu ulertu Udal

Gobernu ezkertiar batek herriko enpresa txiki bat alboratu eta Ferroviai, gure bailaratik guztiz kanpo errotuta dagoen enpresa erraldoiari, esleitzea lana. Honek ateratzen dituen etekinak herritik kanpora doaz, beraien Espainia mailako monopolioa handitu besterik ez da egiten, merkatu guztia bereganatuz.

Garapen lokala sustatzea omen du helburu Eskoriatzako Udalak. Hitzak hitz, hitzak ekintzekin demostratu behar dira.

Udalaren laguntzaz sortutako Landu enpresak bere etorkizuna zalantzan ikusten du. Osoko bilkuran alkateak esan zuen: "Aitortzen dugu Landu bere lana oso ondo bete duen Eskoriatzako enpresa dela. Inoiz ez dugu izan inongo kexarik. Pliegoetan eskatutakoa baino gehiago egin dute askotan...". Hau entzunda, nola ulertu hartu berri duten erabakia? Orain, enpresa sortu, bertan inbertitu eta hiru pertsonarentzat lana sortu dutenak dena galtzeko arriskuan gaude.

Sarri entzuten dugu krisi egoeratik irteteko enpresen sortzaileak bultzatu behar direla, baina udal hau ez da hori egiten ari.

Gobernuko Udalaren printzipio eta politikak jarraituz, tokiko enpresaren bati esleitu beharko litzaioke lan hau.

Udal Gobernu batek hobesten badu garapen lokala

bultzatzea, horren aldeko neurriak hartu beharko ditu. Langileen babeserako klausula sozialak sartu dituzue pliegoetan; zertarako klausula sozialak, lan bat 0 eurotan egingo dela onartzen bada? Izugarritzko kontraesana da hau: non daude langileen lan baldintzak 0 eurotan egingo den lan batean? Baina Udalak hori onartu du; Ferrovialek 0 euroren truke egin behar omen ditu konpost-guneen kudeaketa lanak.

Gure lana ondo egin bada, nola Ferrovia gu baino hobeto baloratu? Gu, gure bezero garrantzitsuenak, Eskoriatza, ondo zaintzeaz arduratu gara urte hauetan. Benetan uste duzue Ferrovialek Eskoriatzarekiko eta orain arte gurekin lan egin duten langileenganako begirune bera izango duela? Ferrovialeko ordezkariaren esanetan: "Ederto etortzen zaigu kontratu hau, *pakete* guztia guretzat" (kale garbiketa eta lorezaintza). Zer da Eskoriatza, orduan, Ferrovialeko?

Saiatu gara Udalari gure ikuspuntua helarazten, ulertzen dute, baina eskuak lotuta dituztela diote.

Beraien esku egon da erabakia; eskuak lotuta badituzte, ondo kudeatzen jakin ez duten egoera baten arduradun direlako besterik ez da.

Hitzak eta programa politikoak haizeak eramaten ditu, ekintzak eta erabakiak ez.

Karakterea, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). GOIENAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakararekin erantzun beharko dio.

Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa. Gutuna helarazteko bideak: Otarora Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate | gutunak@goiena.eus | Faxa: 943-25 05 00

Debagoieneko GREMIOAK

AROSZTEGIAK

AZKARATE AROSZTEGIA

BERGARA

- Ateak, leihoak, horma-armairuak, tarimak, parket flotatzaileak, sukaldeak.
- K-21

Telleria 19 B02-B03

Tel.: 943 76 47 19 / 610 88 40 20

blogak.goiena.net/azkarate

ERAIKUNTZAK

ARRASATE ERAIKUNTZAK SL

ARRASATE

Meatzerreka auzoa

Tel.: 943 77 12 26 / 659 67 17 59

e.arrasate@euskalnet.net

ITURGINTZA

EGIA ITURGINTZA

ARRASATE

Gipuzkoa etorbidea 39, behea

Tel.: 943 77 01 85

OYANGUREN ITURGINTZA

ESKORIATZA

- Iturgintza eta gasa
- Berogailuak eta petrolio-produktuak
- Klimatizazioa

Aranburuzabala 15

Tel.: 943 71 47 14 / 606 00 73 69

f.oyanguren@ctv.es

URKO MANTENIMIENTO SL

ARETXABALETA

- Instalazioen mantentze-lan guztiak
- Berokuntza eta gasa
- Aire girotua eta haizeztatzea

Basabe industrialdea B-3

Tel.: 943 77 19 88

Faxa: 943 79 59 97

LEIHOAK

ARGI-PLASTIK

ARRASATE

Zigarrola kalea 1, 8 pab

Tel.: 943 77 11 30

LOREZAINNTZA

MAKAI KOOP. ELKARTEA

ARETXABALETA

- Barruko zein kanpoko lorezaintza
- Ureztatze sistemak
- Lorentzi-euskarriak eta balkonerak

Basabe poligonoa D-2-1

Tel.: 943 79 78 45 / 616 96 57 98

Faxa: 943 79 78 45



PUNTUA ETXEAN ASTERO JASOTZEKO*:
943 25 05 05 edo ***kluba@goiena.eus***



goienakluba[“]
Euskara irabazle, denok irabazle!

HERRIAK

ESKORIATZA

'Negua osatuz' norbera osatzeko gogoeta ekitaldia

Martitzenean egingo dute, Osatuz elkarteak antolatuta

MIRARI ALTUBE | ESKORIATZA

Elurra, hotza, iluntasuna eta isiltasuna; negua bete-bete iritsi da astean. Eta neguaren kontzientzia hartzeko, horren gaineko gogoeta egiteko, *Negua osatuz* ekitaldia antolatu du Eskoriatzako Osatuz elkarteak. Martitzenean izango da, otsailak 10, 19:00etan, Ibarraundi museoan. Edonork parte har dezake eta ez dago izena aurrez eman beharrik; sarrera 5 euro da.

Ikus-entzunezkoa eta musika

Osatuz elkartearen buru Marijo Pagaldai eskoriatzarra da: "Osasuna du ardatz, batetik, eta osoa egitea, bestetik, geure buruarekin, beste batzuekin, herriarekin, naturarekin... norbera osatu", argitu du, eta gaineratu: "Sekula bukatzen ez den kontua da, gainera, uneoro martxan dagoen zerbait, prozesu bat; horregatik Osatuz izena".

Tai txi eskolak ematen ditu Pagaldaik, beste jarduera batzuen artean, eta iazko azarorako lehen gogoeta saioa antolatu zuen. Orduan udazkena izan zuten gai, eta poesiarekin lotu: "Benetan osatzeko buruarekin bakarrik ez, gorputz osoarekin onartu behar da; horregatik, garrantzitsua da hausnarketa eta kontzientzia hartzea, eta horretan asko laguntzen du arteak: poesiak, musikak, dantzak...", dio. 40 bat lagun elkartu ziren orduan, eta ekitaldi benetan polita izan zela dio Pagaldaik: "Hainbat eskoriatzar gonbidatu genituen eta euren poesiak elkarbanatu zituzten. Harrituta utzi gintuzten askok".

Oraingoan, negua da gogoe tarako gai, eta *Zer da negua niretako?* galderari erantzunez hainbat arlotan bizi gura dute: "Zein eragin duen nire osasunean, nire

psikologian, landuko dugu, eta negu hori zelan harmonizatu edo osatu". Eta gogoeta hori bideratuko dute hainbat elementu erabilita: batetik, ikus-entzunezkoa, irudiekin eta esaldiekin; eta bestetik, musika. "Isiltasuna eta musika tartekatuko ditugu, eta horretan lagunduko digu Javi Gil eskoriatzarrak, gitarra-jotzaile bikaina da hura".

Bi gune egokituko dituzte Ibarraundi museoan: alde batean egongo da esperientzien gunea, eta bestean, hausnarketa gunea; hor egongo dira ikus-entzunezkoa eta musika gogoeta errazteko. "Istorio bat da guztia, hari bat izango du, hasierarekin eta bukararekin, eta magia berezia sortuko da", dio Pagaldaik, eta jarraitu: "Asmoa da jendea adi egotea zentzumen guztiekin, eta hori erraztuko dute antolatutako ekin-tza guztiek".



Neguko paisaia, gogoeta egitera bultzatzen duena. | JUAN LUIS ELEIZARAN

Halako ekitaldiarekin, gainera, ezkutuan lan egiten duten herritarrak ezagutzeko aukera dagoela uste du Pagaldaik: "Izan ere, guztiok ditugu altxorak

gordeta. Batzuk poesian, beste batzuk musikan, pinturan... dira artistak eta askotan ez ditugu ezagutzen". Oraingoan, Javi Gil gitarrista deskubrituko dute.

JAVI GIL | GITARRA-JOTZAILEA

"Gitarra doinu goxoekin girotuko dut martitzeneko gogoeta, eta hiru kantu neuk konposatu ditut"

Javi Gil (Arrasate, 1977) Eskoriatzan bizi da azken hamar urteotan. Ofizioa ez, baina afizioa gitarra jotzea du, eta hari eskaintzen dizkio ahal duen eguneko ordu gehienak. Martitzenean *Negua osatuz* ekitaldian hartuko du parte, berak konposatutako hainbat abesti jota.

Musikaria zara. Ofizioa ez, baina afizioa bai.

Jendeak musikaria dio, baina hain da berba potoloa hori... Afizioa dut, baina ezin bizi hortik.

Denbora, baina, eskaintzen diozu...

Bai, ahal dudana guztia. Entzuten ez den gitarra erosi nuen, erresonantzia kaxarik ez duena, gauean jo ahal izateko. Izan ere, semea jaio zenetik ezin egin zaratarik etxean eta bizilagunak ere kezaka... Hortaz, isilean ibili behar. Entzuteko aurikularrak jartzen ditut eta gauean ibiltzen naiz lanean.

Eta konposatu ere egiten dituzu kantuak?

Batzuk bai. Martitzeneko gogoeta ekitaldian joko ditudan bost abestietatik hiru neurek dira.

Kanporako ere egiten dituzu lanak, ala?

Bai. Laukote flamenko batekin nabil lanean aspalditxoan; Galizian, Sorian, Zaragozan... ibili gara. Eta otsailean ekitaldi bi ditugu Euskal Herrian bertan; hilaren 18an, Gasteizko Printzipal antzokian joko dugu, Gasteizko bandak lagun eginda. Aranjuezko kontzertuaren bigarren zatia gertatzen gabiltza, eta zoratu beharrean nauka... Egingo dugula pentsatzen dut! Eta gero, 28an, Bilboko Campos Eliseos antzokian joko dugu. Bada, hirugarren aldiz egingo dugu han: lehenengo izan zen *Debla*; bigarrena, *Cenicienta*; eta hirugarren hau *A golpes de taberna*. Alicia Gallardo da laukoteko dantzari nagusia, Abadiñokoa.

"Laukote flamenko batekin joko dut Gasteizen otsailaren 18an"

Flamenkoa gustuko duzula ez dago zalantzarik.

Oso gustuko dut; serioen hartu dudana estiloa da, gainera.

Baina ez zara andaluziarra, ala?

Ama Kordobakoa dut eta aita Kadizkoa, nahiz eta Arrasaten jaio izan ni. Runbak eta estilo horretako kantuak entzun ditut etxean, baina



M.A.

ez pentsa, ez dira zale amorratuak; aitak, esaterako, ez du gustuko flamenkoa.

Laukote flamenkoaz gain, beste batzuekin ere badituzu lantxoak eginda.

Bai; Gasteizko talde batekin hiru disko atera nituen. Eta Arrasateko batekin ere bai, *El Bille*-rekin. Haren ordezkaria adiskidea dut eta laguntzeko eskatu zidan, eta halaxe. Arrasateko Andaluziako elkarteko Errozioko abesbatzarekin ere jo izan dut.

Saltsa askotan ibili zara eta era berean ezezaguna zara gehienondako; zelan da hori?

Gustuko dudana egiten dut eta horrekin nahikoa da niretako, ez daukat han eta hemen agertzeko beharrik.

Eta nolatan animatu zara neguaren gaineko gogotara?

Marijorekin herriko hainbat ekitaldian hartu dut parte, San Pedro jaietako ikuskizunetan. Lehena izan zen kanpoko kulturen gainekoa eta Andaluzia ordezkatzeko proposatu zidaten. Orduan hasi ginen elkarlanean, eta iaz jarraitu genuen. Buleria doinuekin konposatu nuen aureskua ekitaldirako, eta herritarrak harrituta geratu ziren.

Gogoeta honek, baina, ez dauka zerikusirik ikuskizun harekin?

Ez, baina laguntza eskatu dit eta zerbait egingo dugula erantzun diot, ahal dudana bitartean... Lau edo bost kantu joko ditut.

Gitarra doinuak bakarrik dira, kanturik ez, ezta?

Ez, ez, gitarrarekin doinu leunak eta goxoak izango dira, niri gustatzen zaizkidan modukoak. Arrasateko ikasle batek egingo dit lagun kanturen baten; izan ere, otsailaren 26an Paco de Luciarene heriotzaren urteurrena da eta omenalditxo egiteko *Entre dos aguas* abestia joko dugu.

Bestelakoan, bakarrik egongo naiz, eta, ez pentsa, beldur apur bat ematen dit. Izan ere, gainerako kontzertuetan beti izan dut atzean taldea babes, eta oraingoan bakar-bakarrik nago.

Entsegurik egin duzue?

Bai, astean hainbat lantxo egin ditugu eta domekan antolatzaile guztiok elkartuko gara. Musika jotzen neu bakarrik egongo naiz, baina beste batzuek ere hartuko dute parte une zehatzetan. Ekitaldi benetan polita izango da; hortaz, parte hartzera animatzen ditut herritarrak.

Meatzerreka saneatu eta errekuperatu gura dute

- ▶ Auzoak orain arte izan dituen kalteei erantzuteko hainbat lan egingo dira
- ▶ Otsailaren 21erako auzolana zehaztu du Udalak, aisialdi-gune bat sortzeko

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Meatzerreka auzoarekin "diskriminazio positiboz" jokatzeko erabaki du Udalak: "Horrenbeste urtetan auzo honi egindako kalteak zuzentzeko, eta horren eraginez Meatzerrekak duen egoera konpentsatzeko beharra agerikoa da". Ingurumen eta osasun ikuspegitik jasan dituen kalteei aurre egiteko apustu irmoa egin du Udalak: "Oraindik ukitu barik dagoena zaindu behar dugu, degradatuta dagoena berreskuratu, eta bitartekoak jarriko ditugu jardura desegokiak zuzenduz joateko". Auzoak izan dituen "tratu txar" horien adibidetzat jarri dituzte, besteak beste, hainbat harrobiren jarduketak, Akeiko zabortearen ondorioak eta hondakinen bilketarako kamioienak.

Akeiko zabortearen ardura Arrasateko eta Debagoieneko administrazioek dute egun. Udalaren arabera, hara zaborra eroan zuten beste herrietako Debabarrena, esaterako administrazioen inplikazioa ere "lotu" guran dabil



Pello Garai eta Josu Pereda udaletxean, atzoko agerraldian. | JAGOBA DOMINGO

Mankomunitatea, ardura ekonomikoak banatzeko.

Saneamendurik ez duen bakarra

Bestalde, saneamendurik ez duen Arrasateko auzo bakarra da, eta, horregatik, beste kolektore zati bat sartuko dute laster Ugaldeazpi baserriaren azpian. Gainera, Udalak asmoa du aurten proiektu bat esleitzeko, auzoko base-

rriendako eta etxebizitzendako saneamendu sistema bat sortzeko aukera egokiena zein den azter dadin. Lur antolamenduaren arloan dagokionez, Udalak neurri esanguratsu bat hartu du: Hiri Antolamenduaren Plan Orokor (HAPO) berriaren Udalak eremu horretako jardura ekonomikoak garatzeko lur azalera murriztu egin du nabarmen; ia 24.000 metro

koadro izan da murrizketa. Hala, bertan eraikitze ahalmena txikitzea ere proposatu dute HAPOaren hasierako agirian.

Ondarea berreskuratzen

Horrez gain, auzoaren ondare historiko eta kulturala ere berreskuratuko gura du Udalak: "Historia ezagutzen joan ahala, gero eta nabarmenagoa da auzo honek kulturalki duen balioa zein ahaztuta izan dugun. Sekulako ondarea dago meatzeen eta burdinaren erabileraren gainean. Arrasate herri bezala sortzera bultzatu zuten jarduerak izan ziren, hain justu". Errege-bidea berreskuratuko gura dute, hasteko; bide hori erabiltzeko moduan jartzeko obra zibila egin beharra dago eta Udalak ia 98.000 euro bideratuko ditu.

Era berean, Meatzarien Kofradia izandako San Baleixo base-lizaren inguruan lursail bat erosi du Udalak eta bertan "gune atsegin" bat egokitu gura dute, besteak beste, bertako landaredia berreskuratuz. Panel informatiboak ere jarriko dituzte.

Aisialdi-gune bat ere sortu gura dute, eta, horretarako, auzolanerako dei egin du Udalak otsailaren 21erako. Egun horretan historialari batek meatzarien gaineko azalpenak emango ditu eta Zuhaitz Eguna ere berreskuratuko dute, gaztainondoak, haritzak eta intxaurrek landatuta. Horrekin lotuta, hilero Seber Altube plazan egiten den base-rritarren azokan zuhaitz feria izango da protagonista.

NIRE USTEZ

ITSASO ERRETOLATZA



Noiz utzi genion hitz egiteari?

Autoen lengoia intermitenteena zela entzun nuen behin, errepideko komunikazio bide. Eta egia da! Horretan pentsatu izan dut sarritan: nola izan efektiboago, arinago, astiroago eta baketsuago errepide sarean. Zeren eta arauak, badauden arren, ahaztu egiten ditugu nonbait... isildu egiten gara.

Autoen elkarrizketak fluidoak diren heinean, trafikoa ere halakoxea da.

Aurrekoak abisatzen dizunean *—eskuinera jo behar dut—*, ezkerreko aldetik gaindituko duzu, inor etorri ezear, behintzat. Errotondan bada-torrenak norbera sartzeko gertu dagoela *—zure bidetik aterako naiz, trankil sartu zaitezke!*— esaten dizunean.

Edota zuk esaten diozunean aurretik datorrenari *—ezkerrera sartu gura nuke—* eta akasoa berak ilara bat daukanen aurrean, lehenago geratu eta pasatzen utziko dizu.

Eskua altxatuta eskerrak emateko gogo ezin gordeko duzu. Edota bide ertzean autoak botata utzi zaituenean, aberiako argien distirarekin laguntza eskaintzera geratzen denean... ez al digu bizitza atseginago egiten komunikatzeak?

Apika, norbaitek pilotuta egotea du gustuko hitz egitea ekiditearren. Denetik baitago.

Euskararekin gerta zitekeen moduan, erabili ezik galdu egiten den hizkuntza da autoen argitxoena.

Gizarte honen adierazlea ote da...

"Erabili ezik autoen argitxoaren hizkuntza ere galdu egiten da"

Etxaluze eta Musakola arteko bidegorria onartuta, hasiera baten

Bizikletaren Mahaiak adostutako irizpideen arabera idatzi du Bidein ingeniari-tza enpresak Etxaluze eta Musakola artean bidegorria egiteko proiektua. Urtarrilaren 26ko tokiko gobernu batzarrean onartu zuen Udalak eta jendaurrean jarriko da otsailaren 25era arte, herritarrek alegazioak aurkez ditzaten.

Herri programa lantzeko mintegi irekia bihar Kulturaten, EH Bilduk deituta

J.B. | ARRASATE

Arrasateko EH Bilduk mintegi irekia antolatu du biharko, otsailak 7. Koalizioak urtarrilaren 17an egin behar zuen herri programa lantzeko saioa bertan behera geratu zen, eta, atzerapenaren ostean, bihar izango da mintegi irekia, Kulturateko areto nagusian. 10:00etarako egin dute hitzordua, eta, azaldu dute-

nez, herri programa lantzeko arrasatearren ekarpenak jaso gura dituzte. 2014ko urriaren 25ean abiatutako parte-hartze prozesuaren bidez, Arrasaterako proiektua herritarren "askotariko ekarpenekin" definitu zuten. Bada, biharko mintegian proposamen horiek guztiak komunean jarri gura dituzte, "abertzale eta ezkertiar guztiak".



Mintegiaren berri emateko Kulturaten egindako agerraldia. | TXOMIN MADINA

Auzorik auzo hasiko gara ludoteka ibiltariarekin; otsaileko zapatu guztietan Musakolan egongo gara

Otsaileko zapatu guztietan irekiko dugu ludoteka Musakolan, 3 eta 12 urte arteko haurrendako eta euren guraso edo arduradunendako. Gazte txoko kanpoan elkartuko gara San Antolin ikastetxearen ondoan, 10:30etik 13:30era. Musakolakoak ez direnak ere gonbidatzen ditugu. Ekintzak denon artean adosten saiatuko gara. **KOMUNITATEA GOIENA | LUDOTEKAK** **TXATXILIPURDI | ARRASATE**

San Juan Bataiatzailearen irudia konponduta, argazkietan oinarrituta

A.T./J.B. | ARRASATE

Konpondu eta zaharberritu egin dute San Juan Bataiatzailearen irudia. Abuztu amaieran apurtuta agertu zenetik eta hilabeteko lanen ostean, asteon ekarri dute parrokiara. Irudiaren jatorrizko argazki batzuk gordeta zeuden eta horiei esker erreproduzitu ahal izan dituzte galdutako zatiak.

Mari Karmen Martin zaharberritzaile arrasatearrak egin ditu lanak: "Bildotsa iruditik atera zen eta hankak asko kaltetu ziren, belarrietako bat galdu egin zen, buztana ere bai... Batez ere, egin dudana izan da galdutako piezak berregin eta berreskuratuko ahal izan zirenak itsatsi". Polikromia ere pixka bat kalte-

tuta zegoen, eta kalte horiek ere konpondu ditu Martinek. Hila-beteko lana izan da eta 1.500 euroko kostua izan du. Martinek uste du XVIII. mende amaierakoa dela irudia.

San Sebastianen irudia ere bai

Bestetik, urte eta erdian zaharberritze lanetan eta elizako dorrean ezkutuan egon den San Sebastianen irudia ere erakutsi dute asteon: "Oskarizen kaperan jarriko dugu orain", adierazi du parroko Horazio Argaratek. Oso kaltetuta zegoen, Martinek argitu duenez: "Zaharberritze lanetan aurki ditzakegun ia arazo guztiak zituen, bai egitura mailan eta baita polikromian ere".



Argarate eta Martin, zaharberritu diren bi irudien aurrean. | AMAIA TXINTXURRETA



San Andres eta San Josepe kaleek bat egiten duten tokian eraikiko dute eustorma. | JOKIN BEREZIARTUA

San Joseperako bide osoan espaloia egingo dute

Udala Behekoa eta Makatzena auzoetan ere egingo dituzte hobekuntzak

M.A./M.T. | ARRASATE

San Josepe, Udala Behekoa eta Makatzena auzoetako egoera hobetzeko hainbat lan egingo ditu aurtur Udalak. Dena den, Inazio Azkarragaurizar alkateak azaldu du hobekuntzak zatika egingo dituztela: "Ezin dira lanak kolpe batez egin, baina ikusi dugu faseak ondo planifikatuta auzoetan hobekuntza nabarmenak egiteko gaitasuna dugula, eta horren emaitzak laster ikusiko dira".

San Josepe

San Josepen, oinezkoen eta ibilgailuen zirkulazioa eta irisgarritasuna hobetzea izango da lanen helburua. Horretarako, adibidez, auzoraino igotzeko espaloia eraikiko dute, oinezkoak auzora "modu seguruan" irits daitezela. Lanek bost fase izango dituzte, "auzota-

rrengan izan dezaketen eragina murrizteko", eta atzo ekin zioten lehen faseari.

Besteak beste, BM, Bittori eta Bastida biltzen dituen eraikinaren atzealdean hasiko dira espaloia eraikitzen. Handik San Josepera dauden eskailerak berri-tuko dituzte, eta eraikinaren atzean eustorma bat egingo dute. Horretarako, otsailaren 11tik aurrera San Andres kalea itxi egingo dute, segurtasunagatik, bai oinezkoentzat, baita autoentzat ere.

Bitartean, Araba etorbidea erabili beharko dute oinezkoek. San Joseperako zirkulazioa, ordea, ez da etengo; beharrezkoa denean txandaka emango dute pasoa. Lanok bi hilabete eta erdi iraungo dute, eta 362.000 euro inguruko aurrekontua dute.

Udala Behekoa

Otsail bukaeran hasi gura dute Udala Behekoa auzoko lanekin. Auzoa berrurbanizatzeko proiektuarekin jarraituz, argiteria publiko ezarriko dute, baserrietara joateko bidea zabaldu, asfaltatu eta plaza berri bat egingo dute. Hiru hilabete eta erdian amaitzea da asmoa eta 395.000 euro inguruko aurrekontua izango du proiektuak.

Makatzena

Udalak bere gain hartuko ditu auzoaren atzealdean dagoen bidea konpontzeko lanak. Hondarribia eta Makatzena auzoa lotuko dituen igogailuaren bideragarritasunerako kudeaketarekin ere jarraituko du. Lan horiek udazkenean hasi gura ditu Udalak eta 73.000 euro bideratuko ditu.

Santa Agedako elurteak ez ditu abeslariak kikildu

Santa Ageda abesbatzakoak eta Arrasate Herri Eskolako haurrak kantura irten ziren atzo

M.T. | ARRASATE

Elurra ez da oztopo izan Santa Ageda bezperan arrasatearrek herriko auzoetan barrena eskean jarduteko. Goikobaluko, Arrasate Musikaleko eta Txorbela Otxoteko 60 bat lagunek diru-batze solidarioa egin dute aurtur ere. Goizean goiz hasi eta auzorik auzo ibili ondoren, Musakolako elkartearen hamaketakoa egin zuten, hotzetik babestu eta indarrak hartzeko. Ondoren, herriko kaleak giro-tzeaz gain, 14:00etan eta 20:00etan

Herriko Plazan kantaldiak eskaini zituzten.

Gazteak ere, ezta ez sano

Arrasate Herri Eskolako umeez, berriz, aurreikusita zuten plangintza aldatu, eta inguruko kaleetara kantatzera atera ordez eskolako patioetan eutsi zioten tradizioari. Hain zuzen ere, aurreko asteetan entseguetan egindako lana erakutsi zieten gurasoei, eta, horrez gain, Santa Agedako abesbatzaren bisita ere jaso zuten.



Santa Ageda abesbatzakoak, Musakolako elkartearen. | MAIDER ARREGI



Bedoñabeko ikasleak, kanturako prest. | ARRASATEKO HERRI ESKOLA

ISA, Etxez etxeko ile-apaintzailea

17 urteko esperientzia duen ile-apaintzaileak etxetik etxera lan egingo du; manikuran, pedikuran, depilazioan eta makillajearen diplomaduna

605 72 51 38

Orraztu 11 €

Orraztu + Manikura + Aurpegiko depilazioa 20 €

Prezio ezin hobeak!

Kontsultatu konpromiso barik!

Gaur amaitzen da Jabetze Eskolan izena emateko epea

Besteak beste, zahartzaroaz, adimen emozionalaz eta feminismoaz jardungo dugu ikastaroetan

KOMUNITATEA GOIENA
EMAKUME TXOKOKA | ARRASATE

Gaur, egubakoitza, amaitzen da Emakume Txokoko eta Jabetze Eskolako ikastaro eta tailerretan izena emateko epea. Gure errealitateari ikuspegi feministatik begiratzeko, elkartzeko, eztabaidatzeko eta pertsonalki zein kolektibo modura indartzeko gunea izan nahi du, besteak beste, Jabetze Eskolak. Horregatik, maiatzera bitartean, asertibitatea, adimen emozionala, feminismoa, zahartzar ona eta halako gaiak

izango ditugu hizpide Jabetze Eskolak antolatutako ikastaroetan. Arrasaten erroldatutakoek ikastaroko 32 euro ordaindu beharko dituzte parte hartzeko eta erroldatu gabek, 37.

Tailerretan, berriz, autodefentsa feminista, erantzunkidetasuna eta ziberfeminismoa landuko ditugu. Tailer bakoitzean parte hartzeko, 17 euro ordaindu beharko dira eta langabeek, 15.

Horrez gain, guk ere hainbat ikastaro antolatu ditugu epe berean. Hamalauna saio izango

ditu bakoitzak. Astelehenetan, dantzaren eta sormenaren bidez geure gorputza ezagutzeko ikastaroa eta pilates eta yoga uztartzen dituen izango dira. Martitzene-tako ikastaroak krisiak eta doluak izango ditu ardatz, eta eguaztetenetan, berriz, geure burua zaintzen ikasiko dugu, masaje, luzaketa eta berreziketa posturalaren bidez. Arrasatearrek 47 euro ordaindu beharko dituzte ikastaro bakoitzeko; kanpokoek, 52; eta Arrasateko langabeek, 32.

Ikastaro eta tailer guztien ordutegi eta xehetasunak gure webgunean daude ikusgai.

Izen-ematea

Parte hartu nahi dutenek Emakume Txokora joan edo 943-79 41 39 telefono zenbakira deitu besterik ez dute. Animatu eta parte hartu!

Abaroa elkartearekin Suitzako Alpeetara joateko aukera dago

Abaroa erretiratu eta pentsiodunen elkarteak Suitzako Alpeetara bidaia antolatu du ekainaren 14tik 20ra. Sei eguneko bidaiaren prezioa 1.165 euro da; prezioan hauek sartzen dira: joan-etorriko hegaldiak, sei gaueko egonaldia mantenu osoan, irteerak eta gidaria. Interesa duten bazkideek otsailaren 16tik martxoaren 6ra arte izango dute izena emateko; bazkide ez direnek, otsailaren 23tik martxoaren 6ra. Denera, 43 laguntzako tokia dago.

Ziklon eta Zumba Day jaia antolatu dute zapaturako Musakolan

Spinninga eta zumba gustuko dituztenek aukera paregabea dute bihar. Izan ere, 09:45ean hasita, Ziklon jaia egingo dute Musakolako kiroldegian, eta 10:30etatik aurrera zumba jaia. Ordu eta erdiko *master class*-ak izango dira, bi irakaslerekin. Arrasateko jendea ez ezik, inguruko herrietakoa ere espero dute –aurretik eman behar zen izena–. Ziklon eta zumba jaiak azaroaren 8an hasi ziren Oñatik kiroldegian, eta hainbat herritatik pasatu ondoren egingo dute Arrasaten.



Joxe Etxeberria, Euskara Saileko zinegotzia, 400 euroko saria ematen Markel Perez. | IRATI GOITIA

Gero eta gehiagok ateratzen dute gidabaimena euskaraz

Aurten 63 izan dira; horietako batek azterketa teorikoa doan jaso du saritan

IRATI GOITIA | ARRASATE

Gidabaimena euskaraz ateratzeagatik, azterketa teorikoa doan. Hala da, bai, Udalak saritu egin nahi du gidabaimena euskaraz ateratzea. Hala, hori egin dutenen artean 400 euro zozketatu ditu; eta Markel Perezek jaso ditu, martitzenean, Euskara Saileko zinegotzi Joxe Etxeberriaren eskutik.

Materiala prestatu

2009an Debagoieneko Mankomunitateak eta bailarako euskara zerbitzuek elkarlanean martxan jarritako egitasmoa da *Gidabaimena euskaraz*. Helburua da euskarazko materiala eskuragarri jartzea eta herritarrak gidabaimena euskaraz ateratzera animatzea. "Gazte gehienek D eredu-

an ikasten dute. Konturatu ginen ez zuela zentzurik ikasketa guztiak D ereduaren egin ondoren 18 urterekin gidabaimena ateratzera joaten direnean material eta aukera guztiak gazteleraz egotea", esan du Aintzane Lasak, Euskara teknikariak. Bada, Mankomunitateak eta euskara zerbitzuek materiala prestatu zuten eta autoeskolen

esku jarri zituzten: eskuliburuak, testak, multimendia programa eta panel informatiboak.

Gero eta gehiagok

Egitasmoa martxan jarri zenetik gero eta gehiago dira gidabaimena euskaraz ateratzera animatzen direnak. Arrasaten, aurten, 63 pertsonak atera dute euskaraz. "Datuak oso-oso positiboak dira. Izugarriko zabalkundea izan du egitasmoak. 2009an lehenengo aldiz martxan jarri zenean, hamabost ikaslek atera zuten gidabaimena euskaraz. Urtez urte kopurua handituz joan da, 63ra arte iritsi arte", nabarmendu du Lasak. Bestalde, azpimarratu du gaur egun Arrasateko autoeskola guztietan atera daitekeela gidabaimena euskaraz: "Egitasmoa martxan jarri zenean bost autoeskolatik hiruk erabaki zuten parte hartzea. Gaur egun, guztietan atera daiteke euskaraz".

400 euroko saria

Bada, Udalak gidabaimena euskaraz ateratzen duten herritarrak saritu nahi ditu. Hala, zozketa egin dute horien artean. Azterketa teoriko bat zozketatu dute; hau da, 400 euro. Markel Perez gaztea izan da zorteduna. "Zorte handia izan dut. Ez nekien saria zegoenik euskaraz ateratzeagatik. Irabazi nuela esateko deitu zidatenean jakin nuen. Guretako, errazagoa da euskaraz egitea", adierazi du Perezek.

Udalak udaberrian egingo du berriro ere sustapen kanpaina.

ARRASATEKO UDAL HAUR ESKOLA

matrikula
epea zabalik

otsailaren 2tik 13ra

UMEZAINTZA

0-3 URTE

San Andres, 8

URIBARRI

JOKIN ZAITEGI 0-3 URTE

Uribarri etorbidea, z/g.

Instalazioak ikusi edo elkarrizketa egin nahi izanez gero,
aurrez telefonoz abisatu

943 77 20 25 www.arizmendi.eus



ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN

Arizmendi ikastolak kudeatutako Udal Zerbitzua

arizmendi
ikastola

Lidergoari eusten saiatuko da Kanpanzar ART bihar etxean, Bera-Beraren aurka

Arrasatearrak izugarrizko denboraldia ari dira egiten; orain arte norgehiagoka bakarra galdu dute

IRATI GOITIA | ARRASATE

Zapatuan 16:00etan jokatu du Kanpanzar ARTk Bera-Beraren aurka, Mojategin. Xabier Gardoki jokalaria dio ez dela lehia erraza izango: "Bera-Beraren hirugarren taldea da -Ohorezko Mailan eta Ohorezko B Mailan ere taldeak ditu-. Hala, oso jende gaztea dago; oso taktika onekoa, ordea. Oso azkarrak dira eta baloia mugitzen abilak. Izan ere, Ohorezko Mailan dabilen jendearekin entrenatzen dira. Beraz, ez da partidu erraza izango, baina, etxean jokatu, espero dut ez izatea irabazteko arazorik".

Helburua: mailaz igotzea

Arrasateko mutirik denboraldi bikaina egiten ari dira. Jokatu-tako hamalau partiduetatik hamahiru irabazi dituzte -azkena Elorrioren aurka 7-14-. "Garai-penak lortzeko borrokatu egin behar da. Hemen ez da ezer oparitzen", dio Gardokik.

Bolada ona ikusita, helburua da denboraldia lehen postuan amaitzea: "Helburu handiak ditugu. Datorren urteari begira, mailaz igoz gero, itxura ona eman nahiko genuke eta garaipen batzuk

lortu. Horretarako, gogor jarraitu beharko genuke". Gaineratu du horrelako bolada onek taldearen animoan izugarrizko eragina dutela eta horrek taldea indartzen duela: "Gauzak ondo doazenean, jendea oso pozik izaten da eta horrek eragina izaten du jokoan. Entrenamenduetara ere gogo handiagoarekin etortzen da jendea. Bestalde, gure arteko harremana ere izugarri ona da".

Denak irabazi behar

Duela bi jardunaldi ekin zioten bigarren itzuliari, eta Gardokik bi partidu gogor aurreikusten ditu. Bata, Arratiko ZKren aurkakoa: "Oso jende gogorra dute, eta zelai naturala. Urtsu eta pisutsu baldin badago... guri kostatu egingo zaigu gure jokoa egitea. Izan ere, zelai artifizialean ohituta gaude". Bestetik, latza izango da baita euren aurkari zuzenaren aurkakoa -Uribealde-. "Sailkapeneko lehen postua egongo da jokoan lehia horretan eta oso gogor jokatu beharko dugu. Ezingo dugu barkatu", dio Gardokik. Izan ere, Uribealde ere denboraldi paregabea egiten ari da. Ligako lehenengo partidua



Kanpanzar ARTk Arratiko ZKren aurka jokatu zuen partidua. | GOIENA

galdu zuen, baina gainerakoak irabazi. Arrasatearrak sailkapeneko lehen postuan doaz lortutako bonus puntuengatik -alde txikia dute-. Horrenbestez, zera dio jokalaria: "Lidergoari eutsi nahi baldin badiogu, helburuak

itzuli honetako lehia guztiak iraztea izan behar du. Eta Uribealdearen aurka etxean jokatu behar dugunerako, ahalik eta jende gehien ekarri behar dugu Mojategira, harmailak bete egin behar ditugu".

ZALDIBAR

EMAITZAK

Drink Team - Lasagabaster	1-9
Dribling 2.0 - Alytis FK 2.0	1-2
Arrasate taberna - Sonografos	1-5
Betrayer - Aldatz	6-4
Jibaros - Iluntz	1-0

SAILKAPENA

TALDEA	P	J
1. Dribling 2.0	25	10
2. Aldatz	24	10
3. Jibaros F.C.	21	10
4. Sonografos	18	10
5. Alytis FK 2.0	17	10
6. Lasagabaster	16	10
7. Abokajarro	15	9
8. Betrayer	14	10
9. Ostantz	13	9
10. Haizea's Weah	11	9
11. Kantzerlauten	8	9
12. Drink Team	5	10
13. Arrasate Taberna	4	10
14. Iluntz	0	10

PARTIDUAK

OTSAILAK 7, ZAPATUA

11:00 Betrayer - Jibaros F.C. / Drink Team

12:00 Drink Team - Sonografos / Jibaros F.C.

OTSAILAK 8, DOMEKA

09:45 Dribling 2.0 - Ostantz / Kantzerlauten

10:45 Kantzerlauten - Ostantz / Dribling 2.0

11:00 Kantzerlauten - Lasagabaster / Ostantz

12:00 Abokajarro - Haizea's Weah /

Lasagabaster

13:00 Arrasate taberna - Abokajarro / Haizea's

Weah

*Aurreko domekan bota zuen txingoraren ondorioz, jardunaldi bi partidu bertan behera geratu ziren. Domeka honetan jokatu dira. Ostantz eta Kantzerlauten taldeen arteko partidutik geratzen ziren 7/10 minutuak jokatu dira -emaitza 2-2 zen momentu hartan-. Beste lehia Abokajarro eta Haizea's Weah taldeen artekoa da. Alytis FK 2.0 eta Aldatz taldeen arteko partidua datat atzeratu da, Alytis FK 2.0 taldeak hala eskatuta.



Matrikulazio epea zabalik
haur hezkuntzan eta lehen hezkuntzan
otsailaren 2tik 13ra



arrasate
Herri Eskola



Guk bezala,
egin apustu, egin kiñu
Euskal Eskola
Publikoaren alde!



BEDOÑABE • Tel.: 943 79 20 69



MUSAKOLA • Tel.: 943 79 04 49



ERGUIN • Tel.: 943 79 77 74

Al-Andalusen oroimenean iraungo duen ospakizuna

Urtarrilaren 28an 25 urte bete genituela-eta, asteburu osoko festa egin dugu, giro bikainean

KOMUNITATEA GOIENA | SEBASTIAN LOZANO
AL-ANDALUS | ARRASATE

1990ean gutxi ziren zilarrezko ezteiak beteko genituela pentsatzen zutenak. Baina bai, Al-Andalus elkarteak 25 urte bete zituen urtarrilaren 28an.

Bada, urteurrena ospatzeko, ekintzaz beteriko asteburu antolatua genuen; nahiz eta asteazkenean bertan, urtarrilaren 28an, ekin genien ospakizunei ardo eta pintxo-pote bereziarekin.

Asteburu osoko festa

Egubakoitzean gau flamenkoa izan genuen Aitor Gartzia Escobarren gitarra doinuekin eta Angel del Toro eta Raul Jimenezen aho-tsekin. Giro bikainean, zapatu goizaldera arte luzatu zen gaua.

Zapatu eguerdian, gure betiko taldeak igo ziren taula gainera: Sueños de Andalucía dantza taldeak eta Al-Andaluseko koru errozieroak emanaldia egin zuten. Eta Lourdes Oncalaren ikasleek sevillanak dantzatu zituzten. Gustura izan ginen. Ondoren, baba-



Asteburuko ospakizunean sevillanak dantzatzen. | SEBASTIAN LOZANO

rrun-jan herrikoiaz disfrutatu genuen. Eta arratsaldean, berriz, Helikon Teatro taldearen eskutik *Cinco horas con Mario* antzezlan politarekin gozatu genuen eta *Alegria de la Sierra* talde errozieroarekin dantzatu. Horren ostean, gala-afaria izan genuen, eta Inazio Azkarragaurizar alkatua ere han izan zen. Eguna amaitu genuen Natalia Melladoren

saioarekin. Domekan, bukaera bikaina eman genion urteurren festari sevillanak dantzatuz Lourdes Oncalaren eskolakoekin.

Eskerrak eman behar dizkiegu ekintzetara etorri ziren guztiei; izan ere, izugarriko giroa izan genuen. Espero dugu beste 25 urte betetzea eta horrela ospatzea. Ospakizun hauek Al-Andalusen oroimenean iraungo dute.

Aratusteak iragartzeko, sardina-collagea


Susana Ibañez noaindarrak egindako lan koloretsua aukeratu du Udalak

I.G. | ARRASATE

Udalak dagoeneko aukeratu du Aratusteak iragartzeko kartela: Susana Ibañez noaindarraren lana izango da jaietako irudia. Aurretik ere izana du ohore hori nafarrak; hain zuzen, orain dela bi urte ere haren lana aukeratu zuten –aurten hirugarrenez hartu du parte.

Sardina, festaz gozaten

Paper ebakinekin eta askotarik elementuekin osaturiko sardina irudikatzen du kartelak. "Nire helburua mozorrotutako sardina bat irudikatzea zen. Izan ere, horixe da Aratustee-tako elementu protagonista", adierazi du Ibañez egileak. Gaineratu du hainbat testura eta kolore erabiliz alaitasuna transmititu nahi izan duela: "Aluminiozko papera eta kartoia erabili ditut, esaterako. Eta sardinari ondo-kapela, pajarita eta aire-serpentina jarri dizkiot. Esango nuke sardina disfrutatzen ari dela serpentina eta konfeti artean. Hein batean, kartela txantxazalea dela esango nuke. Aratusteak ere hala-koak dira, txantxaz betetakoak".




Kartel irabazlea. | SUSANA IBAÑEZ

Ibañez oso pozik dago bere lana hautatu dutelako Aratusteak iragartzeko: "Ez dut inolako zalantzarik saria merezi zuten kartel gehiago aurkeztuko zirela. Horregatik, oso pozik nago nirea hautatu dutelako. Bestalde, pozik nago nire kartela izango delako Arrasateko Aratusteetako irudia. Ohorea da. Beraz, eskerrak eman nahiko nituzke". Hain zuzen ere, 400 euroko saria jasoko du Ibañezek.

Gurasoentzako tailerrak

Seme-alaben heziketan sortzen diren kezkak eta zailtasunak konpartitzeko, egoera hauei babesa eskaini eta estrategiak garatzen laguntzeko.



0-19 urte arteko seme-alabak dituzten gurasoentzako

0-12 urte

Elkarbizitzarako tresnak eskuratzen:

Etxean errespetua, komunikazioa eta lasaitasuna areagotzeko tailer praktikoa

0-5 URTE
asteleheneretan 14:45-16:15
6-12 URTE
asteleheneretan 18:00-20:00

Martxoak 9, 16, 23. Apirilak 13, 20, 27

Hizkuntza: Gehiengoaren arabera

Dinamizatzailea:
Virginia Belategi Azpiri EraiN Gazteen Osasun Integrala

13-19 urte

Zer egingo dut nik orain?

Eguaztenetan 18:00-20:00
Martxoak 11, 18 eta 25
Apirilak 15, 22 eta 29

Hizkuntza: Gaztelaniaz.

Dinamizatzailea:
Esmeralda Fontan
Ardatz prestakuntza eta ikasketa zentroa

ANTOLATZAILEA:



ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN

IZEN EMATEA: Otsailaren 20a baino lehen:

- BAZen.
- 943-25 20 07
- prebentzio@arrasate-mondragon.net

Tailerra emango da:
Kulturaten (Loramendi gela)

Biain: "Proposamen sendoarekin aurkeztuko gara hauteskundeetara"

- ▶ Mikel Biain izango da EH Bilduren alkategaia
- ▶ Programa osatzeko ekarpenak jaso gura dituzte

O. ELORTZA / I. GOITIA | OÑATI

Mikel Biainendako "ohorea" da berriro ere EH Bilduren alkategaia izatea. Koalizio horrek joan den zapatuan gaztelekuan egin zuten hauteskundeetako bigarren tailerraren amaieran aukeratu

zuten Biain zerrendaburu maiztzeke hauteskundeetarako. Tailer hartan, askotariko adinetako hamarnaka herritarrek azken hilabeteetan zortzi arlotan landutako proposamenak eztabaidatu zituzten, eta ekarpenak egin

–ongizatea, lurralde antolamendua, politika feminista, hezkuntza, sozioekonomia, gazteria, kirola eta kultura.

Ondoren, kontzejupean eginitako ekitaldian aurkeztu zuten Mikel Biain alkategaia. Bertan, Biainek eskertu egin zuen konfiantza berarengan berretsi izana: "Oso pozik eta harro nago hautagaitza berrestearekin eta talde berri batekin, neurri batean, erronkari heltzeko prest nago".

Bianek gaineratu zuen harro dagoela EH Bilduren proiektu politikoaz bat egiten duelako; izan ere, gizarte arloko hainbat esparrutan eragiteko erabakiak har daitezke. Horretan, Gipuzkoako Foru Aldundia "adibide ona" dela esan zuen. Bada, zapatuko ekitaldian izan zen Larraitz Ugarte, Foru Aldundiko bozeramailea. Bestalde, ekitaldian hitza hartu zuen baita Arantzazu Ibarrodok ere, Udaleko langileak. Esan zuen Biain pertsona "dotorea" dela alderdi guztietan: "langilea, arduratsua, irekia, entzuten dakiena...".

Proiektuaren garrantzia
Hautagaiek garrantzia izanaga-



Mikel Biain alkategaia izendatzeko aurkezpenean | OÑATIKO EH BILDUR



Urtarrilaren 31n gaztelekuan egindako II. hauteskunde tailerra. | OÑATIKO EH BILDUR

Programaren lanketa, herritarrekin batera

Agintaldiaren balantzea egin ostean, hauteskunde programa lantzen hasi zen EH Bildu azaroan, hainbat taldetan banatuta. Urtarrila bitartean programarako ideiak jasotzen eta hautagaia proposatu eta onartzeko prozesuarekin aritu dira hainbat herritar eta joan den zapatuan hauteskunde bigarren tailerrean elkartu ziren, gaztelekuan, azken bi hilabeteetan zortzi arloetan landutako proposamenak eztabaidatu eta ekarpenak egiteko. Biainek eskerrak eman zizkien guztiei.

Erabakia ehuntzeko ekimena aurkeztuko dugu

Astelehenean da, 19:00etan, gaztelekuan eta herri borondatearen jostun danok zaudete gonbidatuta

KOMUNITATEA GOIENA | KIDEA XXXX
ELKARTEA XXXX | HERRIA XXXX

Iazko ekainaren 8an oñatiar asko izan ginen erabakitze eskubidearen aldeko giza katera bildu ginenak. Hurrengo pausoa, aldarrikapena ehuntzea izango da. Norberaren atxikimendu pertsonala oihal zatietan azaldu eta josiko ditugu.

20 lagunen atxikimendua bilduko duten oihal unitate bakoitzaren ardura izango duten *tutorak* izendatuko ditugu. Oñatin bildutako oihal zati guztiak josteko Ehuntze Eguna ospatuko dugu apirilaren 25ean. Ekainaren 20a berriz, Joste Eguna izango dugu hiriburuetan. Herriz herri prestatutako oihalak josiz hauteskontzi erraldioak osatuko ditugu. Desberdinen arteko elkarlana josiz erabakia ehuntzeko ekime-

na aurkezteko ekitaldia antolatu dugu otsailaren 9rako. Arratsaldeko zazpietan gaztelekuan izango da. Hurrengo astean, otsailaren 16an bestalde, *Jostunak* dokumentalaren emanaldia eskainiko dugu Santa Ana aretoan. Hau ere, arratsaldeko zazpietan hasita.

Herri borondatearen jostun izan nahi duzuen oñatiar guztiok bi ekitaldietara gonbidatuta zaudete.

Herri bat garelako, erabakitze eskubidea dugula eta herritarren garaia dela oinarriekin bat egin genuen ekainean guztiok. Erabakiaren aldeko europar olatuaren baitan gabilta eta horretan jarraitu behar dugu. Gure Esku Dago jarrera bat baita, gure etorkizuna gure esku dagoela jakinik herritarrok hartzen dugun jarrera.



MIREIA BIKUNA

Adierazpen libreko gune gehiago

Errekalden, Patruze Kalen eta Kale Barrian adierazpen libreko panel bana jarri dituzte. Hala, aurretik jarrita zeudenak kontuan hartuta, horrelako hamabost gune daude herrian kartelak jartzeko. Udalak ere gune horiek erabiltzeko deia egin du, kartelak horretarako propio jarri diren guneetan jartzeko eta ez edozein lekutan. Errekalden jarri dutena auzo horretan jarri duten lehena da.

Postontziak

Datorren hilean, martxo amaiera aldera, emango dute ezagutzera euren programa. Ordura arte herritarrek ekarpenak egiteko aukera izango da. Izan ere, herriko hainbat tokitan postontziak jarriko dituzte proposamenak jasotzeko, eta Oñatiko EH Bilduren webgunean ere egin ahal izango dira. Horrez gainera, herriko eragileekin aldeko bilerak egingo dira programaren zirriborroa aurkeztu eta ekarpenak jasotzeko.

Bestalde, Bianek datozen lau urteotan izango duen lan taldea ez dago zehaztuta oraindik eta prozesu hori ere irekia izango da. Hala, EH Bilduren webgunean aukera dago izenen proposamenak egiteko. Biainek esker hitzak izan zituen azken lau urteetan Udala Gobernu lanetan taldekide izan dituenendako.

Gazte lokalei buruzko lehen saio bateratua, eguaztenean

OIHANA ELORTZA | OÑATI

Gazte lokalei buruzko azterketa lantzen jarraitzen du udalak eta prozesuaren bigarren faseari ekingo diote hila-bete honetan. Hala, lokaletako gazteak, jabeak, bizilagunak eta gurasoak parte hartuko duten hiru bilera bateratu egingo dira otsailaren 11n eta 25ean eta martxoaren 11n, hain zuzen ere.

Saio bateratu bakoitzean gai konkretu bat izango dute hizpide. Eguaztenean, esaterako, gazte lokalen inguruko elkarbizitzaz jardungo dute, harremanei eta beharrei buruz. Gaztelekuan izango da saioa, 18:30ean.

Saio hauen emaitza gazte lokalekiko politikaren abiapuntua izango da udalaren dako.

230 lagun inguru irtengo dira dantzan Aratusteetan

Jantziko dituzten arropetako batzuk berriak izango dira eta iaz baino berrero gehiago egongo dira

T. MADINA / O. ELORTZA | OÑATI

Biharko eta datorren eguaztene-ko entseguak baino ez dira falta Aratusteetako zapatuan kalejiran kalera ateratzeko. Joan den urtean baino gehiago irtengo dira, gainera, eta antolatzaileak pozik daude.

Bost dantza

"Guztira, 180 lagun irtengo gara dantzan, eta, kopuru horri musikariak eta pertsonaiak gehituz, 230 laguneko taldea ibiliko da kalean gora kalean behera otsailaren 14an", azaldu du Zuriñe Lazkanok. Berrikuntzak ere izan-

go ditu, gainera, aurtengo kalejirak. "Arropa batzuk, adibidez, berriak dira. Borreroak ere gehiago egongo dira eta geldiuoneetan antzerki txiki bat egingo dute", esan du eguazteneko entseguaren ostean Leire Zumaldek. Eta gaineratu du: "Dantzak, berriz, aurreko urteetako berdina dira. Bost dantza dira: bi makila-dantza, bi polka eta esku-dantza. Kalejiran goazenerako beste bi pieza aukeratu ditugu. Denak dira dantza alaiak eta Aratusteetako kutsua dutenak".

'Erdibana' antzezlan

Urtetik urtera berritasun txikiak sartuz Oñatiko Aratuste propioak osatzea da helburua. "Eta dantza horiek ondo erakutsi gura ditugu. Azken bi urteetan eguraldi txarra egin digu, eta ea oraingoan zorte hobea dugun", dio Zumaldek.

Otsailaren 14an, zapatua, izango da Aratusteen ospakizun hori. Bezperan, baina, otsailaren 13an, Joxe Ramon Soroz eta Iker Galartza aktoreak *Erdibana* antzezlan egingo dute Santa Ana antzokian, 22:30ean. Hori ikusteko sarrerak salgai daude dagoeneko, 10 eurotan, helbide honetan: <http://bibe.me>.



Aratusteetako entseguan eguaztenean. | TXOMIN MADINA

Maria Irizar kaleko plaka prest da

Apaolaza Alarguna kaleari izena aldatu eta Maria Irizar jartzea onartu zuen udalbatzak azaroko osoko bilkuran. Orain, plaka ere aldatu dute. Izan ere, senarraren abizena ageri zen. Aurrerantzean, Maria Irizar kalea izango da, eta plakan ere hala irakurriko da.



ARGAZKILARIAXXX

NIRE USTEZ

MARINA ETXEGOIEN



Nire (beste) niak

Egun hauetan, Auschwitz askatu zela 70 urte bete dira. Honen harira gogorra etorri zait irakurri berri dudana liburua: Javier Cercasen *El impostor*. Bertan, Enric Marco-ren bizitza kontatzen da. Marcok asmatutako bizitza bat eraiki zuen, beste gezur askoren artean, deportatua izanik nazien kontzentrazio esparru batean egon zela guztioi sinestaraziz. Iragan faltsu honi esker, trantsizio garaiko elkarre askoren buru izatea lortu zuen -CNT-, Mauthausengo lagunaren elkarre-, eta hauen eskutik, ospea eta mirespen orokorra.

Salatu eta agerian utzi zuteanean, gezurra esan zuela onar-

tu zuen, baina gezur hori egi handi baten zati txiki bat besterik ez zela zioen. Baina, hori horrela balitz ere, gezurra ez al da beti gezur? Egiaren eta gezurraren arteko muga askotan ikusezina da, bestela zergatik iruditzen zaizkigu besteak beti gu baino langileago, osasuntsuago, ederrago, hau da zoriontsuago? Gezur txikien bitartez gure ezaugarri positiboak nabarmentzen ditugu, negatiboak ezkututzen ditugun neurrian.

Denok eraikitzen dugu egunero gezur txikiz osatutako fikziozko errealitate bat -harreman berrietan, adibidez, edota lanean gure gaitasunak azpimarratzeko-. Enric Marcoren antzera, denok eraikitzen dugu sarritan beste ni bat, guztiz benetakoa ez dena baina bizitzeko beharrezkoa duguna.

"Horrela balitz ere, gezurra ez al da beti gezur?"

Olabarrietatik Ugarkalderako bidegorria egiteko desjabetze espedienteak hasi dira dagoeneko

Ugarkalde eta Olabarrieta arteko bidegorria hainbat lur pribatutatik pasatuko da, eta horiek eskuratzeko derrigorrezko desjabetze espedienteak hasiera eman zaio. Abenduko osoko bilkuran aho batez onartu zen proiektuaren arabera, ukituko diren lursailak, guztira, 2.919 metro karratu batzen dituzte. Gipuzkoako Aldizkari Ofizialak martitzenean argitaratu zuen moduan, era batera edo bestera ukituko diren lursailak, berriz, 32 dira.

5.000 eurotik gorako fakturak modu elektronikoa aurkeztu behar dira Udalean aurrerantzean

Bestalde, urtarrilaren 15etik aurrera, 5.000 euro baino handiagoak diren fakturak elektronikoak izango dira Oñatiko Udalean ere, estatuko legeak hala aginduta. Kopuru hori baino faktura txikiagoak dituzten hornitzaileak, baina, ez dira horretara derrigorituak egongo. Faktura elektronikoak jasotzeko prozedura arautegia zehazten duen alkate-dekretua onartu zuen udalbatzak urtarriko osoko bilkuran.



SUKALDEEN LIKIDAZIOA, ERAKUSKETA ALDAKETAGATIK

Aprobetxatu aukera!

Etor zaitez dugun eskaintza ikustera.

ARREGI AROZTEGIA

Bidekurutzeta 38 • BERGARA • Tel.: 943 76 31 03 • Ordutegia: Astelehenetik ostiralera: 17:00-20:00 - Zapatuan: 10:00-13:00

Beteranoen ligaxka eta kopa jokatu duten taldeak, erabakita

Liga erregularreko azken partiduak zapatuan jokatu dira Azkoagainen

OIHANA ELORTZA | OÑATI

Eguraldiak oztoporik jartzen ez badu, asteburuan jokatu dira Herriko Futbol Txapelketako liga erregularreko azken partiduak. Bihar, zapatua, izango dira, eta, lehen norgehiagoka hasi aurretik, futbol zelaian bertan hartuko dute erabakia partidak jokatu edo ez, elurragatik.

Hamabost taldek hartu dute parte aurtengo liga erregularrean, bi taldetan banatuta. A taldekoek joan den asteburuan jokatu zituzten azkeneko partiduak eta oraingoak B taldekoen artekoak izango dira. Bada, horren ostean, otsailaren 14ko asteburuan ligaxkako eta kopako kanporaketak hasiko dituzte.

Kanporaketan

Asteburu honetako partiduen emaitzen faltan, baina, dagoeneko erabakita dago zein taldek



Joan den urteko finala. | JOKIN BEREZIARTUA

jokatuko duten ligaxka eta zeintzuek kopa. Hala, ligaxkan talde bakoitzeko lehen lau sailkatuak lehiatuko dira: A taldeko Albok, Sasquatch, Auschwitz eta Etxai-xat eta B taldeko Dollygangs,

Kalañataray, Nandrolona eta Kili Kolo. Kopako kanporaketak jokatu dituztenak, berriz: Joxely, Bundesweir, Indar 85, Txuskos, Txarrixak, Xaguzar eta Paketinaikos.

Gauzak horrela, asteburu honetako jardunaldiak ez dira erabakigarriak izango hurrengo txapelketei begira; bakarrik jakingo da B taldeko lau talde horien artean zein sailkatzen den lehenengo eta zeintzuk hurrengo postuetan.

Bihar, zapatua, jokatu dira partidu horiek Azkoagainen. Nandrolonen eta Kili Koloren artekoa Lazkanok epaituko du, 13:00etan; Kalañataray eta Dollygangs taldeen arteko epailea *Moli* izango da, 14:30ean, eta Sasquatch taldeak 18:30ean hasiko den Paketinaikos eta Xaguzar taldeen arteko partiduan egingo ditu epaile lanak.

Aste Santu aurretik

Ligaxkako eta kopako txapelketen egutegiak egin gabe dituzte oraindik antolatzaileek. Datorren asteazkenean dute hurrengo bilera eta orduan hasiko dira egunak, partiduak eta orduak finkatzen. Baina aurreratu dute ligaxka eta kopa batera jokatu direla, betiko moduan. Finalak, hori bai, normalean baino lehenago jokatuko dituzte. Maiatz aldera izan ohi dira, baina aurtun, ziurrenik, Aste Santua baino lehen jokatu dituzte.

Estanpazio tailerra egingo dute datorren hilean

O.E. | OÑATI

Otsailaren 26tik martxoaren 30era estanpazio tailerra egingo dute eta izen-ematea zabalik dago dagoeneko. Kultura Sailak antolatu du tailerra eta Mirari Sagarzazu izango da irakaslea.

Haurrek eta nagusiek ikusi eta ikasi ahal izango dute estanpazioa nola egin. Hala, sei eta hamabi urte bitartekoendako eskolak egunenetan izango dira, 17:00etatik 18:30era. Hamabi urtetik gorakoendako eskolak ere egunenetan, baina 11:00etatik 13:00etara edo 18:30etik 20:30era. Izena ematearekin batera ordaindu behar da matrikula, 25 euro. Kultura etxean egin behar da, otsailaren 13a aurretik.



ARANTZAZU EZKIBEL

Eztarriz sano dabilta oraindik

Santa Ageda bezperako koplak eta kantua entzun ziren herrian joan den eguaztenean. Herriko ikastetxeek eginda zituzten euren planak kantuan egiteko eta herriko agintariengana ere joan ziren, euren eskariak egitera. Baina erretiratuek ez ziren gutxiago izan eta kantuan ibili ziren eurak ere, bedeinkatutako lokarriekin edo barik, eztarriz sano daudela erakutsita.



ZUAZOLA INSTITUTUA

Txirindularitzaz, Zuazolan

Txirindularitza ulertzeko hiru modu ezagutu zituzten astelehenean Zuazola institutuan, kirol hori bizi duten hiru txirindulariren ahotik: eliteko txirindulari profesional den Markel Irizar, emakumezkoen txirindularitza ezagutzen duen Naia Altzola eta naturan enduroa egiten duen Markel Uriarte. Aitor Ugaldek gidatu zuen mahai ingurua.

Aloña Mendiko korrikalariak Espainiako kros motzeko txapelketan egongo dira laugarren aldiz

Azpeitian jokatu ziren joan den asteburuan kros motzeko Euskadiko txapelketak, absolutu eta beterano mailetan, eta Aloña Mendiko korrikalariak zilarrezko dominarekin bueltatu ziren etxera. Emaitza horri esker, laugarren aldiz Espainiako txapelketan parte hartzeko aukera dute. Datorren asteburuan distantzia luzeko txapelketa jokatu dute Elgoibarren.

Reyes Prados sevillarrak euskalduntzeaz jardungo du Udal Euskaltegian datorren egunean

Duela zortzi urte etorri zen Euskal Herrira Reyes Prados sevillarra Euskal Telebistan lan egitera. Bi urte daramatza euskara ikasten, eta hizkuntza menderatzera heldu da epe laburrean. Bere esperientziari buruz jardungo du eta zenbait gako partekatuko ditu saio irekira doazen herritar guztiekin. Hilaren 12an, eguena, izango da, 18:00etan, Udal Euskaltegian.

Felix Albok mediterraneo inguruko istorioak kontatuko ditu Udal Liburutegian, nagusiendako

Helduendako ipuin kontaketa antolatu du Udal Liburutegiak martitzenerako, otsailak 10. Alacantetik etorriko da Felix Albo kontalaria eta *Faros* izeneko ikuskizuna egingo du, 19:00etan. Ahotza eta gorputz mugimenduak erabiltzen ditu Albok entzuleak liluratzeko. Gehienetan, gainera, irribarrea eragiten die entzutera joaten direnei.

Fly Shit, Joseba Irazoki eta Putan Club taldeak zuzenean entzuteko aukera egongo da gaztetxean

Gaur, egubakoitza, Bergarako Fly Shit taldeak joko du Antixena gaztetxean, 22:00etan. *Barneko ahotsaren bila* diskoa aurkeztuko du. Hilaren 10ean, berriz, Berako Joseba Irazokik eta Frantziako Putan Club taldeak joko dute. Martitzeneko kontzertu hori iluntzean izango da.

Arrasaten eta Aretxabaletan bizi diren oñatiarrek bazkaria egingo dute martxoaren 7an

Aurtun ere elkartzeko plana egin dute Arrasaten eta Aretxabaletan bizi diren oñatiarrek. Martxoaren 7an egingo dute bazkaria, Arrasateko batzokian. Izena, baina, Arrasateko Ederra tabernan eman behar da martxoaren 1a aurretik. 40 euro izango da bazkaria eta 13:30ean elkartzeko dira Kajoi tabernan.

Arabako Izki parkerako irteera da hurrengoa

O.E. | OÑATI

Aloña Mendiko mendi sailak antolatuta, Arabako Izki parkerako irteera datorren asteburuan; zehazki, otsailaren 15ean.

Apinaiztik abiatuta joango dira Izki parke naturalera. Arluzea eta Markiztik pasata Obekuriraino helduko dira. Tartean, 1.057 metro dituen San Kristobal menditik pasako dira. Mendi sailak jakinarazi du irteerak ez duela zailtasunik, baina luzea dela; hogeita bat kilometro inguru, sei orduan egiteko.

Irteera otsailaren 15ean izango da, 07:00etan, postetxetik. Izena, baina, hilaren 12a baino lehen eman behar da Aloña Mendiko bulegoetan. Kirol elkarteak gogorazi du parte hartzeko derrigorrezkoa dela federatuta egotea.



Izki parke naturala. | BLOGVIBIKE

Agurne Barruso izango da EH Bilduren alkategaia

Udal hauteskundeetarako zerrendak otsailaren 21ean aurkeztuko dituzte, hirugarren batzarraren ostean

MIREIA BIKUÑA | BERGARA

Agurne Barruso izango da EH Bilduren alkategaia maiatzaren 24ko udal hauteskundeetarako. Zapatuan egindako herri batzarrean aukeratu zuten bergararra alkategaia. Batzarraren ostean egindako agerraldian "pozik eta eskertuta" agertu zen, "EH Bilduren hautagai izateko aukera" eskaini diotelako.

Batzarrean 100 lagun

Esker hitzen ostean, duela hila-bete batzuk herritarrekin batera abiatutako prozesuaren gaineko azalpenak eman zituen. Prozesuak bi helburu dituela azaldu zuen: "Alde batetik, EH Bildu lau alderdiren batura izatetik harago joatea eta Bergarako ezkertiar eta abertzaleen bilgune izatea; eta beste alde batetik, Bergarara egokitutako programa sendoa osatzea". Horren harira, Barrusok esan zuen zapatuko batzarrean 100 lagunek parte hartu zutela eta ekarpen pila egin zitzutela: "Helburuak betetzen ari gara".



Isazelaia alkatea, Barruso alkategaia eta Iruin zinegotzia. | IMANOL SORIANO

Udal hauteskundeetako zerrendari dagokionez, otsailaren 21ean egingo duten hirugarren eta azken herri batzarrean berretsi nahi dutela azaldu zuen alkategaia. Hirugarren batzarrean, herri programa ere aurkeztuko dute.

Alkatetzatik Aldundira

Agurne Barruso (Bergara, 1970) bigarren aldiz aurkeztuko da alkatetzara. Aurretik, alkate lanak

bete zituen 2007tik 2011ra. Alkatetza utzi ostean, Gipuzkoako Foru Aldundira salto egin zuen 2013ko ekainean, Martin Garitoren gobernuaren kabineteburu, Juan Karlos Alduntzinen orde. Ahaldu nagusiaren alboan dihardu lanean. Barruko zama arintzen. Aldundiko lana Sortun duenarekin bateratzen du: Gipuzkoako arduradun instituzionala da 2013ko otsaila ezker.

San Antonioko etxeak botatzeko proiektuan pauso bat gehiago

MIREIA BIKUÑA | BERGARA

San Antonion zutik dauden etxe zaharrak botatzeko pauso handia eman zuen Udalak astelehenean egindako osoko bilkuran. Izan ere, zortzigarren atarian erosi gabe zegoen azken solairua erosteko akordioa lortu du Udalak. Hori horrela, gainontzeko etxebizitzak bota ahal izango dira. "Hirigintza aldetik sekulako aurrerakada da", esan zuen Jaione Isazelaia alkatea.

Horren ostean, ordea, gunea ez dute beste eraikin bat egiteko erabiliko. Honela azaldu zuen Isazelaia: "Gune horretan ezin izango dugu ezer eraiki. Hori bai, aukera egongo litza-teke gunea txukundu edo ber-

degune bihurtzeko. Baina lehen-tasuna etxeak botatzea da, egoera txarrean daudelako".

Enpresa hautatu

Etxebizitza horiek botata, bertan sortzen den inbutua konpontzea espero du Udalak. Horrez gain, oinezkoentzako espaloi zabalagoak egingo dituzte. Hilaren 11n eskuratuko dituzte zortzigarren atariko eskriturak, eta hurrengo pausoa eraiste proiektua egingo duen enpresa hautatzea izango da. Proiektua esleitu eta berehala botako dituzte etxeak. Aurretik bigarren eta laugarren atariekin eta *La Flor* eraikinarekin egindako moduan.

San Blas jaietako azken ospakizunak aste bukaeran

San Blas jaietako azken ospakizunak egingo dituzte gaurtik domekara. Gaur, egubakoitza, auzo afaria egingo dute (19:30), eta bihar mus txapelketa (16:00). Domekan, meza nagusia, Aranzadi Ikastola-Moises Aspiazu taldearen dantzaldia eta haurren dantza-kukainak egingo dira.

Xabalote gaztelekuak eski irteera egingo du hilaren 28an

Eskiatzeko irteera egingo du Xabalote gaztelekuak hilaren 28an. Interesatuak hilaren 23ra arte dute izena emateko epea: gazteleku bertan edo Jardunen bulegoan. Garraio eta forfaitengatik 24 euro ordaindu behar da; eskiengatik, 37 euro; eta snow taularengatik, 42 euro.

Aranzadi ikastolan denok gara

Ate irekiak

Otsailaren 8an
11:30etik aurrera:
jolasak
instalazioak ikustea
zuzendaritzarekin bisita
palomitak
salda

...
Informazio gehiago
www.aranzadiikastola.eus



ARANZADI ikastola
Kalitatezko Euskal Heziketa



Ipintzakoak lehen postuan Start Innova proiektuan

M.B. | BERGARA

Bergarako Ipintza institutuko Batxilergoko bigarren mailako ikasleek lehen lekuan bukatu dute Start Innova proiektuko lehen kanporaketa. *Alzheimer* delako proiektuarekin. Alzheimerren duten pertsonendako erloju berezia da, GPS lokalizatzaile batekin, kamerarekin eta 24 orduko asistentziarekin. Gainera, gaixoei, botikak noiz hartu behar dituzten gogorazten die.

Miren Ignacio, Jone Olabarria, Ane Muxika, Eneritz Arizmendiarieta eta Lorena Elexpuru dira proiektuaren egileak, Igone Etxeberría irakaslearen laguntzarekin.

28 ikasle, sei taldetan

Ipintzako Enpresa Ekonomia alorreko 28 ikaslek parte hartu dute proiektuan, sei taldetan banatuta. Urrian hasi ziren programak eskatutako urratsak egiten, eta abenduaren 19an aurkeztu zituzten txostenak.

Bada, Start Innova proiektuaren finala otsail bukaeran egingo dute.



Karlos Etxaniz izango da bakarlarrietako bat. | JOSETXO ARANTZABAL

'Mesias': Haendelen obrarik ezagunena Orfeoiaeren ahotsetan

MIREIA BIKUÑA | BERGARA

Bergarako Orfeoia musika klasikoz beteko du San Pedro parroikia. Musika klasikoen artean, piezarik klasikoenetarikoa: Haendelen *Mesias* interpretatuko du bihar, 20:00etan. "Ez dugu obra osoa abestuko, oso luzea delako. Ordubete inguruko aukeraketa egin dugu. Hori bai, piezarik ezagunenak daude tartean; besteak beste, *Aleluia*", esan du orfeoiko kide Karlos Etxanizek.

Lau bakarlari

Bergarako Orfeoia laguntzeko ganbera orkestra bat osatu dute inguruko musikariek. Gainera, lau bakarlari egongo dira kon-

tzertuan: Nere Ibarra sopranoa, Oihana Diaz kontraltoa, Gorka Unamuno tenorea eta Karlos Etxaniz baxua. "Obra sinfoniko koral ezagunenetarikoa da eta gogor egin dugu lana. Halako erronkak oso politak dira, baina lan handia eskatzen dute", esan du Karlos Etxanizek.

Berogailua

Kontzerturako sarrerak 10 euro ordaindu behar dira, eta jasotako dirua San Pedron dagoen organoa konpontzeko bideratuko dute.

Antolatzaileek azpimarratu dute berogailuak ipiniko dituztela parrokiaren, herritarrek epel egon daitezzen.

'Kafe konpon': etxeko traste zaharrak konpontzeko deialdia egin dute hilaren 11rako, San Joxepen

San Joxepe elkarteak kideek etxeko traste zaharrak konpontzeko deialdia egin dute otsailaren 11rako. Erretiratuen elkartearen batuko dira, 16:00etan, herritarrek eramaten dituzten trasteak eta etxetresna txikiak konpontzeko. Askotariko trukuak emango dituzte. *Kafe konpon* hilero egiten dute eta deialdi irekia da herritar guztiendako.

Infantil, kadete eta gazte mailako partidua jokatu dituzte Udal Pilotalekuan egubakoitzean

Bergarako pilotariak eskuz binakako partidua jokatu dituzte gaur, egubakoitzean, 19:30ean. Infantil, kadete eta gazte mailako norgehiagokak izango dira. Infantil mailako Gipuzkoa Txapelketan, Ziotzaren kontra jokatu dute bergararrek. Eta kadete eta gazte mailako Udaberri torneoaren Legazpi eta Antiguaren kontra, hurrenez hurren.

Aurkari gogorra izango du Bergarak Labegaraietan: Urdulizen kontra neurtuko ditu indarrak

Bergarako eskubaloitzaileak Labegaraietan jokatu du zapatuan, 20:00etan, eta aurkari indartsua izango du aurrean: Urduliz. Bizkaitarrak sailkapenaren laugarren lekuan daude. Aurreko astean Deustun gol bakar batetik galdu ostean, Josetxo Muniategiren taldeak puntuak behar ditu jaisierako postuekiko duen aldea handitzeko.

Donostian jokatu du saskibaloitzaileak, sailkapeneko bosgarren lekuari eusteko asmoz

Soraluze BKEk Donostian jokatu du Alde Zaharra B taldearen kontra (domeka, 12:00). Jon Beistegiren taldeak aurkari zuzenaren aurka jokatu du -bergararrek 27 puntu dituzte sailkapenaren eta donostiarrek 24-, eta, irabaziz gero, sailkapenean duten bosgarren lekuan sendo mantenduko dira. Aste bukaerakoa hamaazpigarren jardunaldia izango da.



20 urte baino gehiagoko esperientzia implantologian

CLINICA DENTAL
BERGARA

Bidekurutzeta 36 BERGARA • Tel.: 943 76 05 77
www.clinicadentalbergara.es

Kontsulta eta aurrekontua doan
Zure tratamendua finantzatzeko dugu.

Espezialitate bakoitzerako mediku-talde kualifikatua dugu

ODONTOLOGIA

A. Pastor doktorea
U. Artetxe doktorea
I. Goikoetxea doktorea

ORTODONTZIA

Y. Otero doktorea

PERIODONTZIA

I. Goikoetxea doktorea

INPLANTOLOGIA

F. Juarros doktorea
U. Artetxe doktorea

ENDODONTZIA

G. Campos doktorea

DKV • MAPFRE • IMQ/ADESLAS • SANTA LUCIA • EROSKI
OCASO • PREVISORA BILBAINA • ORBITA • ACUNSA • AEGON



Joan den urteko txapelketa. | ARIZNOA GIMNASIA TALDEA

Bihar, Gipuzkoa osoko gimnasia eskolak Labegaraietako kiroldegian lehiatuko dira

KOMUNITATEA GOIENA | ARIZNOA GIMNASIA TALDEA | BERGARA

Bihar, Labegaraietako kiroldegia gimnasia erritmikoaren hiriburu bilakatuko da. 11:00etatik aurrera Gipuzkoako eskolarteko B mailako gimnastak arituko dira lehiatzen. Goizeko saioan alebin eta infantil mailletako 11 talde eta 28 banakako arituko dira.

17:00etan Gipuzkoako benjaminen lehen topaketaren txanda izango da. Maila honetan 32 talde eta 38 banakako gimnasta lehiatuko dira. Beste batzuen artean, herriko Ariznoa gimnasia

taldeaz gain, Antzuola, Arrasate, Aretxabaleta, Eskoriatza eta Oñatiko gazteak ere lehiatuko dira.

Gureak topera

Ariznoak Eskolarteko A eta B mailetan ditu taldeak, eta baita amateur mailan ere. A mailako txapelketak bi fase eta finala izaten ditu, eta ondoren Euskadiko Jokoetan parte hartzen dute, lortutako sailkapenaren arabera. Joan den zapatuan, herriko nesken taldeak Eibarren egin zen lehen fasean oso emaitza onak lortu zituen. Segi horrela!

Emakumeen lana erakusteko lehiaketa

IMANOL GALLEGU | BERGARA

Emakumeen Nazioarteko Eguna testuingurutzat hartuta herritarren argazkiak jaso, eta erakusketa bat abiarazi nahi dute Martxantera taldekoek. Erakusketa eta lehiaketa horrekin, herrian feminismoaren gaineko lanketa egiteaz gain, emakumeek egindako lank bataratzea da helburua.

Lan a(u)nitiz, aurpegi a(u)nitiz gaia jarrita argazkiak *marxanterak@gmail.com* helbidera bidalita nahikoa da, *marxanterak* arduratuko baitira argazkiak inprimatu eta kalean jartzeaz.

Argazkiek emakumeek egindako lanak erakutsi behar dituzte, eta lanok aurkezteko azken eguna martxoaren 2a izango da.

Mostra martxoaren 8an

Herriko kaleetan zehar erakusketa martxoaren 8an egingo da. Mostrari hasiera emateko gainera mokadutxo bat egiteko aukera ere egongo da. Emakumeen eskubideak aldarrikatzeko ekintza izan arren, herritar guztiek har dezakete parte. Ekimen horrekin, herritarrek eta gaia bera kalera ateratzeko aukera bikaina dela adierazi dute *marxanterek*.

Urtero moduan, Koldo Eleizalde lehiaketak idatzizko eta ahozko generoak bereiziko ditu

Lehenengo multzoa bi sailetan bereizi dute, ipuin idatzia eta komikia; bigarrena, aldiz, bertso eta kontaketa edo interpretazio sailetan banatu dute. Bigarren sail horretara, antzerkiak, ipuin-kontaktak, txistek... aurkez daitezke. Lanak paperean eta entzunezko edo ikus-entzunezko euskarrietan aurkez daitezke apirilaren 16ra arte.

Ipintzako Institutuko antzerki taldeak 'Hora libre' lana taularatuko du gaur ikastetxeko aretoan

Hora libre gaztelaniako irakasle Pello Lezertuak duela hogeitun urte idatzi zuen antzezlan da. Garaira egokitzeko hainbat moldaketa egin dizkioten arren, testuak jatorrizko xarma mantentzen du. Drogak, kontzertuak eta amodio kontuak direla-eta bi gazteren arteko haserrealdian oinarritzen den istorio hori 20:00etan estreinatuko dute Ipintzako aretoan.

Torrada eta pella gozoak egiteko ikastaroa San Antonio auzoko Gure Ametsa elkartearen

Gozoak bezain sinpleak diren bi jaki horiei eskua hartzea ez da batere erraza; horregatik antolatuko dute ikastaro hori. Otsailaren 10ean emango dute, Gure Ametsa elkartearen, eta maisu lanetan Lasa jatetxeko Gorka Lobato gozogilea arituko da. Ikastaroa gehienez 15 parte-hartzaileentzako izango denez, ahalik eta bizkorren 943-77 91 59 telefonoan izena ematea komeni da.

San Joxepe elkarteak sare sozialetan trebatzen hasteko ikastaroa antolatu dute astelehenerako

Sare sozialek Internet goitik behera eraldatu dute, eta herriko nagusiak azken moda horretara gerturatzeko ikastaroa antolatu du San Joxepe elkarteak. Klasea astelehenean 16:00etan izango da elkartearen bertan, eta izen emateko epea oraindik zabalik dago. Horrez gain, martitzenean, La Caixa fundazioaren laguntzari esker, informatika gela berritua aurkeztuko dute.



Junkal Zubizarreta. | AGORROSIN

Junkal Zubizarreta
| Kirol aholkularia

"Erditze osteko aldaketei erantzuna eman gura diegu"

I.G. | BERGARA

Udal Kirol Zerbitzuetik *Erditu genuen/dugunontzako* ikastaroa antolatu dute. Zortzi saiotan, gimnasia hipopresioa eta tonifikazioa lantzeaz gain, kirola ere sustatu nahi dute.

Zer dela eta ikastaro hori?

Haurdunaldia eta erditze emakumeon bizitzan oso garrantzitsuak dira. Bide horretan, gure gorputzak egiturazko aldaketa asko jasaten ditu, eta normaltasunera itzultzeko jardun eta arreta berezia eskaintzea beharrezkoa da. Ikastaro horrekin, hutsune horiek bete nahi ditugu.

Zein aldaketa dira horiek?

Bereziki, gerri eta sabelaldean izaten dira. Sabeleko giharrek gehiegizko laxatzea izan ohi dute, eta zoru pelbikoak, bereziki perineoko egiturek, behera egin ohi du. Horrekin guztiarekin batera, maiz, txizari eusteko arazoak etorri ohi dira; baita sexu harremanetarako zailtasunak ere. Horrez gain, zenbait kasutan, pisua hartzea ere batu behar zaio. **Kirolera bueltatzeko aukera bat ere bada.**

Ama bihurtzen garenon lehen urtean arazo asko izan ohi ditugu kirol praktikara bueltatzeko, eta ikastaro honek egiten diola uste dugu.

NIRE USTEZ

MIREN
MAIZTEGI



Harrapatu gaitu

Trafiko Sailak jakinarazi digunez, arratsaldeko ordu bietatik aurrera elurra mara-mara arituko da Euskal Herriko zenbait txokotan. "Kontuz errepedetan, kotxea beharrezkoa izan ezik ez hartu...", halako mezuak entzun, entzuten ditugu. Baina bagoaz banaka batzuk, mendatean gora, trineo, eski, eskularru, txano, txamarra eta guzti.

Elurretan irrist egin ostean, etxerako bidean kotxean sartu eta elurra dezente mamitu da. Martxan jarri eta erroberak irris-

taka, errepede bazterra gero eta gertuago, gorantz datozen kotxeak noraezean, trabatuta... hau txokolatea! Neguko erruberak ipini behar nizkion!

Bihotza irten beharrean daukadala, hainbestetan entzun ditugun aholkuak gogorarazten saiatu naiz, bat-bateko azeleraziorik ez, martxa luzeak erabili, bolante kolpeak saihestu, freno ez zapaldu... baina horrela zelan demontre gidatuko dut? Irratia itzali, arnasa sakon hartu eta bagoaz maldan behera errepedean aurreko Land Roverrak utzi dituen arrastoak txintxo-txintxo jarraituz. Berandu bada ere, baten batek badaki errezatzen?

"Kotxeari neguko erroberak jarri behar nizkion!"



UR kristaldegia

BERRIZ ERE ZUEKIN!

Eska ezazu aurrekontua konpromiso gabe.

Kristaleria orokorrean, ispiluak, beirateak, alakoatuak, isolatzailea, plastikoak

Martoko 1-3 behea -BERGARA-Tel.: 688 60 34 02

Hasi da Txapel Txin Aratusteak iragartzen

Mozorroen jaiaren berri emango du bihar, eta torrada lehiaketako sariak banatu

MIRARI ALTUBE | ARETXABALETA

Elurrarekin batera iritsi da Txapel Txin Aretxabaletara. Elurrak, baina, ez du kikildu, jakinik Aratusteak gertu direla. Eta horixe iragartzera joan da herriko ikas-tetxeetara, Kurtzebarri eskolara eta Arizmendi ikastolako Basabeazpi gunera. Umeek harrera bikaina egin diote, txapel dotoreak jantzita, eta bihar gainerako herri-tarrek ere txapela jantzita egingo diote ongietorria.

Kalejira eta torrada lehiaketa

Egun guztian ibiliko da Txapel Txin jai giroan: "Aurtengo mozo-rrorak Pello Zabalarekin zerikusi handia duela bakarrik esango dizuet", aurreratu du. Goiz partean txikiteoa izango da musikak lagun eginda, eta arratsaldean, 18:30ean, kalejira La troupe de la rue taldearekin. Torradak egingoak orduantxe aurkeztu behar-ko dituzte lehiaketara; Herriko Plazan jasoko dituzte. Aratusteen ongi-etorri pregoia 19:30ean egingo du Txapel Txinek, eta ondoren, lehiaketako sariak banatuko ditu: lehenengoari, 100 euro eta Torratxin txapela; bigarrenari, 50 euro; eta hirugarrenari, 30 euro. Txapel dotorena duenari, osera, 50 euro emango dizkiote.

Ondoren, txistor-mokadutxoia eta torradak izango dituzte herri-tarrek, baita gura beste sagardo ere. Eta AviTxin disko jartzai-learekin dantzan egiteko aukera izango da.



Txapel Txin, eguenean, Basabeazpiko umeekin. | ENERITZ URRUTIA



Txapel Txin, eguaztenean, Kurtzebarri eskolako neska-mutikoeekin. | MIRARI ALTUBE

Hori guztia Aratuste-domeka girotzeko izango da, Txapel Txinek neska-mutikoei astean aurreratu dien legez: "Egin itzazue karrozak, izugarritzko karrozak, eta zuen gurasoak karrozak badira... horiek ere egin ditzatela

karrozak! Mozorrotu eta ondo-ondo pasatu, disfrutatu horretarako eguna da-eta". Aholkuokin hurrengo urteetako harrobia zaintzen ahalegindu da mozorroen festa beste ezer baino gustukoago duen pertsonaia.

Politikan ez jardun arren "gogotsu" dator Unai Elkoro, EAJko alkategaia

Aretxabaletarrendako "hurbiltasunez eta gardentasunez" lan egin gura duela jakinarazi du

M.A. | ARETXABALETA

Eguaztenean aurkeztu zuen Aretxabaletako Uri Buru Batzar-rrak alkategaia: Unai Elkoro Oianguren. Aretxabaletarra da eta Oñatin egiten du lan Ulman, hain zuzen. Orain arte ez da politikan jardun baina herriaren kudeaketan parte hartzeko "gogotsu" dagoela esan du.

Ardatza, ekonomia

Uri Buru Batzarreko ordezkari Esteban Herrastik aurkeztu zuen Elkoro batzokian eta esan EAJren batzarrak aho batez hautatu duela "persona ezin egokiagoa" delako.

Elkorok, berriz, eskerrak eman zizkion EAJri, alderdikoa izan barik independente gisa aurkezteko aukera eman diolako: "Politikan berria naizen arren, herriaren kudeaketan

parte hartzeko gogotsu nator eta aretxabaletar guztientzat lan egitea da nire asmoa, hurbiltasunez eta gardentasunez".

Programa lantzen hasita daudela adierazi zuen Elkoro, eta ekonomia izango dela ardatza aurreratu: "Aretxabaletako ekonomian lehen mailako pisua izan du industriak eta azken urteotan gainbehera nabarmena jasaten ari da; horregatik, beste sektoreak ahaztu gabe, bultzada eman nahi diegu, enpresa handiei zein txikiei".

Eta herriaren kudeaketa "herriarrentzat" egiteko ezinbestekoa dela horien partaide-tza adierazi zuen. Horregatik programako ildo nagusiak lantzeko taldeak jarriko dituzte martxan aste pare bat barru. Herriarrentzat iradokizunak jasotzeko gertu agertu zen, gainera.



Unai Elkoro eta Esteban Herrasti aurkezpen ekitaldian. | M.A.

Kiroldegiaren eredu aldaketak defizitaren igoera dakarrela diote Aralar eta EAJ alderdiek

M.A. | ARETXABALETA

Kiroldegiaren kudeaketa Udalak bere gain hartu ostean Aralar eta EAJ alderdia kritikatu agertu dira Udala Gobernuak hartutako hainbat erabakirekin. Hala, adierazpen bateratua egin dute esateko Udala Gobernuak, Ana Bolinaga buru dela, "gehiengo absolutuaz baliatuz erabateko autoritasmoz eta harrokeriaz" ari dela gestionatzen.

Diote jokatzeko era hau "agerian" geratu dela udal kiroldegiaren gestioa esleitzeko prozesuan. "Bi urte luzez jardun dute hiru enpresen elkarrekin zigorren eta estutzen", eta gaineratu: "Bi aldeentzat onuragarriak izan zitezkeen aukerak aztertu barik".

Abenduan lehiaketa deitu zuen Udalak: "Pleguak landu ziren eta lehiaketa publiko bidez argitaratu, gestio publikoan oinarrituta-

ko eredu, hainbat lanetarako enpresa pribatuak azpikontratatu", diote eta eredu hori lantzeko "aukerarik ez" dutela izan. Kudeaketak, baina, "lehengo osagai berberak" izango dituela diote, kirol jardueren kudeaketaren ardura Athloni eman diotelako eta mantentze-lanena Ondoani, hiruko enpresa elkarrekin osatzen zutenetako bi. "Diferentzia bakarra izango da kiroldegiaren gestioa eragindako zuloa, 300.000 eurotan estimatzen duguna, orain Udalak bere gain hartu beharko duela, aurreko ereduarekin izango zukeenaren bikoitza".

Gerentzia lanak

Onartezina dela uste dute gerentzia lanetarako "kanpoko" enpresa bat azpikontratatzeko, 18.000 euro gehi BEZa ordainduta: "Udaleko

giza baliabideak alde batera utzita, eta kirol teknikariaren betebeharrak gutxituz". Eta gaineratu dute herritar guztiei ez dietela eman aukerarik parte hartzeko: "Esleipena eta kontratazioa ez da bideratu lehiaketa publiko bidez".

Erabaki horiek eta lehentasunak finkatzeko "irizpiderik ezak" 2015ean herriaren inbertitzeko dirurik "ez egotea" eragin dutela diote bi alderdiek. "Hala, bidegorriaren lehen faserako 94.276 euro bakarrik gorde dira, obra osoa 345.525 euro denean". Eta kiroldegiaren defizita igotzen joango dela aurreratu dute: "Eredua aldatzearen kapritxoak sortutako bidesaria 355.281 euro da hasieran, eta gero defizita igotzen joango da". Kirolaren inguruko plan estrategikoa bideratu nahi izatea, osera, "itxurakeria" dela esan dute.

NIRE USTEZ

JULEN ABASOLO



Santa Ageda batzen

Santa Ageda egunien kanpaiek jotie be debekatu izan zan, inoiz kanpandorrietan mutilek egingo dako gehiegikeriakatik.

Juan Jesus eta Eugenio Santa Ageda batzen ibili zirenekue izengo da nik gogoraketan dituten lehenengo Santa Ageda mutilek. Gu Koruetako eskolan geontzen eta goiz erdi aldera eskolara sartu ziren euran txapel eta lepoko painolo haundixekin, gu umiek gitzen eta hareik, barrez, guretzat gizonak.

Geure aitten denboran be, hiru edo lau elkarketaie nahikue izeten ei zan etxez etxe kantau eta eskien hasteko, berak lau urtetan edo batu euen, eta batutakuaz, etxe horreitako

baten merixendau. Behin Mediolara be fan zien, eta umorez kontetan euen etxeruzkotan harmailatan soinu-jolie, Garai-kue izengo zana, estropezau eta eskuko soinuei saiheitsak apur-tu jakozenekue.

Gerra ondorengo urtietan lau eta bost kuadrilla be pase-tan ziela entzun izen dot; egun baten behintzet, tripie hobeto beteteko aukerie izengo zan.

Hemen ez dakit noiz eta nola erabaki zan Santa Ageda kantuen ibiltte hori kinttuen ardurie izetie. Nik uste dot ohiturie gordeten lagundu dauela. Soldaduzka desagertu arren, kontuek jarreketan dau, eta orain neskak be berdin dabitz taldien. Ahaztu egin dana, barrez, eskien eta batzen ibilttie dala esango nauke nik, premi-narik ez nunbait.

"Eta batutakuaz etxe horreitako baten merixendau"

Irakurketa Kluba egingo dugu liburutegian

KOMUNITATEA GOIENA | IZASKUN LEIBAR
HAUR LIBURUTEGIA | ARETXABALETAKO

Bularretik Mintzora egitasmoaren barruan, Irakurketa Kluba egingo dugu liburutegian. Hartzailak izango dira 0 eta 3 urte bitarteko haurrak eta euren gurasoak. Hiru egunean egingo ditugu: otsailak

18, martxoak 18 eta apirilak 15. Liburutegiko Txikitxokoan elkartuko gara, 18:00etatik 19:00etara, eta euskaraz izango dira. Izena emateko, liburutegira etorri otsailaren 12a baino lehen.

Hamar haurrek hartu ahal izango dute parte, euren gura-

soekin batera, eta haurrek beti egon beharko dute heldu baten zaintzapean.

Saioetan, helduei zein haurrei parte-hartze aktiboa eskatzen zaie, hala nola jokoetan gidari lanak egitea; liburuen aurkezpenak egitea bibliografia zabaltzeko; ipuin kontaketak, liburu-gomendioak eta komentarioak egitea; eta literaturaren inguruko beste ekimen batzuk.

Eta helburuak dira: irakurketa ohiturak sustatzea; kalitatezko euskal bibliografia ezagutzera; gurasoek eta hezitzaileek irakurketan parte aktiboa hartzea; haurrek giro lasai batean gozatzera; eta bibliotekaren erabilpena sustatzea.

Edozein zalantza argitu nahi izanez gero, galdetu liburutegian.



Umea liburutegian. | GOIENA

OHARRAK

SANTA AGEDA NESKA-MUTILEN DANTZA

Santa Ageda neska-mutileen dantza saioa izango da domekan, 19:00etan, Herriko Plazan.

ODOL ATERATZEA ASTELEHENEAN

Arabako odol bankuko kideak izango dira osasun etxean odola ateratzen astelehenean, hilak 9, 16:30etik 20:00etara.

'DRAGON BALL Z' FILMA UMEEK

Umek *Dragon Ball Z* marrazki bizidunen filma izango dute, bihar eta etzi (17:00), euskaraz.

LOMCE-REN GAINEKO HITZALDIA BATZOKIAN

Hezkuntza, Hizkuntza Politikarako eta Kultura sailburuorde Arantza Aurrekoetxea joango da batzokira LOMCE legearen gai-

nean jardutera. Eguenean izango da, otsailak 12, 19:00etan, eta herritar guztiei dago zabalik, euren kezkek argitzeko.

'DIOS MÍO ¿PERO QUÉ TE HEMOS HECHO?' FILMA

Helduek *Dios mío ¿pero qué te hemos hecho?* (Frantzia, 2014) filma izango dute gaur eta bihar (22:00), domekan (19:30) eta astelehenean (16:30).

EMAKUMEEN II. FRONTENIS TXAPELKETA

Hotzari aurre eginaz giro bikaina

Bihar jokatuko den bigarren jardunaldian irabaztea komeni zaie bikote batzuei aurrera egin gura badute, behintzat.

LEHEN JARDUNALDIKO EMATZAK

Rosa Ojuel - Lore Martinez Axpe / Oihana Mata - Leire Valle	20-25
Urri Urizar - Miren Antxia / Maite Fraile - Maite Otxoa	8-25
Ainhoa Galfarsoro - Agurtzane Elkoro / Lur Delgado - Lierni Zangitu	19-25
Nagore Martin - Laura Saez / Miren Argi Zeziaga - Iratxe Bravo	0-25
Amaia Bolinaga - Maite Txintxurreta / Naiara Amezua - Anais Fernandez	10-25
Lur Delgado - Lierni Zangitu / Naiara Amezua - Anais Fernandez	25-20

BIHARKO PARTIDUAK

09:00 Larraitz Iñurrategi - Olatz Pagaldai / Anabel Aranzadi - Marijo Bastardo
09:30 Oihana Mata - Leire Valle / Miren Argi Zeziaga - Iratxe Bravo
10:00 Rosa Ojuel - Lore Martinez Axpe / Nagore Martin - Laura Saez
10:30 Ainhoa Galfarsoro - Agurtzane Elkoro / Amaia Bolinaga - Maite Txintxurreta
11:00 Maite Fraile - Maite Otxoa / Ariane Unanue - Ibone Arrieta
11:30 Oihana Irazu - Anabel Mondragon / Ariane Unanue - Ibone Arrieta
12:00 Urri Urizar - Miren Antxia / Oihana Irazu - Anabel Mondragon

Hauteskunderi begirako parte-hartze saioa egingo du EH Bilduk bihar

M.A. | ARETXABALETAKO

Aretxabaletako aldatzen (h)ari gara izenarekin parte-hartze saioa egingo du EH Bilduk bihar, otsailak 7, Arkupen, 10:00etan. Batzar irekia izango da eta interesa duten herritar guztiek parte hartu ahal izango dute.

Bi gai izango dituzte ardatz: batetik, Udalaren balorazioa

egin dute; eta bestetik, agintaldiko programarako ekarpenak jasoko dituzte.

Batzarraz gain, beste bide batzuk ere zehaztu dituzte harremanetan jartzeko. Mezu bat bidalita helbide elektronikora: ehbilduaretxabaleta@gmail.com; eta Twitter bidez: [@ehbilduaretxabaleta](https://twitter.com/ehbilduaretxabaleta).



Pausoka

25 urteko bidea
pauzoz betetzen

0-3
urte

943 77 03 77
pausoka@euskalnet.net
www.pausoka.eu

Belorrieta 8
20550 Aretxabaleta

Etorri eta ezagutu!

Izen-emate epea: Otsailaren 2tik 13ra (barne)

Bulego ordutegia: 09:00-14:00 / 16:00-18:00

zeuria
zeuena
geuria

Plan Orokorrak aldaketak eragingo ditu katastroan

Lurzoru ez urbanizagarrietako landaketak arautu dituzte

JOKIN BEREZIARTUA | ARAMAIO

Udalak aditzera eman duenez, 2014ko otsailaren 12an indarrean sartu zen Aramaio Hiri Antolamendurako Plan Orokorrak eragina izango du katastroan hiri-lurrak eta landa-lurrak dauzkaten mugetan. Katastroa ondatsun higiezin zentsuari deritzo, lursailen mugak eta bestelako ezaugarriak zehazten dituena. Bertan, lursailen eta eraikinen balioen kalkulua egiten da, bertan oinarrituta horiei dagozkien zerga kalkulatu ahal izateko. Hala, katastroa Plan Orokor berri-rra egokitzeko Arabako Foru Aldundiak prozedura abiatu du eta une honetan jendaurrean dago, Aramaio Udalaren bulegoetan, interesdunek espedientea aztertu eta alegazioak jar ditzaten.

Landaketak arautzen

Era berean, lurzoru ez urbanizagarriko eremuetan egin daitezkeen landaketak arautu ziren Plan Orokorra indarrean sartu zenean. Orain, berriz, Udalak landa daitezkeen zehaztu du. Izan ere, gune batzuetan edozein motatako landaketak baimentzen dira eta beste batzuetan landaketarako zenbait baldintza zehaztu dituzte. Gunearen arabera zehazten zerrendak Udalaren webgunean daude zehaztuta. Lurzoruen batek zerrenda horretan jasotzen ez



Ibarrako ikuspegi orokorra, eguaztenean ateratako argazkian. | LARRAITZ ARRIOLABENGOA

den beste zuhaitz edo zuhaixkaren bat landatu nahi badu, udaltxean eskatu beharko du horretarako baimena. "Udalak kasu bakoitza banan-banan aztertuko du landaketarako baimena eman aurretik", adierazi dute.

Orain, Gorbealdeko Koadrila

Bestalde, Aramaio kide den Arabako Koadrilak izenez aldatu eta, Zuiako Koadrila barik, Gorbealdeko Koadrila izatea gura dute udalerriek. Arratzua-Ubarrundia, Legutio, Urkabustaiz, Zigoitia eta Zuiarekin, aho batez onartu dute aldaketa, eta orain, dagokion prozedurari ekingo diote: Araba-

ko Aldizkari Historiko Ofizialean (ALHAO) akordioa argitaratzea, egunkarian iragartzea, Euskaltzaindiari txosten bat eskatzea eta Arabako Biltzar Nagusiek onartzea. Gorbealdeko Koadrila izenak "hobeto" ordezkatzeko dituela uste dute udalerrietatik, eta gaineratu dute gaur egun bestelako alorretan ere erabiltzen dela izen hori.

Aldaketa hori "naturala" dela diote Zuiako Koadrilatik. Ez da lehen kasua; hala egin dute, esaterako, Kanpezuko Koadrilari Kanpezu-Arabako Mendialdea deituta eta Aguraingoari Arabako Lautada izendapena jarrita.



Manex Agirre izan zen onena Laudioko kanporaketan. | BERTSOZALE ELKARTEA

Lau bertsolari aramaioar domekako kanporaketan

Iker Agirrek, Xabi Igoak, Paula Amilburuk eta Peru Abarrategik Legution abestuko dute etzi (17:30)

J.B. | ARAMAIO

Arabako Bertsolari Txapelketako lehen itzuliko hirugarren eta azken kanporaketa jokatu da domekan Legutioko kultura etxean (17:30). Eta bertan erabakita geratu da lehen itzuliaren sailkapena, bigarren itzuliko hiru saioak osatzeko baliatuko dena.

Aramaioarrek erabateko protagonismoa izango dute etziko kanporaketa horretan, seitik lau bertakoak izango dira-eta: Iker Agirre, Xabi Igoa, Paula Amilburu eta Peru Abarrategi. Lau horiekin batera Asier Rubiok eta Iñaki Vinasprek kantatuko dute.

Manex Agirre onena Laudion

Otsailaren 1ean Laudion jokatu zen lehen itzuliko bigarren finalaurrekoan Manex Agirre

bertsolari aramaioarrek lortu zuen puntuaziorik altuena (351,5 puntu). Hala, Agirrek Zigoitiko kultura etxean jokatu den bigarren itzuliko bosgarren finalaurrekoan abestuko du, otsailaren 28an. Beste bertsolariak puntuazioen zain geratu dira, bigarren saioa non kantatuko duten jakiteko.

Bigarren itzuliko saioak jokatu dira Aramaion -otsailaren 21ean, kultura etxean, 17:30ean-, Zigoitian -otsailaren 28an, kultura etxean, 17:30ean- eta Langraiz Okan -martxoaren 7an, kultura etxean, 17:30ean.

Amaitzeko, final handia martxoaren 21ean jokatu da, Gasteizko Printzipal antzokian (17:30). Bi itzulien puntuazio metaketaren arabera, lehenengo sei bertsolariak sailkatuko dira finalerako.

Txirritolari isiotuta eustea edo itzungitten iztia

KOMUNITATEA GOIENA | NURIA FERNANDEZ DE ARROIABE | ARAMAIO

Txirritola - txirritolia argizaiolari esaten joko Aramaion - isiotu ala itzungi. Horixe da Aramaio Txirritola euskera alkartiak bazkidien eta herriko eragillien artien martxan jarri-

ttako hausnarketiagaz erabagi gura dauena. Edo, hobeto esanda, txirritoliari isiotuta eustia edo itzungitten iztia.

Herritar kopuru polita

Programauta dauzen hiru saietatik lehelena fan zan urtarrila-

ren 20xan egin gauen, eta, esan bihera dau, herritar kopuru polita batu gitzela. Topaguneko ordezkarik bik soziolinguistikaren aldetik zer arlori erreparau biher jakuen azaldu ostien, talde-lanien jardun gauen, euskalzale-sarien egittekuak zehaztu guran.

Hurrengo saia martixaren 4an

Hurrengo eta azkenengo saia martixaren 4an izengo da, udaltxeko osoko bilkuren aretuen, 18:00etatik 20:00etara.

Korrika batzordearen hurrengo saioa otsailaren 10ean

Martitzenean, hilaren 3an, egin behar zuten Korrika batzordearen bigarren saioa, baina, AEK-ko koordinatzaileak bilerara joaterik izan ez zuela-eta, datorren martitzenera, hilaren 10era, atzeratu dute. Kultura etxean izango da (18:30), eta herritar guztiak daude gonbidatuta.

Orixol elkarteak eski irteera antolatu du otsailaren 20tik 22ra

Orixol mendizale elkarteak irteera antolatu du Astunera, otsailaren 20tik 22ra. Izena emateko azken eguna biher da, hilak 7. Prezioa 150 euro da -bazkideek 140 euro- eta kontu korrante zenbaki honetan egin behar da ordainketa: 3035 0161 28 1611005178. Hilaren 20an irtengo dira, 19:00etan.

Santa Ageda batzea ederto, euria egin arren

Bizente Goikoetxea eta Papargorri abesbatzak, Trikitixa Eskola eta Bertso Eskola Santa Ageda batzen irten ziren urtarrilaren 31n. Euriri eta hotzari aurre eginez, baserriko baserri joan ziren eskean; 40 lagunetik gora batu ziren. Iturrieta sagardotegian bazkaldu zuten.



AIZPEA AJURIAGERRA



AIZPEA AJURIAGERRA

Abisu baten baino gehiagoren ondoren... hemen da elurra!

Eguaztenean eskola saioak bertan behera uztea erabaki zuen zuzendaritzak

LARRAITZ ZEBERIO | ELGETA

Eguaztenezetik aurrera gogotik bota du elurra Elgetan, eta ez da erraza izan herriko kaleetan barrena gidatzea edo lanera jais-tea. Eurria eta haizea izan ziren arazo asteko lehen egunetan, eta, horren ondorioz, estreinatu berri-tako semaforo sistema matxuratu egin zen astelehen eguerdian. Eguazten goizerako konpondu zuten, elurteak gogorren jotzen hasi zenerako.

Elurra dela-eta brigadako lan-gileak goizero ibili dira gatza botatzen eta bideak zabaltzen. Eta elurra kentzeko makina gora eta behera ibili da etengabe.

Aste berezia eskolan

Eguaztenean leran joan zen eskolara ume bat baino gehiago. Pozik ziren neska-mutikoak, baina jantoki zerbitzuko bazkaria, egun hartan, Udalak igo zuen. Egoerak



Elurra kentzeko makina, eguaztenean, Domingo Iturbe kalea garbitzen. | NEREA VILLA

txarrera egin behar zuela aurreikusita, eguneko eskola jarduna bertan behera uztea erabaki zuen zuzendaritzak, "funtzionamenduan sortzen diren arazoak neur-tuta eta alerta egoera mantentze dela ikusita", esan zuten.

Merkatariak lasai

Horrelako egunetan herritarrak gustura elkartzen dira tabernan, eta horrela izan da egunotan. Haizea tabernako Xabier Ezpeletaren esanetan, benetako arazo argindarra joatea izaten da.

OHARRAK

IPUINAK LIBURUTEGIAN

Gaur, otsailak 6, 3 urtetik gorako umeendako saioa liburutegian, 17:25ean.

PODOLOGOAREN BISITA

Erretiratuendako kontsulta hilaren 26an izango da.

SAN BLAS, ARANTZETAN

Domekan, hilak 8, meza esango dute San Blas ermitan, 13:00etan.

'HERRI TXIKI INFERNU HANDI' SAIOAN, ELGETA

Domekan, hilak 8, emango dute Euskal Telebistaren lehen katean Elgetan grabatutako *Herri txiki, infernu handi* saioa, 21:30ean.

Argentinako tangoaren pasioa zapatuan Espaloia kafe antzokian

L.Z. | ELGETA

La Porteña Tango Trio taldeak Argentinaren zati txiki bat ekarriko du Elgetara bihar, zapatua. Buenos Aires... *Cuando lejos de ví* ikuskizuna eskainiko dute, 22:30ean. "Musika bizia eta modernoa" iragarri dute. "Kalitatezkoa, dotoreziaz jantzia eta zirrarra eta poesia uztartzen dituen". Mariel Martinezek abestuko ditu tangoak; Argentinan ospe handia duen Gardel saria jaso zuen iaz.



Mariel Martinez. | LA PORTEÑA TANGO TRIO

duen ikuskizunean. Bikote batek dantzatu ditu Martinezek abestutako kantuak. Sarrera hamabi euro da; aurrez erosiz gero, hamar euro.

Musika, kantua eta dantza

Hiru diziplinak landuko dituzte 80 bat minutuko iraupena

Eusko Jaurlaritzak ez du onartu Leintz Gatzagako eskola txikiaren proiektua

Edozein modutan, jangela eta zaintza zerbitzuak udalerrian jartzeko aukerak zabalik ditu ateak

UBANE MADERA | LEINTZ GATZAGA

"Batzar emankorra izan da, baina balorazioa gazi-goza da. Eusko Jaurlaritzak ez du onartu Lehen Hezkuntzari dagokion eskaintza akademikoa -2-6 urte bitartekoa- Gatzagan jartzeko proposamena. Hasieratik bota digute atzera aukera hori. Baina uste dugu onartuko dutela zerbitzu berri batzuk ematen hastea eta gero handitzen joatea. Hain

zuzen, zaintza eta jangela zerbitzuak lortuko ditugula uste dugu".

Martitzenean, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza delegaritzako ordezkariekin izandako batzarretik irten eta berehala egindako balorazioa da horixe, Iñaki Agirreurreta Kultura zinegotziak egindakoa, hain justu.

Halaber, hark jakinarazi du Leintz Gatzagaren Udalaren asmoa dela Eskoriatzako Luis

Ezeiza Herri Eskolako ordezkariekin berba egitea, zaintza eta jangela zerbitzuak ematearen gainean. Eta datozen asteotan argituko direla nondik norako guztiak.

Eguna kanpoan

Izan ere, eta nahiz eta eskola txikia ezin gauzatu, jangela eta zaintza zerbitzuak Gatzagaren-dako garrantzitsuak direla azpimarratu du udal ordezkariak: "Herritar gehienok kanpoan ematen dugu eguna; eta horrek bermatuko luke behintzat 2-6 urte bitarteko umeak hemen geratu ahal izatea, eta gurasoei bermatuko lieke egun osoko zaintza bermatuta izatea".

Agirreurretak gogora ekarri du, gainera, azpiegitura aldetik, Leintz Gatzagako Udala gertu dagoela zerbitzuok eman ahal

izateko beharrezko azpiegiturak lagatzeko eta egokitzeke.

Osoko bilkuran onartu zuen hori udalbatzak; hain justu ere, gaur egungo gela desplazatuaren ondoan dagoen Jakionen bulegoa erabiliko lukete horretarako.

Irakaslea egonkortu guran

Bestalde, Kultura zinegotziak jakinarazi du Leintz Gatzagako gela desplazatua jarduten duen irakaslearen egonkortasuna lortzeko ahaleginak egingo dituztela; eta baita hura Gatzagarekin lotutako hezkuntza proiektuekin inplikatzeko ere.

Gauzak horrela, baikortasunez begiratzen diote etorkizunari, "lanean segitzeko" asmo sendoa-rekin, eta goraipatuta, besteak beste, Gurelek, guraso elkarteak kontu honen bueltan egindako "lan ikaragarria".

FUTBITO TXAPELKETA

AZKEN EMAITZAK

Intxortas Crew - Txapela	1-16
Nahaste Borraste - La Kokotxa	3-7
Jaitxo - Tzibaz United	5-5

SAILKAPENA

TALDEA	P	GOLAK KONTRA	GOLAK ALDE
La Kokotxa	7	10	32
Txapela	7	7	24
Astuan Villa	6	4	29
Nahaste Borraste	3	11	8
Jaitxo	1	9	7
Tzibaz United	1	20	13
Intxortas Crew	0	56	4

PARTIDUAK, 4. JARDUNALDIA

Astuan Villa - Nahaste Borraste
Jaitxo - Intxortas Crew
Tzibaz United - La Kokotxa

La Kokotxa jarri da aurretik sailkapenean

Astuan Villa taldeak atsedean hartu zuen asteburuan, eta La Kokotxa jarri da aurretik sailkapenean. Asteon, Txapelak du jai.

Alex Ferrer nagusi goleatzaileen zerrendan

Alex Ferrer, Mikel Beretxinaga eta Haritz Gallastegi dira aurretik txapelketako *pitxitxi*-en taulan. Hamaika gol sartu ditu Ferrerrek, hamar Beretxinagak eta bederatzi Gallastegik.



L.Z.

Santa Ageda bezpera, zuri-zuri

Eguenean, otsailak 4, Santa Ageda bezpera eguneko koplak abestu zituzten Herri Eskolako neska-mutikoek. Mara-mara ziharduen elurra Elgetan, eta bertan behera utzi zuten urteroko ibilbidea. Horren ordez, eskolako ganbaran abestu zituzten koplak irakasleen eta gurasoen laguntzarekin.

Oxel Erostarbe alkatea elkarrizketatuko dute martitzenean, 22:00etan, Goiena telebistan

Debagoieneko alkateekin egin ohi duen *Harira* saioa emango du datozen asteotan Goiena telebistak, eta Elgetako alkate Oxel Erostarbe izango da elkarrizketatua martitzenean, hilak 10, 22:00etan. Eneko Azkarate kazetariaren galderak erantzungo ditu Erostarbek ordu erdi iraungo duen saioan. Erostarbek alkatetzan egin dituen bi agintaldiak izango dituzte hizpide, baita 2015erako Udalak aurreikusita dauzkan egitasmoak ere.

Gaurko hitzaldia atzeratu egin dute, eguraldiarengatik

Leintz Gatzagako Korrika Batzordeak antolatuta, gaurko, egubakoitza, Martin Mendizabal Arantzazuko frantziskotarra eta Gatzagako parrokoa hitzaldia egitekoa zen Labidean. Bada, egunotako eta gaurko iragarritako eguraldi petralak eragin ditzakeen zailtasunak ikusita, atzeratu egin dute ekimen hori. Oraingoz, ez diote data berririk jarri; hala egiten dutenean, jakinaraziko dute. Hiru gairen gainean berba egingo du Mendizabalek: 1548ko Leintz Gatzagako Udalaren erabakiak eta haiek gaur egun izandako eragina; Dorletaren jatorria eta baserrien izenak.

KIROLA

TXIRRINDULARITZA

Ivan Velasco / Markel Irizar | Caja Ruraleko ziklista ohia / Trek taldeko ziklista

"Txirrindularitzaren ostean zer? Beldur apur bat ematen du..."

Profesional izateari utzi dio Ivan Velascok, eta lagunak errepidetik kanpora jarraituko ditu denboraldi berrian; tartean, Markel Irizar laguna

XABIER URZELAI | ARRASATE

Badira hilabete batzuk Ivan Velascok agur-gutuna idatzi zuenetik. Zaleengandik agurtzeko idatzi zituen lerroak, etxekoei eskerrak emateko, eta baita profesional moduan egin dituen bederlatzi urteetan ondoan izan dituen taldekide eta lagunak aitortzeko ere. Baina, batez ere, terapia egiteko aprobeztatu zuen gutuna, erabaki gogor bat barneratzeko pauso modura. Eta prozesu horren testigu izan da ondoan duen laguna, Markel Irizar. Trek-eko ziklistari oraindik kilometro asko geratzen zaizkio hanketan, baina badaki Velasco pasatzen dabilen prozesua lehenago edo geroago pasatu behar duela, eta horrek beldur apur bat ematen diola onartu du. Gaur, ez dute lasterketen gainean askorik berba egingo.

Ivan, ze moduz?

Velasco: Orain ondo, bai. Baina une gogorak pasatu ditut. Lesiotik ondo errekuperatu gura nuen, baina ikusten nuen ez nuela lasterketetan ibiltzeko maila errekuperatuko. Agur-gutuna idatzi baino hilabete batzuk lehenago banekien ziklismoa utzi behar nuela, baina gutuna idatzi ostean lasaitua hartu nuen, bakean nago nire buruarekin.

Pisua gainetik kenduta.

Velasco: Bai, gutuna idatzita, publiko egin nuen erabakia, eta, hain zuzen, erabakia barneratzeko beste pauso bat izan zen.

Irizar: Sorpresaz harrapatu ninduen gutunak. Goizean elkarrekin egin genituen hainbat ordu bizikletan, eta Ivanek ez zuen ezer komentatu. Eta etxera iritsi eta umeak jasotzera joan nintzenez, taldeko Whatsappean hasi nintzen erantzunak jasotzen, ordurako eskutitza komunikabideetan zegoen.

Eta, Markel, zelan ikusi zenuen lagunaren erabakia?

Irizar: Poztu egin nintzen, baina, batez ere, gutuna oso ondo idatzita zegoelako, detaile askorekin, eta ondoan izan duen jende askorekin gogoratu zelako. Gutun hark ondo erakusten zuen Velasco zelakoa den, eta ikusten nuen erabakia publiko egiteak on egingo ziola.

Entrenamenduetako lagunaren hutsunea igarriko duzula esan behar nizun, baina zuekin jarraitzen du grupeta-n.

Irizar: Aurrekoan ibili nintzen kontuak egiten. Hamaika urtez ibili gara batera entrenatzen, gure bizitzaren heren bat. Baina orain, eguraldiak ez duenean laguntzen ez da etorriko. Bihar [eguztzena], esaterako, Hondarribira joan behar dut bizikletan ibili gura badut, eta bakarrik joan behar dut.

Ez dakit zer pentsa... abenduaren 31, goiza, Elorregin hiru gradu zero-petik eta zoro bat bizikletan. Velasco zen...

Velasco: [Barre] Egun horretan bizikletan ibiltzeko ohitura dugu, urtero elkartu izan gara, eta aurretik ere Ametsekin [Txurruka] eta beste hainbatekin ibili nintzen. Lau ordu egin genituen. [Barre] Irizar: Aurrekoan saio luze bat egin nuen arrabolan (errodillean), bizpairu ordu, eta ez zait batere gustatzen, baina, txarra egiten duenean, ez dago besterik. *Velasco*

"Orain ondo nago, baina hilabete gogorak pasa ditut erabakia hartzeko"



Irizar eta Velasco, Euskalteleko sasoiak, 2007an, Monterronen. | XU.

kin komentatu eta goizean bera ere pare bat orduz-edo ibili zela. Hau burutik eginda dago!

Velasco: Baina oso garbi daukat oraingo grupeta-rekin bizikletan ibili nahi badut, entrenatzen jarraitu behar dudala. Eta bestalde, 24 ordu ditut niretako!

Eta ez da izango hobe grupeta-z aldatzea? Batez ere, lasterketetik inbidiarik ez pasatzeko.

Velasco: Emaztearekin berba egin izan dut horretaz, batzuetan grupeta-rekin bizikletan ibiltzetik etorri eta txarto sentitzen nintzelako. Baina banekien prozesu horretatik pasatu behar nuela, eta, gainera, oso gustura ibiltzen naiz eurekin.

Elkarrizketa egoera triste batetik abiatu dugu, baina bederlatzi urtez egon zara elitean, gaztetako ametsa betetzen, eta munduko lasterketa onenetan parte hartzen.

Velasco: Bai, eta horrekin geratzen naiz, zalantza barik. Gogoan dut, esaterako, Markelekin batera parte hartu nuen lehenengo Giroa. Akaso, lasterketa hori da gehien gustatu izan zaidana, bai-

na Dauphine, Euskal Herriko Itzulia, Tourra... Lasterketa onenetan izan naiz, eta nire ametsa bete dut. Gertatzen dena da izugarri gustatzen zaigula gure lanbidea, eta pena ematen duela lesio batengatik utzi behar izatea. Ziklista asko nekatu egiten dira, eta bizikleta uztea erabakitzen dute. Uste dut ni ez nintzatekeela sekula ere nekatuko, eta Markel ere ez. Eta hori emazteak sarritan esaten didala ziklismoagatik zenbat sufritzen ikusi nauen, erorikoengatik batez ere. Baina momentu gogor horiek berehala ahazten ditut, eta une gogoangarriekin bakarrik geratzen naiz. **Markel, ez dut esango zuk ere erretiroa gertu duzunik, baina jada ez zara tropeleko gazteena [35 urte bete zituen atzo].**

"Gurako nuke ziklismoaz lotura duen zerbaitetan jardun"



Aste honetan ofñatiarra etxean dagoela aprobeztatu.

Irizar: Azken urtean bizikleta gainean Ivanek eta biok askotan izan dugun elkarrizketa da hau: zer egingo dugu bizikleta uzten dugunean? Eta uste dut oraindik ez naizela jabetzen zelako *shock-a* izango den niretako.

Velasco: Sarri esaten diot hori, ez dela jabetzen zenbateraino igarriko duen txirrindularitza faltan. Irizar: Azken batean, hauxe da egiten dakigun gauza bakarra, eta egun batean esango digute ezin dugula jarraitu. Eta *Velasco* ikusten dut, eta konturatzen naiz uste nuen baina gogorragoa izan behar duela. Guretako erraza da txirrindulari izatea; gezurra dirudi hori horrela esatea, baina egia osoa da, eta txirrindularitzaren ostean zer egongo den pentsatzen hastean... beldur apur bat ematen dit. Izugarri gustatzen zaidan gauza bat egiteari utziko diot. Horregatik, beti diot ahalik eta gehien luzatu gura dudala nire kirol ibilbidea. **Are eta gehiago, gustura zauden leku batean egonda.**

Irizar: Zalantza barik. Kontratua berritzea egokitu zenean, nire ordezkariari garbi esan nion ez

28 | PILOTA | Agur eta ohore 1955. eta 1956. urteetako buruz buruko txapeldunari



atuta elkarrekin gosaltzeko aprobetxatu zuten Irizarrek eta Velascok martitzenean. | XABI URZELAI

nuela beste inora joan nahi, lortzeko Trek-en ahalik eta baldintza onenak, baina ez hasteko talde bila, ez gastatzeko energia horretan. Hala, nahi nuen taldean, giro onarekin eta ondo baloratuta egonda... gogorra izango litzateke hori kentzea. Tarteka esaten dut prest nagoela momentu hori iristen denerako, baina ez da egia. Demaseko takatekoa hartuko dut. Velasco: Hori da ziklismoa izugarri gustatzen zaigulako, fanatikoko hutsak gara. Norbaitek bi urtez jarraitzeko aukera eskainiko balit, eta trukean lanpostu on bati uko egin beharko banioke, ez nuke birritan pentsatuko, bizikleta aukeratu nuke. Garbi daukat lantegi batean lanean ibiliko banintz, zortzi orduak bete ostean ez nintzatekeela bizikletatik jaisten naizen bezain pozik etxeratuko. Txirrindulariak denbora luzea egiten du kanpoan, baina, etxera etortzean, beste intentsitate batekin bizitzen dugu dena.

Irizar: Gure lanbidea zelan bizi dugun, hor dago gakoa. Eta beste gauza bat dut argi, goi mailako kirolariok, eta ez bakarrik profe-

sionalok, berekoiak gara. Gehiago esango dut, zenbat eta kirolari hobe, orduan eta berekoiagoa. Benetako *killer*-ak halakoxeak dira, tristea izango da, baina hala da. Guk gure buruan baino ez dugu pentsatzen: ondo entrenatu, ondo deskantsatu... eta beste guztia ondoren datorrenez, ba, ingurukoek egin behar dute norberak egiten ez duena. Nik beti diot gure ondoan bizi izatea ez dela batere erraza. **Bestalde, baina, ilusioari eustea, hori ere ez da izango erraza.**

Irizar: Jendeak gazteek duten ilusioaren gainean egiten du berba. Eta ni gaztea nintzenean baino gehiago gozatzen nabil; lehen, sufritu egiten nuen asko. Euskaltelera minbiziagatik iritsi ez nintzela erakutsi beharra, horrek sortzen zidan antsietatea... Pre-

"Izugarri gustatzen zaigu gure lanbidea, fanatikoko hutsak gara"

sioa baino ez nuen, eta, bueno, gauza horiek aspaldi gaintitu nituen. Hamabi urtez lanbide honetan banabil, pentsatu nahi dut pedalei ondo eragiten diedalako dela, eta, egia esan, gaur egun... gainontzekoen esamesek bost axola.

Ivan, diozu orain 24 ordu dituzula zuretako.

Velasco: Bai, eta konturatzen naiz bizimodu hau oso poliki doala. Lehen, 24 orduz egon behar nuen txirrindularitzan pentsatzen. Eta orain egun osoa dudanez niretako, etxekoekin gehiago egoteko aprobetxatzen dut. Egia esan, seme-alabei esker beste modu batera eraman dut prozesu hau, euren irribarre batekin dena ahazten da-eta.

Irizar: Umeek asko laguntzen dute halakoetan, une gogorak daudenean. Bada ziklista bat, izenik ez noa esatera, depresioarekin dabilena. Emaztea hegazkineko zerbitzaria da eta kanpoan egoten da luzaroan, eta, bitartean, bera etxean bakarrik. Bada, seme-alabak izanda, denbora laburragoa izaten da norberaren ara-

zoetan pentsatzeko. Goizean jai ki, haurrak ikastolara eraman, ondoren jaso... Eta beste poztasun bat ematen dute.

Badakit Markeli bizikleta gainean egiten dituen orduetan etorkizunerako ehunka proiektu etortzen zaizkiola burura. Eta Ivan, zuri?

Irizar: Ehunka? Bakarrik? [Barre] Velasco: [Barre] Oraindik ez dakit nire etorkizuna nondik bideratu, hori da egia. Ingelesa ikasten nabil eta banabil beste ikasketa batzuk egiten. Gustatuko litzaidake ingeniari arlotik zerbait egin [ingeniari ikasketak ditu], baina txirrindularitzarekin harremana duena. Oraindik ez dut argi, baina sentitzen dut zerbaitetan hasi behar dudala, ezin dudala geldirik egon.

Markel, Mallorcan entrenatzen egon

"Eliteko kirolariok oso berekoiak gara, eta 'killer'-ak are eta berekoiagoak"

zarete lehenengo, eta lasterketen denboraldia bertan hasi duzue. Pozik etorri zara handik.

Irizar: Bai, sentsazio onekin. Gaur egun txirrindularitzan dena dago neurtuta: norberaren pisua, wattak... Eta nik hara joan aurretik banekien ondo nengoela, baina, badaezpada ere...

Velasco: Markelek segurtasun hori behar du, ondo ezagutzen dut. Taldearen lehenengo kontzentrazioa iristen da eta Markelek ikusi behar du taldeko lehenengoa edo bigarrena dela. Irizar: Izan ere, gure taldean kontuan hartzen da jendea lehenengo kontzentrazioa zelan iristen den. Esaterako, Flandriarako postu batzuk finkoak dira eta beste batzuk sasoiaren arabera erabakitzen dituzte. Eta, akaso, ni finkoetako bat izango naiz, baina badakitelako nik ordurako entrenamenduak bideratuta izango ditudala.

Apirilean duzue lehen azterketa.

Irizar: Bai, Flandriako Tourra eta Paris-Roubaix oso garrantzitsuak dira guretako, Tourra gero, eta Munduko Txapelketako taldekako erlojupekoa azkenik. Iaz Fabianek [Cancellara] hainbat arazo izan zituen eta ez zuen urte onik egin, eta, hala ere, Paris-Roubaix irabazi zuen. Aurten, oso ondo ikusten dut.

Haren ondoan egotea dagokizu orain. Taldeko liderra da; laguna ere bai?

Irizar: *Velas* da laguna, Fabian taldekidea da, taldeko liderra errepidean, eta handik kanpo. Nire nagusia dela esan dezaket, eta asko zor diot, bere konfiantzako taldean nagoelako. Baina oilarra da, eta liderrek halakoak izan behar dute; adibidez, presio galanta dutelako.

Debagoieneko OSASUN ZERBITZUAK



AKUPUNTURA

INTEGU

Arrasate / Uarkape 18, behe, ezk / 943 77 13 34

ALBAITARIAK

ETXEBERRIA JULIO

(DEBAGOIENeko ALBAITARI OFIZIALA)

Bergara / 609 54 16 13

DENTISTAK

ANE LASAGABASTER

Arrasate / Otorora lizentziaduna 18 solairu artea ezk.
943 79 13 68

AGIRRE HORTZ KLINIKA

Bergara / Ibargarai 9-1B / 943 76 00 23

ARANBURU HORTZ KLINIKA

Bergara / Telesforo Aranzadi 1 / 943 76 02 46

ARRASATE HORTZ KLINIKA

Arrasate / Erdiko kale 50 / 943 79 72 23

ARREGI HORTZ KLINIKA

Arrasate / San Bixente Ferrer 1, behe / 943 79 71 90

BERGARA HORTZ KLINIKA

Bergara / Bidekurutzeta 36, behe / 943 76 05 77

CAVIGLIA SILVANA

Bergara / Simon Arrieta 3-2B / 943 76 38 54

GOROSABEL J. ALBERTO

Bergara / Fraiskozuri 5A, 1D / 943 76 56 88

IRIARTE ANE MAITE / ITZIAR ARANDO

Arrasate / Iturriotz 7 - 1 / 943 79 69 45

IRIARTE IDOIA

Bergara / Artekale 1-1C / 943 76 01 65

Elgeta / Torrealdea 2 behe ezk. / 943 76 80 06

MAZMELA BOLINAGA ENRIKE

Eskoriatza / Gorosarri J. plaza 3, 1. esk / 943 71 47 36

SAINZ MALKORRA ANA

Antzuola / Herriko Plaza 4 / 943 78 71 69

DERMATOLOGIA

TAMAYO CONCEPCION

Oñati / Atzeko kalea 6 behe

620 12 48 43 / 943 71 61 82

ENTZUMEN ZENTROAK

INSTITUTO OPTICO AUDITIVO - FONALIA

Arrasate / Erdiko kale 22 / 943 79 71 68

ERREUMATOLOGIA

GOROSARRI ZUBIZARRETA, XABIER DOKTOREA

TROJAOLA ZULUETA, LURDES DOKTOREA

Arrasate / Zaldibar kalea, 1-1 / 943 77 00 40

HOMEOPATIA

AMAIA IRIARTE (MEDIKU HOMEOPATA)

Arrasate / Nafarroa etorbidea 11

943 08 11 00 / 695 78 19 21

KIROPRAKTIKA ZENTROA

LARRAÑAGA ANDREA

Arrasate / Aprendices 2 / 943 79 92 83

LOGOPEDIA

PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA

Arrasate / Inazio Zuloaga 10 / 943 79 48 77

MASAJISTAK

AZPEITIA IRUNE

Bergara / Ibargarai 44, behe / 943 76 73 43

NEUROLOGIA

AGUSTIN SAGASTA (AITA MENNI OSPITALEA)

Arrasate / Uribe auzoa 13-14 / 943 79 44 11

OPTIKAK

BEGIONDO OPTIKA

Aretxabaleta / Loramendi 10 / 943 79 98 21

ORTOPEDIA

MARIA VICTORIA ANITUA

Aretxabaleta / Belorrieta auzoa 1 / 943 08 11 43

OSASUN-DIAGNOSTIKOAK

UDALAITZ MEDIKU-ZENTROA

(ERRESONANTZIA MAGNETIKOA)

Arrasate / Nafarroa Etorbidea, 3 / 943 79 44 22

OSTEOPATIA

BENGOA NEREA

Arrasate / Erdiko kale 22, 3 ezk / 659 58 66 89

PODOLOGOAK

ERDIKO KLINIKA PODOLOGIKOA

Arrasate / Erdiko kalea 54, behe esk. / 943 79 97 46

IKERLEKU PODOLOGIA ZENTROA

Bergara / Ikerleku zeharbidea z/g / 943 76 07 84

OINEZ PODOLOGIA KLINIKA

Aretxabaleta / Belorrieta 10 / 943 79 16 45

PSIKOLOGOAK

GARMENDIA LANDER

PSIKOLOGO KLINIKOA - PSIKOTERAPEUTA

Arrasate / Obenerreka 2, 7H / 943 79 35 86 / 669 10 13 93

NUÑEZ TXOMIN

Arrasate / Olarte 10 / 943 79 88 16

PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA

Arrasate / Inazio Zuloaga 10 / 943 79 48 77

VICENTE HUESO PSIKOLOGO KLINIKOA

(AITA MENNI OSPITALEA)

Arrasate / Uribe auzoa 13-14 / 943 79 44 11

PSIKIATRIA

IÑAKI MADARIAGA (AITA MENNI OSPITALEA)

Arrasate / Uribe auzoa 13-14 / 943 79 44 11

YOGA

SAMADHI YOGA

Bergara / Masterreka 13, behe

943 76 11 38 / 639 23 57 53.

KULTURA



laz abiarazitako *Da* biraren barruan Zea Mays taldeak Oretetan egin zuen emanaldia. | ZEA MAYS

Zea Mays-en 'Da' bira Oñatiko gaztelekuan gaur

- ▶ 23:00etan egingo duten kontzerturako sarrerak zortzi eurotan salgai
- ▶ Taldearen zazpigarren lanak zaleen gosea asetzen jarraitzen du

AITZIBER ARANBURUZABALA | OÑATI
Orain dela bi urte izan zen Zea Mays *Era* lanarekin Oñatiko gaztelekuan, eta gaur, egubakoitza, *Da* diskoarekin itzuliko dira bilbotarrak Oñatira. "Oso gustura egon ginen orduan; kontzertuak egiteko oso areto ona da Oñatiko. Zaleek gozatu egin zuten, eta gaurko kontzertura ere asmo horrekin goaz, elkarrekin ondo pasatzera", esan du Aiora Renteriak, taldeko abeslariak.

Oñatiko gaztelekuan egingo duten gaurko emanaldirako sarrerak zortzi eurotan eskura daitezke leihatilan, 22:00etatik aurrera.

Urtebete 'Da' diskoarekin

"*Era* lanaren ondoren, zerbait berezia egin gura genuen, jendeak horrela eskatzen zigulako. *Negua joan da ta* kantuari arrakastaren ostean, ezin ginen atzean geratu, eta horregatik jo genuen Dave M. Allenengana, The Cure taldearen ekoizlearengana. Asmatu egin genuelakoan gaude, buruan geneukan diskoa egitea lortu genuen-eta. Gelditu gabe



Ruben Gonzalez, Aiora Renteria, Asier Basabe eta Iñaki Imaz. | ZEA MAYS

ibili gara han eta hemen kontzertuak egiten, eta, urtebeteren ondoren ere, horrela jarraitzen dugu. Irratietan, oraindik ere, presentzia handia dute lan horretako kantuek. Gozada hutsa da!", dio Renteriak.

Iaz Elgetan eta Arrasaten egin zuten moduan, gaurko emanal-

dian ere *Da* diskoa izango dute oinarri. "Esan behar da, baina, *Da* birarekin hasi ginenean baino, beste diskoetako kantu gehiago jotzen ditugula orain. Abesti batzuk zerrendatik kentzea pentsazina da; *Negua* eta *Elektrizitatea*, esaterako; jendea haserretu egingo litzateke-eta. Beste

ESANAK
"Osasuntsu gaude, baina ez da, oraingoz, disko berririk"
AIORA RENTERIA | ZEA MAYS

talde batzuen bertsioak ere egingo ditugu gaur, gauza berriak egiten ikasteko aukera ematen dute-eta bertsioek. Azken baten, kontzertu borobila eman nahi dugu; hau da, hasteko, sentimenduak eta burua mugiarazi, eta dantzarako espazioa bilakatu bukaeran".

Ibilaldiaren kantua, eurena

Laster beteko duten 20. urteurrena ilusioz prestatzen ari direla diote; eta taldea osasuntsu dagoen arren, disko berrirako data zehatzik ez dutela gaineratu dute, bidean aurkitutako proiektu txi-

IKUSPUNTUA

FERMIN ETXEGOIEN
MUSIKATEA
SAIOKO
ZUZENDARIA



Talde hiritarra, baina auzokoa

Artoa, bai, artoa da Zea Mays-ek esan nahi duena, izendapen ez hiritar bat, beraz, baina horregatik ere izan da inportantea Zea Mays, duela hogeita urte, taldea sortu zutenean, euskara bera ez zelako egun bezain hiritarra – Bilbon- eta are gutxiago auzotarra, bai horixe, baina Zea Mays taldeak oso ongi islatu edo adierazi izan du ezaugarri bikoitz hori, talde hiritarra bai eta auzo batekoa –edozein- ere bai, baina kontxo, euskalduna zen!, ordura arte, Bilbon, auzoko bizipenak ez baitziren modu horretan, nago, adierazten, Zea Mays-ek, ordea, hasieratik, arlo pertsonalari garrantzi handia ematen ziolako, esan nahi baita, hiri ez txiki bateko auzo handi bateko etxebizitza-bloke horietariko batean bizi den –imajina dezagun- gaztea, kanpoan den mundu horrek erakarri bat, baina baita beldurtu egiten duena ere, ba horretarako sortzen da, besteak beste, Zea Mays, gazte-post-nerabe horren minak eta ezinak, norberaren logela txikian egosten diren horiek, rock kantu modura emateko eta auto-afirmazio mezu modura zabaltzeko, irtengo naiz, egingo dut, negua joan da ta.

kiagoei ere erantzun guran: "Kontzertu gutxiago egingo ditugu aurrerantzean. Lokalean sartuko gara gauza berriak sortzeko. Hila-bete honetan aurkeztuko dugun aurtengo Bilboko Ibilaldiaren kantuari ari gara orain".

Gaztelekuak ere 20 urte

Gaurko emanaldirarekin abiatuko dituzte Oñatiko gaztelekuaren 20. urteurreneko ospakizunak. "Askotariko ekintzak antolatuko ditugu. Otsailaren 28an, esaterako, Kubako Ray Fernandez trobadorea eta haren taldekideak izango ditugu. Kubatarrek hainbat *bolo* egingo dituzte Euskal Herrian eta gurean izango da estreinakoa", azaldu du Jon Lopezek, Oñatiko Gazte teknikariak.



Bergarako gaztetxean aurkeztu zuten azken lana arrasatearrek, urtarrilean. | JOSETXO ARANTZABAL

Badoa... baina badirau

Ain_1 musika taldeak agur-kontzertua egingo du gaur Eskoriatzako Zaldibar antzokian (22:30)

KOMUNITATEA GOIENA |
AIN_1 MUSIKA TALDEA | ARRASATE

Badira hilabete batzuk berriz ere oholtzara igo eta bertatik agurtu zintuztegunetik. Agurtu, geroago, berriz ere, agur esateko.

Entzuleei, ikusleei, lagunei, gertukoenei eta denborarekin gerturatu direnei eskerrak, hasieretako gure keinu lotsatiak, ausardiaz betetako hitz potolo bihurtu ditugu. Hitz horiek musikaren

eltzean nahastu eta sorginen leize bat baino gehiagotan abestu izan dugu, *lizun, eta biluts gorri*.

Gure edabea izan den mandragorak irribarre gaiztoaren bat sorrarazi badizue, malko edo algararik sortu badizuegu, hori zen gure asmoa.

Ahaleginak egin ditugu *txanogorritxo izateari utzi eta kaputxa gorriak* jantziko dituzten emakumeei keinu egiteko. Baita gure amandreak omendu edo

bizirauteko *gure motxilei pisua kentzeko* ere. Horretarako bultzadaxorik noizbait eman badugu, edo lortu ez badugu ere, hala zen gure asmoa.

Beraz, gure eskerrik beroenak zuoi, guztioi eskaini, eta malko zein algara artean agurtuko gara gu ere, elkarri eman eta jasotakoak badirauek, iraungo due-lako. Eta *maitasun honek iraun artien, ilargi gorrixen alde ezkutu-en elkar topatuko dugu*.

Badoa... baina badirauen esperoan... eskerrik asko, eta gero arte!

Herrixa Dantzan saio berezia Sergio Cobosekin Bergaran, Zabalotegin

I.G. | BERGARA

Domeka honetan Bergarako Zabalotegi aretoan egingo den Herrixa Dantza saioa berezia izango da. Ohiko dantzez gain, maisu berri bati esker beste dantza batzuk ikasteko aukera egongo da.

Sergio Cobos maisua

Galiziako eta Portugalgo kultura, dantza eta musika ongi ezagutzen

ditu Sergio Cobos. Egun haue-tan Euskal Herrian dagoela aprobetxatuz, Patxi Monterok gonbita egin, eta Cobos domekako saioa (19:00) gidatuko du.

Saio berezia izanda, eta gonbidatuari ere ordaindu behar zaionez, egun horretan Bergarako aretoa dantza egiteko gogoz joaten direnek bost euroko sarre-ra ordaindu beharko dute.



Sergio Cobos dantza maisua. | H.H.

Vicente Iriondoren lengoaia piktorikoa Aroztegi aretoan

Eibarko pintoreak, lehen aldiz, bere margo abstraktuak erakutsiko ditu Bergarako aretoan


I.G. | BERGARA

Batzuk akuarelan eginda, besteak arrautza tenplean. Bai paperean, eta baita oihalean ere: koloreei argitasun guztia azaleratzen die Vicente Iriondok.

Margolari eibartarrak mihi-sean adierazten duen guztia hitzez esaterik izango balu, hizkuntza

berri bat izango litzateke. Bere ibilbidean zehar, bere lana osatzen joan da.

Hasieran landutako irudi figuratiboak, egun ikusten ez diren arren, ez dira guztiz desagertu. Ikusleak kolore eta marren atzean zerbaiten antza duten irudiak ikusiko ditu.



Vicente Iriondo margolari eibartarra. | ...ETA KITTOI

Irudimenaren leihoak

Iriondoren lanak figuratiboak ez izan arren, ez dira guztiz abstraktuak. Margolariak guztiz irekiak dauden leihoak margotzen

ditu, baina, aldi berean, beste aldean dagoen hori lerro kromatikoa ugariren atzean ezkutatu du. "Baliteke zera hori entitaterik gabeta izatea", dio.

Lagunartean grabatu du Governorsek DVDa

Taldekideek data zehatzik eman ez duten arren, lana bi hilabete barru kalean izatea espero dute

I.G. | ARRASATE

"Ezinezkoa hitz batean laburtzea pasa den astean taula gainean sentiarazi zenigutena", horrela laburtzen du Governors taldeko baxu-jotzaile Jorge Morok joan den zapatuko kontzertua.

Disko berri batek sentipen bereziak sortzen ditu, baina zapatukoa ez zen aurkezpen soila izan. "Zale eta lagunei eskaini nahi gehien, eta hortik dator zuzeneko DVD bat grabatzeko ideia", esan du Morok.

Batzar polita

Bada, eguraldiak ez lagundu arren, jendeak ez zuen hutsik

egin. "Euskal Herri osotik etorri zen jendea, eta horri izugarritzko balioa ematen diogu", aipatu du.

Zaleez gain, bidelagun izandako musikari ugari igo ziren Bilboko Santana27 aretoko ohol-tzara. "Aitor Antruejo eta horren bogan dagoen Zuriñe Hidalgo gurekin izatea izugarria izan zen", dio Morok.

Zuzenekoaren ostean, teknikariak hasi dira atzeko lana egiten. DVDa kalean egoteko data zehatza ematerik izan ez arren, taldekideek bi hilabete barru lana jendearen esku egotea espero dute.



Santana27 aretoan emandako kontzertua. | GONTZAL GARATE

Edu Muruamendiaraz koreografoak bere maskarada modernoa taularatuko du bihar

I.G. | BERGARA

Kompany Beritzak dantza taldeak ezinezkoa posible egin du *Bakuna Show* ikuskizunarekin, maskarada Zuberoatik atera eta arrakasta handiarekin eguneratu du-eta.

Tradizio eguneratua

Bide konplexu horretan, dantza konpainiak Edu Muruamendiaraz laguntza izan du. Berga-

rakoak ohitura gaurkotu du, zuberotarren aurrerapausoekin ikuskizun koloretsua sortuta.

Zapatu hotz honetan, usadioaren berotasunak beteko du Victoria Eugenia antzokia, 20:00etan. Ikuskizuneko sarre-rak 6 eta 15 euro artean eros daitezke. Ikuskizuna aurkeztuko duten egun berean, San Telmo museoak Zuberoari buruzko erakusketa bat hartuko du.

Iriondok, erakusketa baino gehiago, jolasa eskaintzen dio ikusleari. Kritikok esandakoak entzun gabe, ikusle bakoitzarengan sortzen dituen sentipenak dira bere helmuga.

Ibilbide oparoa

Iriondok Ingeniaritza Mekanikoa ikasi zuen arren, gaztetatik ekin zion margotzeari; 1973an egin zuen lehen erakusketa eta ordu-tik hona ez da geratu eta Euskal Herriko txoko askotan erakutsi ditu lanak.

Eibartar horren lanak gaur, 18:00etatik aurrera, 15 egunetz Barrenkaleko aretoan egongo dira ikusgai.

'Xalbador'-en odolaren izana eta izena, pantaila handian

Xalbador: izana eta izena dokumentala erakutsiko dute gaur Arkupe kultura etxean, 19:00etan

KOMUNITATEA GOIENA | BEÑAT Z. AKIZU
LEKAIXOKA BERTSO ESKOLA | ARETXABAETA

"Zuek ezpazerate kontentu / errua ez daukat, ez, nik: / txistuak jo dituzue bainan / maite zaituztet oraindik!", kantatu zuen Urepeleko artzainak. Txistuak txalo bihurtuta, bertsolaritzaren une antologikoenetako eta gogoratuetako bat sortu zuen Fernando Aire *Xalbador*-ek (Urepele, 1920-1976) 1967ko Euskal Herriko Bertsolari Txapelketan. *Xalbador* aipatuta, *Odolaren mintzoa* obra ere badakar gogoak?: bizitzarekiko zuen ikuspegi berezia eta bertso idatziak jaso zituen obra horretan. Antologikoa da idatzizko obra hori ere. Eta obra horrek bere heriotza dakar gogora, obra argitaratu zen egun berean hil baitzen. Bertsolariaren historiako bertsolari miretsienetako 1976an, jaioterrian bera omentzen ari ziren egun berean, bat-batean hil zen ondoezak jota.

Lekaixoka eta Udala elkarrekin *Xalbador*-engandik ezagunenak diren kontu horiez harago, *Xalbador: izana eta izena* dokumentalaren bidez Urepeleko bertsolaria eta artzaina ezagutzeko eta ezagutarazteko aukera ikusita, Lekaixoka bertso-eskolak proposamena egin zion Aretxabaletako Udalarari dokumentala herrira



Xalbador: izana eta izena dokumentalaren une bat. | TENTAZIOAK PRODUKZIOAK

ekartzeko. Udalak proposamenari helduta, gaurko antolatutako emanaldia: Arkupe kultura etxeko Zaraia aretoan, 19:00etan; sarrerak 3 eurotan. Eneko Dorronsoro zuzendaria han izango da: emanaldiaren aurretik dokumentala aurkeztuko du ordu laurdean; eta, filma erakutsi ondoren, ikus-entzuleek galderak, gogoetak edota ekarpenak egiteko aukera izango dute.

Iazko Durangoko azokan aurkeztu zuten lana, Hego Euskal Herrian; bi hilabetera iritsiko da Aretxabaletara, beraz. Dokumen-

talak *Xalbador*-en lau seme-alaben bidez egiten du *Xalbador* bertsolariarengandik *Ferrando* laborariarengandik bidea. Seme-alabek gainera, hainbat gertukok, adituk eta, besteak beste, Amets Arzallus, Xabier Amuriza eta Jon Lopategi bertsolariak ere hartzen dute parte. Eneko Dorronsoro zuzendariak dokumentala gartzten egindako lan mardularen ondoren, *Xalbador* bera entzun duela sentitzen duela dio: "Urepeleko mendi hegaletan bere ahotza entzun izanaren irudipena daukat. Kantari ari zen".

Hilabete musikatua izango dute Bergarako gaztetxean

IMANOL GALLEGU | BERGARA

Otsaila ez da urteko hilabeterik alaiena, baina kartzela zaharra girotzeko ahalegin berezia egin dute Txapa Irratiko *Jar itzazu tapoiak mesedez* irratsaioko kideek.

Gauzak horrela, gaztetxeko hilabete musikatua gaur, egubakoitza, hasiko dute. Hasieran Solos en el Bosque taldea etortzekoa zen arren, agenda arazoak direla-eta gaur gaueko emanaldiak aldaketa txiki bat izango du: Zaragozako taldearen lekua Lokuria! taldeak beteko du, eta, ondoren, One For Apocalypse taldeak hartuko du lekukoa gaztetxean, 22:00etan.

Ez da erraza Asturiasko One For Apocalypse taldearen musika estiloa definitzea, Mieresko hirukoteak, besteak beste, rocka, punka eta hardcorea nahasten ditu-eta. Horra hor, bada, sei euroren truke bi talde horien musikarekin zuzenean gozatzeko aukera.

Datorren asteari begira, sekretupean gordetzen dute Aratusteetako kartela gaztetxekoek, baina, dudarik gabe, egun eta gau bereziak izango dira. Egundorietan gaztetxea, moztuz ez ezik, kolorez, doinuaz eta sorpresaz beteko dute.

Laugarren Tapoi Festa

Mozorroen ostean, bizkor errotu den jaialdia egingo dute: Tapoi Festa. Aurten ere, maila eta dezibelio guztiak hausteko prest daude. Martxoaren 27an eta 28an, orain arte bezala, hardcore estiloko taldeek beteko dute bi egunetako kartela; besteak beste, Meltdown, Hilkar eta Perras Salvajes taldeak izango dira gaztetxean.

Egun bakoitzak bere txartela izango du: egubakoitzekoak 4 euro balioko du eta zapatukoak, berriz, 5 euro. Musika jaialdi horretaz gozatu eta garuna astindu nahi duten horiek, komeni tapoiak eskura izatea.



'Zarautzen erosi zuen' film laburraren emanaldietako bat. | AITOR ARREGI

'Zarautzen erosi zuen' laburra Clermonten lehian

I. G. / A. A. | OÑATI

Aitor Arregi zinemagile oñatiarra Frantziako Clermont-Ferrand Nazioarteko Film Labur Jaialdian izan da asteon, *Zarautzen erosi zuen* lanarekin, nazioarteko beste 79 laburrekin lehiatzen.

Kimuak programaren baltan

Etxepare Institutuak bultzatutako Kimuak programaren eskutik eraman dute oñatiarraren azkeneko lana, film laburren esparruan, nazioarteko jaialdi garrantzitsuena den lehiaketara. Gaur, egubakoitza, emango dituzte adituzera sarituen izenak.

"Honako hau laburren Cannes dela esaten dute. Sariaren bat irabaztea zaila izango da, baina, emanaldietan izan duen harrera ikusita, aretoak bete egin ditu, eta, jaso ditugun profesionalen iritzia onak direla-eta, beste jaialdi batzuetako arduradunenak horien artean, oso

gustura gaude", dio Frantziatik Esther Cabero aretxabaletarrak, Kimuak programako ordezkariak, eta zera gaineratu du: "Arregiren lana iragartzen duen Iker Aiestaranek diseinatutako kartelak hormetatik desagertzen ari dira; beraz, esparru ezberdinetan interesa sortu duela esateko moduan gaude".

Zarautzen erosi zuen Donostia Zinemaldian aurkeztu zuten eta harrezkero zinema jaialdi askotan lehiatu da.

Goya sarietara bidean

Arregik, baina, ez du atsedetik hartzeko astirik izango, bihar, zapatua, Goya sariaren galan egongo da-eta *Loreak* filmarekin, hura baita ekoizlea.

Filmak sarietarako bi izendapen lortu ditu, film onenarena eta musika onenarena. Sariaren batekin bueltatzea zaila izango den arren, ilusioz doa Madrilera.



ARRASATE MUSIKAL

Piano doinuak Amaia Udal Antzokian

Urtero moduan, eta Andoaingo piano jaialdiaren aurretik, eskualdeko piano-jotzaile gazteak Arrasateko Amaia antzokian batu ziren eguaztenean beroketa saio bat egiteko. Aurten, elur kontuengatik, Elgetako eta beste herri batzuetako hainbat gaztetxok huts egin zuten. Hala ere, antzokira joan zen jendeak gogotik gozatu zuen. Ea Andoainen otsailaren 28an eta martxoaren 1ean zorte hobea duten, eta, eguraldia ez ezik, epaimahaia ere euren alde dagoen.

Erik Polanko | Futbolaria

"Futboleantzatzeaz gain, ikasten jarraitzen dut; izan ere, ikasketak izatea oso garrantzitsua da"

ANDONI MUXIKA | BERGARA

Erik Polanko 22 urteko bergararrak pasio du futbola. Izan ere, Athletic taldean hasi zen jokatzen, eta gaur egun oraindik ere futboleant dihardu, 2. B mailan, Leioa taldean, hain justu ere. Horrenbestez, esperientzia aparta daukala esan daiteke.

Bada, oraindik gaztea izan arren, esandako moduan, dagoeneko esperientzia nabarmena daukazu futboleant...

Bai, hala da; izan ere, aurrean, laugarren denboraldia da senior mailan nabiltzen. Hain zuzen ere, bi denboraldi Elgoibarko taldean egin nituen eta ondorengo biak, berriz, Leioan: lehenengo hiru urteak Hirugarren Mailan eta aurtengoa, 2. B mailan. Gainera, ni baino nagusiagoak direnekin jokatzen dut eta horrek asko laguntzen dit futbolari moduan esperientzia hartzeko.

Betidanik jokatu izan duzu futboleant; zelakoa izan ziren hasiera?

9 urte nituela hasi nintzen kirol hori praktikatzeko. Hasieran, nire herriko taldean jokatzen hasi nintzen, baina nagusiagoekin; izan ere, ez zegoen nire adineko talderik. Gero, Joma Athleticera joan nintzen, Athletic Club taldearen filiala zena. Gero, Athleticen sartzeko probak gainditu, eta han hasi nintzen.

Hortaz, asteak Bilbon ematen zenuen; zer moduz txikitatik etxetik kanpo bizi izaten?

Bai; Athleticen ibili nintzenean, lau urte eman nituen astean zehar etxetik kanpo bizi izaten, 15 eta 19 urte bitartean, hain zuzen. Hasieran, oso zaila izan zen; izan ere, etxekoak, lagunak... faltan igartzen nituen. Baina denborak aurrera egin ahala, ohitzen eta lagun berriak egiten hasi nintzen.

Athleticen ostean, Elgoibarko taldeant ibili zinen, ezta?

Bai, eta asko ikasi nuen han. Hirugarren Mailan ibili ginen; horrenbestez, esperientzia handiko jendea zegoen eta taldeko jokalariek gazteena ni nintzen. Zorionez, oso ondo hartu ninduten; bai jokalariek, teknikariek... Hortaz, futbolari moduan hazteko aparta izan zen.

Eta orain dela bi urte maila bereko beste talde batera joan zinen.

Bai; Hirugarren Mailako talde onenetako baten eskaintza jaso nuen: Leioa taldearena, hain zuzen. Eta aurrera salto egiteko ordua zela sentitu nuen. Hasie-

ratik entrenatzailearen babesa izan nuen eta minutu asko jokatzeko zortea izan nuen. Gainera, urte berean, Hirugarren Mailako txapelak izan ginen. Eta ondoren, kanporaketa irabazi egin genuen eta, horrenbestez, 2. B mailara igo ginen.

2. B mailan kompetentzia handiagoa izango da, ezta?

Bai. Esperientzia handiko jendeak jokatzen du maila horretan; lehenengo eta bigarren mailetan ibilitako jendea ere badago. Gainera, gure ligan, 2. B mailako bigarren multzoan –maila horretan lau multzo daude–, talde handien filialak daude: Real Madrid B, Atletico Madrid B... Hortaz, oso kompetentzia handia daukagu.

Zer moduz zabilta maila horretan?

Oso ondo nabil. Minutu asko jokatzeko aukera eskaini didate, eta horiek aprobetxatzen ahalegintzen naiz.

Eta taldea?

Taldea ere oso ondo dagoela esango nuke. Izan ere, giro aparta dago gure artean, eta hori emaitzetan ikusten da; hasieran, helburua mailari eustea zen, eta, oraingoz, sailkapenaren erdialdean gaude.

Etorkizunean, nahiko zenuke futboleant jarraitu?

Bai, duda barik. Futbola oso garrantzitsua da nire bizitzan. Gaztea naiz, 22 urte ditut, eta beste hamabost urtez jokatu nahiko nuke. Hori bai, nire helburua Lehenengo Mailan jokatzea da, eta, horretarako, lan handia egin behar da.

Baina futbola ez da dena; ikasten jarraitzen duzu, ezta?

Bai; futboleant jokatzeaz gain, ikasten jarraitzen dut. Oso garrantzitsua da; izan ere, mundu hau ez da betiko. Hori bai, kirolarekin lotutako goi gradu bat ikasten nabil, Tafyd, zerikusia handia duena futbolarekin. Eta horren ondoren, SHEE (IVEF) gradua ikasi nahiko nuke.

MARRA AZKARREZ

Janari gustukoena: Pasta eta haragia.

Film gustukoena: Ez dut film askorik ikusten.

Bizitzeko toki bat: Bergara.

Jokalariek gustukoena: David Villa asturiarra, New York City futbol taldeant dabilena gaur egun.

Amets bat: Lehenengo Mailan debutatu nahiko nuke.

Musika talde bat: Abestiak gustatzen zaizkit musika taldeak baino gehiago.

Jokatu duzun futbol-zelai gustukoena: Alfredo Di Stefano (Madrid, Valdebebas) edo San Mames (Bilbo).



Erik Polanco, Leioa futbol taldearen kamisetarekin.

ESKER ONA

M. Carmen Mendizabal Sagastigutxia

2014ko abenduaren 30ean hil zen, 75 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak bidali zenizkiguteno eskerrik asko, sendikoen izenean.

Isiltasunean izan dira zure lana eta bizitza, beti izango zara gure oroimenean eta bihotzean.

Arrasaten, 2015eko otsailaren 6an.

ESKER ONA

**Espe Zufiria Zugasti**

Arrasaten hil zen 2015eko urtarrilaren 30ean, 68 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi. Bihotz-bihotzez besarkada handi bana familiaren izenean.

Arrasaten, 2015eko otsailaren 6an.

ESKER ONA

**Lorenza Martinez Alvarez**

Juan Arrietaren alarguna

2015eko urtarrilaren 31n hil zen, 87 urte zituela.

Lorenzaren familiaren izenean, eskerrik beroenak azken egunotan ondoan izan zaituztegun guzti-guztioi, adierazi diguzuen babes eta gertutasunagatik, hiletara etorri izanagatik eta gure samina zuena egin izanagatik. Mila esker.

Bergaran, 2015eko otsailaren 6an.

HILDAKOAK

M. Teresa Iartza Egaña. Oñatin, urtarrilaren 29an. 86 urte.
Fernando Romo Murgiondo. Arrasaten, urtarrilaren 29an. 57 urte.
Eugenio Pardo Quintana. Arrasaten, urtarrilaren 29an. 89 urte.
Josefa Saiz Alonso. Arrasaten, urtarrilaren 29an. 80 urte.
M. Lourdes Lasa Egia. Arrasaten, urtarrilaren 29an. 68 urte.
Espe Zufiria Zugasti. Arrasaten, urtarrilaren 30ean. 68 urte.
Migel Aiausti Madina. Oñatin, urtarrilaren 31n. 89 urte.
Lorenza Martinez Alvarez. Oñatin, urtarrilaren 31n. 87 urte.
Pedro Aiala Zabala. Arrasaten, otsailaren 3an. 93 urte.
Maria Madinabeitia Ayaga. Arrasaten, otsailaren 4an. 94 urte.
Felix Uribe Barrena. Arrasaten, otsailaren 5ean. 90 urte.

URTEURRENA

Jose Irazabal Aranzabal

2014ko otsailaren 15ean hil zen, 85 urte zituela.

Lehen urteurreneko meza domekan izango da, otsailaren 8an, 12:00etan, Bergarako Santa Marina parrokian.

Zure oroimenak indartzen gaitu.

Elizkizunetara joango zareteno eskerrik asko, sendikoen izenean. Bergaran, 2015eko otsailaren 6an.

HILETA

**Felix Uribe Barrena**

'Zaimutz'
Beatriz Altuna Urdingioaren alarguna

2015eko otsailaren 5ean hil zen, 90 urte zituela.

Haren aldeko hileta-elizkizuna gaur, egubakoitza, izango da, 19:00etan, Arrasateko San Juan Batailatzailearen parrokian.

Beti izango zara gure oroimen eta bihotzetan.

Elizkizunetara joango zareteno eskerrik asko, sendikoen izenean. Arrasaten, 2015eko otsailaren 6an.

OROIORE

Maitasunez bizi, maitasunez agurtu

Hain une delikatu batek eskatzen duen errespetu, arreta eta ardura handienarekin, nire asmoa da familiari ahalik eta traturik beroena eta hurbilekoena ematea

Heriotza-asegurua baduzu: Ez onartu besterik gabe zure aseguru-konpainiak esaten dizun Hileta-Zerbitzua, jakin ezazu: NAHI DUZUN Hileta-Zerbitzua AUKERA DEZAKEZULA BETI.



maribi 617 44 21 55
BERGARA

ESKELAK JARTZEKO: 943 25 05 05
edo eskelak@goiena.eus

Eskelaren prezioa: 130 euro.
Goiena Klubeko bazkideendako 118 euro.
Goiena: irakurriena Debagoienean.

ASTE BARRUAN, BAITA ERE:

ARRASATE Goiena: Otarora Lizentziaduna 31. 943 25 05 05.
BERGARA Jardun elkarte: Errotalde jauregia (kultura etxean), 943 76 36 61
 605 71 24 69
OÑATI Biklon publizitate agentzia: Olakua 9. 943 78 10 65.
ELGETA Ugari janari denda: Andra Mari plaza 2. 943 78 80 80.
ANTZUOLA Itzar liburu-denda: Kalebarren 1. 943 76 60 62.



ESKORIATZA Ain_1 taldea

Ain_1 taldeak zazpi urteko ibilbidean hainbat abesti, poesia eta dantza emanaldi eskaini ondoren, Eskoriatzan egingo du, behin-behinean, bere azken kontzertua, eta bertan lan horietako batzuk entzuteko aukera egongo da. Besteak beste, *Badoa*, *badirau* disko kantuak. Sarrerak, bi euro leihatilan.

Gaur, egubakoitza, Zaldibarren, 22:30etan.

GOIENA

BERGARA Haendelen 'Mesias'

Bergarako Orfeoiak musika klasikoaz beteko du San Pedro parrokia. Sarrerak hamar eurotan salduko dituzte. Sarreren salmentatik lortutako irabaziak San Pedroko organoa eraberritzeko bideratuko dira. Berogailuak egongo dira.

Bihar, zapatua, San Pedro parrokian, 20:00etan.

GOIENA

MUSIKA**BERGARA One For Apocalypse eta Lokuria**

Jar itzazu tapoiak mesedez irratiaioaren eskutik. Sarrerak, hiru euro.

Gaur, egubakoitza, gaztetxian, 22:00etan.

OÑATI Zea Mays

Zea Mays taldearen kontzertua gaztelekuan.

Gaur, egubakoitza, gaztelekuan, 23:00etan.

BERGARA DJ jaialdia

Gaztetxoendako emanaldia Amaia Txintxurretarekin.

Bihar, zapatua, Zabalotegin, 18:30etan.

ELGETA Maribel Martinez

Maribel Martinez *La Porteña*-a kontzertua egingo du Tango Trio taldearekin. Sarrerak, 12 euro.

Bihar, zapatua, Espaloian, 22:30etan.

OÑATI Iñigo Cabezafuego eta Los Brutales

Iñigo Cabezafuego saltsa guztietan dabilen Iruñeko musikaria da. *Camina conmigo* izeneko disko kaleratu berri du eta orain hirukote formatuan aurkezten dihardu.

Etzi, domeka, Pako tabernan, 19:30etan.

OÑATI Putan Club eta Joseba Irazoki

Italia osoan zehar kontzertu mordoa eskaini ostean Antixenera helduko dira Putan Club taldekoak. Oholtzan Joseba Irazokiren laguntza izango dute. Irazokik bakarkako formatuan egingo du emanaldia.

Otsailaren 10ean, Antixenan, 21:30etan.

IKUS-ENTZUNEZKOAK**BERGARA 'Jostunak'**

Gure Esku Dagok egindako ikus-entzunezkoa. Sarrera doakoa da herritar guztiendako.

Otsailaren 10ean, Zabalotegin, 20:00etan.

BERGARA 'Lasa eta Zabala'

Torturaren kontrako egunarekin bat eginez, Bergarako Lokarriko Foroaren eskutik *Lasa eta Zabala* pelikula emango dute Zabalotegin. Doako emanaldia eta irekia izango da.

Otsailaren 11n, Zabalotegin, 20:00etan.

NON-ZER

Emaiguzue zuen ekitaldien berri eguazteneko eguerdia baino lehen.

Tel.: 943 25 05 05 | kultura@goiena.eus | Faxa: 943 25 05 00

OTSAILA 6
OTSAILA 12**GAZTELEKUAK****ARETXABALETA Sukaldaritza**

Sukaldaritzan aritzeko hainbat aholku emango dituzte.

Gaur, egubakoitza, gaztelekuan, 17:00etan.

ESKORIATZA Hockey partidua eta torradak egiteko aukera

Hockey partidua pilotalekuan jokatu dute. Torrada tailerra gaztelekuan egingo dute.

Bihar, zapatua, aipatutako lekuetan, 17:00etan.

ARETXABALETA Txapel Txin eguna eta torrada lehiaketa

Goizean Txapel Txin eguna ospatuko dute eta arratsaldean torrada lehiaketa egingo dute.

Bihar, zapatua, gaztelekuan.

ARRASATE Sukaldaritza hotza

Plater hotzak nola egin ikasiko dute gaztetxoek.

Bihar, zapatua, erdi guneko gazte gunean, 18:00etan.

ARRASATE Sexualitate tailerra

Mirari Arandok emango die tailerra gaztetxoek.

Etzi, domeka, erdi guneko gazte gunean, 18:30etan.

ERAKUSKETAK**BERGARA Roman Gonzalezen margoak**

Gaur da Gonzalezen margolanak ikusteko azken eguna.

San Antonioko Gure Ametsa elkarteak.

BERGARA Vicente Iriondo

Gaur zabalduko dute Vicente Iriondoren margolanen erakusketa. Ikusgai egongo da otsailaren 22ra arte.

Otsailaren 22ra arte, Aroztegi aretoan.

ARETXABALETA Carlos Diez

Carlos Diez Crespo *Mochuelo*-ren *Inintencionadamente* delako erakusketa ikusgai.

Otsailaren 28ra arte, Arkupen.

LITERATURA**OÑATI Felix Albo ipuin kontalaria**

Nagusiendako ipuin kontaketa egingo du. Alacantetik dator, *Faros* izenburuko ikuskizunarekin. Mediterraneo historiari kontaktuko ditu.

Otsailaren 10ean, udal liburutegian, 19:00etan.

BERGARA Memoria historikoari buruz

Auzitegi-mediku-antropologo Paco Etzeberriak memoria historikoari buruz egingo du berba, Lokarriko Foroak gonbidatuta.

Otsailaren 13an, udaletxean, 19:00etan.

DANTZA**BERGARA Herrixa Dantzan**

Saio berezia egingo dute Sergio Cobosen laguntzarekin. Sarrerak, bost euro.

Etzi, domeka, Zabalotegin, 19:00etan.

DEIA**OÑATI Odol-ateratzea**

Txantxiku ikastolako aretoan egingo dute.

Gaur, egubakoitza, ikastolan, 17:00etan.

BERGARA Alez Rabanalen saioa

Alez Rabanalek doako bakarrizketa emanaldia egingo du.

Gaur, egubakoitza, Agirrebeña tabernan, 22:30etan.

ARETXABALETA EH Bilduren parte-hartze saioa

Aretxabaleta aldatzen (h)ari gara izenarekin hauteskundeei begirako parte-hartze saioa egingo du EH Bilduk. Bi gai landuko dituzte: alde batetik, Udalaren balorazioa; eta beste alde batetik, agintaldiko programarako ekarpenak.

Bihar, zapatua, Arkupen, 10:00etan.

ARRASATE Herri programa lantzeko batzarra

EH Bilduk herri programa lantzeko batzar irekia egingo du. Herri programa lantzeko arrasatearren ekarpenak gura dituzte.

Bihar, zapatua, kulturaten, 10:00etan.

ARETXABALETA Odol-ateratzea

Arabako odol-bankuko kideak egingo dira osasun etxean.

Otsailaren 9an, osasun etxean, 16:30etan.

OÑATI Ehuntzeko erabakiaren aurkezpena

Desberdinen arteko elkarlana josiz ehuntzeko ekimena aurkezteko ekitaldia egingo du Gure Esku Dagok.

Otsailaren 9an, gaztelekuan, 19:00etan.

ZEAMAYS.COM

Zorionak denoi!

Hauek dira Goiena Klubeko
urtarrileko zozketetako irabazleak

goienakluba

QuickSilver motxila eta ipuinak:
Lierni Arregi Iturralde (Oñati)

Prime Time liburua (John Andueza):
Jon Mikel Abaunz (Bergara)

Bazen Behin Bizitza jokoa:
M. Antoni Beitia Urkola (Arrasate)

BI PERTSONARENTZAKO AFARIAK:

Soran etxea (Leintz Gatzaga):
Tere Azkarreta (Bergara)

Santa Ana (Arrasate):
Maitane Larrañaga (Arrasate)

Etxe Aundi (Oñati):
Ascensio Ramirez (Arrasate)

KULTURA SARRERAK:

Gose:
Hodei Vicario (Arrasate)
Gotzon Agirre (Arrasate)
Vanessa Gonzalez (Arrasate)

Governors:
Idurre Arbulo (Aretxabaleta)

Bakuna show:
M.Victoria Arregi (Oñati)

SARIAK JASOTZEKO:

Saria jasotzeko zatuz GOIENAREN Arrasateko bulegora.
Saria jasotzeko, BAZKIDEAREN TXARTELA erakutsi edota BAZKIDE ZENBAKIA jakitera eman beharko da.
GOIENA, Otarola Lizentziaduna, 31, Arrasate, 943 25 05 05
Ordutegia: Astelehenetik eguenera: 09:00 - 18:00. Egubakoitzetan: 08:00 - 14:00.



goiena

2015-02-06

BUKATZEKO

Bufaloak jeztetik, ardiak zaintzera

- ▶ Tufail Muhammad pakistandarrak bi urte daramatza Arantzazuko Gomiztegi baserrian lanean
- ▶ Bere herrialdean ere animaliekin egiten zuen lan; hala ere, gauza asko ikasi behar izan dituela dio

IRATI GOITIA | OÑATI

Pakistanen bufaloak jeztetik Gomiztegin ardiak gobernatzera pasatu da Tufail Muhammad. Jatorriz pakistandarra da, Punjab eskualdekoa. Orain dela lau urte etorri zen Euskal Herrira eta duela bi urte hasi zen Arantzazuko Gomiztegi baserrian lanean. "Oñatiko bi lagunekin etorri nintzen hona, ea lana egongo zen galdetzeraz", azaldu du Muhammadek. Ordutik hona, han dabil.

Artzain izaten ikasten

Txikitatik egin izan du animaliekin lan Muhammadek. "Nire aitak bufaloak zituen, eta ondoren, 16 urte nituenean, hango artzain batekin ere egin nuen lan". Gazta eta mozzarella egiten zituzten bufaloen esnearekin, edateko ere erabiltzen dute, edo okela haragitarako.

Hemen, Gomiztegin, egiten duen lana, baina, oso ezberdina dela dio: "Han ez dugu makinarririk. Hala, eskuz egiten dugu dena: jetzi, belarra moztu...". Bestalde, animalien gobernantza modu ezberdinean egiten dela ere badi: "Pakistanen animalie jateko belar berdea ematen diegu, eta bustitako pentsua. Hemen, berriz, belar eta pentsu lehorra erabiltzen dira.



Tufail Muhammad bildotsei jaten ematen, Gomiztegin. | IRATI GOITIA

Eguraldiagatik da hori. Izan ere, Pakistanen bero handia egiten du eta jateko freskoarekin hobeto egiten diote aurre horri animaliek". Horrenbestez, gauza asko

ikasi behar izan dituela dio; besteak beste: makineria erabiltzen, ardiei azazkalak moztzen eta ilea moztzen. Gehien kostatu zaiona azken hori izan dela dio: "Han



Muhammad, bufaloarekin. | T. MUHAMMAD

artaziekin egiten dugu eta hemen makinarekin. Zail samarra izan zen hasieran. Gazta ere oso modu ezberdinean egiten da. Han egiten dena biguna da eta erabiltzen den teknika ezberdina". Ikasi du, ordea, eta denean jarduten du gaur egun. 300 ardi gobernatzen ditu eta astean hiru bider egiten du gazta, adibidez. Irakasle onak izan dituela ere badi: Koldo Mada-riaga, Batis Otaegi eta Ekain Murua. Muhammad artzain ona dela diote Gomiztegin.

AZKEN BERBA

IDOIA
ETXEBERRIA



Barbie eta munstroak

Barbie panpinen salmenta jaitsi egin dela. 56 urteren ondoren. Hori esan zidan lagun batek aurrekoan. Izugarri jaitsi dela. Azken hiru hila-beteetan, ehuneko ia 60. Mattel etxeko arduradunetako bat bota egin dute horregatik. Aiba! Neurri erreagoak dituzten panpinak jarriko ziren modan? Beste jostailu mota bat? Mundua aldatzen ari ote da?

Ba ez. Orain, umeek nahia- go dituzte Monster High eta Bratz. Eta ezin esan neurri erreagoak dituztenik: bi hankapalo. Hauek ez dira Barbie bezain printzesa. Urbanoagoak dira, itxuraz errebeldeagoak. Bestela, molde berekoak. Sudur txikia, begi handiak. Gerri estua, minigona eta takoiak. Munstroak ere argalak... marka da gero! Gainera, Monster High panpinak ere Mattel etxearenak dira. Alde batetik galdutakoa beste alde- tik irabaziko dutela, alegia.

Hezur-haragizko Barbie bat. Bederatzi urteko Kristina Pimenova. Hiru urte zituene- tik posatzen dabilen modelo errusiarra. Zeresana eman du azkenaldian. Berak eta bere gurasoek. Ilehoria da, begi urdinak ditu. Hanka luze meheak. Eta bi milioi jarraitzaile Facebooken. Mundua ez da aldatu. Eta munstroak ere ez.

Arrasateko hipermerkatua

EROSKI
zurekin



Musakola 11 ARRASATE
Tel.: 943 71 10 30

Eskaintza baliagarriak Eroskiren supermerkatuetan eta hipermerkatuetan. 2015eko otsailaren 11ra arte. Frutategian, harategian eta okindegian otsailaren 4ra arte.



SKIP
Garbigailurako garbigarri
hautsa, 67 dosi
Alea: 13,90 €
0,21 € / dosia

2 erosita itzuliko dizugu:

13,90 €

2 eraman
1 ordaindu
BAZKIDEENDAKO
BAKARRIK



Bigarren alearen
zenbatekoa zure txartelean
itzuliko dizugu

Zapatuan,
otsailaren 7an

Bazkideendako bakarrik



AURREZTU
% 25

HARATEGIAN

Harategian hogei euro baino gehiagoko erosketan eginda.



Zure txartelean
itzuliko dizugu zure
hurrengo erosketarako.

EROSKI club
Bazkide izatearen abantailak